

IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA
MASTER EN ESTUDIOS FEMINISTAS Y DE GÉNERO

2017 -2018 Ikasturtea

Ikerketa lana:

Euskal gatazk(ar)en ertzetako biolentziak:

80-90ko hamarkadetan senide eta lagunak gatazkaren erdigunean izan zituzten andreen memoriaren eta praktika erresistenteen bilketa feminista

Egilea:

Maider Galardi Fernandez de Agirre

Tutorea:

Marta Luxan Serrano

2018ko Iraila

Aurkibidea:

0-SARRERA	3
1.-ZERGATIK IKERKETA HAU, ZERGATIK ORAIN?	7
2.-HELBURUAK ETA IKER GALDERAK	10
3.-MARKO TEORIKOA	12
3.1-Noren gatazka eta zein biolentzia? Berrirakurketa feminista bat	13
3.1.1-Gatazkaren lerrobakartasuna zalantan jarriz	13
3.1.2-Zer da biolentzia?	19
3.1.3-Lerro bakartasuna kolokan	24
3.2-Agentziarako gaitasuna: Eguneroko praktika erresistenteak eta parte hartze soziopolitikoak	25
3.2.1-Agentzia eta praktika erresistenteak	25
3.2.2-Parte hartze soziopolitikoak	28
3.3- Posible al da memoria kolektibo feminista? Begirada bat nazioarteko proposamenei: Egiaren Batzordeak eta Trantsiziozko zuzenbide feminista	31
4.-TESTUINGURUA	34
4.1- Euskal gatazka 80ko eta 90ko hamarkadetan	34
4.1.1-Beruna baino gehiago	34
4.1.2-Arrakala berunean	38
4.2- Gaur egun: memoria ariketetarako abagune aproposa	39
4.2.1-Gatazkaren konponbiderako bidean	39
4.2.2-Euskal Herriko mugimendu feminista: "Hau ez da gure bakea"	43
5.-METODOLOGIA	47
5.1-Ikuspuntu feministaren garrantzia	47
5.1.1-Epistemologia feminista eta ikertzailearen rola kolokan jartzea.	47

5.2-Diseinu teknikoa	51
5.2.1-Unibertsoa eta ikerketa subjektuekin dudan harremana	51
5.2.2-Ikerketarako teknikak	53
6-PERIFERIETAKO MINAK ETA ZENTROKO GATAZKAK:	
Datuen analisia	58
6.1- Gorputzean korapilatutako eta gurutzatutako gatazkak	60
6.1.1-Zaintzaileak muinetaraino	61
6.1.2-Zaintzaileak halabeharrez	64
6.2- Biolentziaren hamaika ertzak	67
6.2.1-Indarkeria bada periferian ere	68
6.2.1-Indarkeria sexualizatua denean	72
6.2.3-Ezkituko indarkeria, azalera	76
6.3- Bizirauteko estrategiak: agentzia eta praktika erresistenteak	85
6.3.1- Parte hartze soziopolitikoak	86
6.3.2- Egoera iraultzeko estrategiak	88
6.3.3- Babes sareak	92
7-ONDORIOAK	94
7.1-Gatazkaren periferian daude, baina gatazkak zentrotik zeharkatzen ditu	95
7.2- Biolentziak baditu milaka aurpegi	98
7.3- Gatazkaren biziraule izatetik, gatazkaren agente izatera	101
7.4- Noren memoria osatzen ari gara?	104
8-HARI BATETIK TIRAKA HASI ZEN, SOLTE GELDITU DIRA BESTE BATZUK	107
9- BIBLIOGRAFIA	111
10-ERANSKINAK	113

0.-SARRERA

Ikerketa honen bidez aztertuko dugu 80-90ko hamarkadetan ETako militante izanda, euskal gatazkan modu aktiboan parte hartu duten horien senide eta lagun emakumeek nola bizi izan duten gatazka, eta zein forma hartu duen eurek jasandako biolentziak. Ezinbestean, beraz, emakume horiek egoerari aurre egiteko erabili dituzten praktika erresistenteez eta agentziaz ere arituko gara. Modu horretan, atea irekiko diogu etorkizunean memoria kolektiboaren irakurketa osatuago bat egiteari eta elkarbizitzarako eta gatazkaren konponbidearen prozesurako oinarri feministak jartzeari. Horretarako akuilu izango ditugu gatazken antropologia, antropologia feminista eta praktikaren teoria soziologikoa. Era berean, erreferentzia nagusi gisa nazioartean orain arte egindako antzeko proposamenak jasoko ditugu, ikusteko nolakoak izan diren bestelako gatazka armatuak gertatu diren eremuetan aurrera eramandako osatze kolektiborako proposamenak.

Begirada feminista zeharlerroa izango da lan honetan. Gatazkaren eta biolentziaren berrirakurketa proposamena egingo dugu, batetik. Bestetik, andreon biktima izaera gainditzeko aukera ere izango dugu haien erresistentzia praktiken eta agentziarako gaitasuna ezagutuz. Amaitzeko, jasotako materialarekin bizikidetzarako eta memoria kolektiboarentzako oinarri berrien inguruan hausnartzea da asmoa. Hori guztia helburu nagusi baten aterkipean; euskal gatazkaren *bigarren lerroan* kokatutako emakume horien bizipenak eta testigantzak jasotzea bake prozesuan egiten ari den ariketa feministari ekarpena egin asmoz. Izan ere, historikoki *lehen lerro* deiturikoaren ikusgarritasunak erabateko lotura dauka genero sistemaren ondorioz egituratutako espazioaren banaketari. Lehen lerro hori da ikusgarria, publikoa (eta ez kasualitatez bortitza, indartsua, gerraren iruditerian iraunarazi dena). Bigarren lerroa, edo atzeguardia deiturikoa, berriz, maiz lotzen da ezaugarri eta eginbehar feminizatuekin. Horrek, ikusezin egin ditu, eta ez kasualitatez, emakumez josita egon da eremu hori. Bereizketa horren inguruko eztabaida plazaratzea ere bada ondorengo ikerketa honen helburuetako bat.

Ikerketa aurrera eramán ahal izateko metodologia kualitatiboa erabiliko dugu. Izan ere, aukera ematen du emakume horien subjektibitateetara iritsi eta modu malgu batean euren bizipenak ezagutu eta diskurtso analisia egiteko. Gainera, praktika feminista ikerketa prozesu osoan zehar modu transbertsal batean kokatuta, aukera izango dugu ikertzaile eta ikertuaren arteko hierarkien inguruan hausnarketa egiteko. Hortaz, elkarrizketa sakonek teknika erabiliko dugu. Elkarrizketa formatuan ikusi ahal izango dugu elkarrizketatutako 9 andreen artean dauden antzekotasunak, eta aukera izango dugu gatazkaren eta biolentzien inguruko definizio berria eta osatze kolektiborako sare berria eraikitzeke. Era berean, ahalduntze eta osatze kolektiborako ariketa ere proposatzea bada asmoa, eta bide batez, andre horiei ukatu zaien agentzia politikoa berreskuratzea. Hortaz, parte hartzaileekin modu aktiboan lan egitea eta kontraste saioen bidez norberak bere bizipenak elkarbanatzea da asmoa.

Elkarrizketatutako andre guztiek dute komunean orain arte ikusezinak izan direla. Inoren ama, inoren bikotea edo inoren arreba. Guztiek dute senide edo lagun hori ere gatazkaren “albo” batean kokatuta: ETAko militante izan dira. Ondorioz, espetxea, ihesa, klandestinitatea, erbestea, deportazioa, gaixoaldi larriak eta heriotza bera pairatu dituzte pertsona horiek. Muturreko egoera horiek beren inguruko emakumeek nola bizi dituzten aztertzea da xedea. Eta, beraz, aitortzen da egoera horrek baldintzatu dituela ikerketako protagonista diren andreak.

Hala ere, okerra litzateke pentsatzea, lagun eta senide horiek ETAkide izanak berez dakarrela homogeneotasuna emakume horien bizipenetan: gatazkaren erdigunean egondako kide horrekiko atxikimendua, zein andre bakoitzaren ibilbide soziopolitikoak baldintzatzan du bizipenen berezitasuna, beraz, albo ustez konpaktu batean egon daitezkeen aniztasunak eta arrakalak jasotzea ere bada helburua. Are gehiago, emakume horiek gatazkaren aurrean eduki duten jokabidea ezagutzea ere ikerketaren helburu interesgarrietako bat da. Horregatik, emakume horiek kontatzeko dutenak hainbat gako emango dizkigu egun gertatzen ari den bake eta gatazkaren konponbidearen prozesuan urrats bat aurrera egiteko. Orain arte aipatutako *lehen leerro* delako horretan kokatutako (batik bat) gizonen arteko solasaldia izan baita oro har azken 7 urtetako elkarbizitza prozesua.

Nazioartean azken bi hamarkadetan izandako borroka armatuen bake prozesuen erreferentziak jasotzea ere aberasgarria izango da lan honetan, izan ere, Kolonbian, Guatemalan, Ekialdeko Saharan eta El Salvadorren, esaterako, egin dituzte horrelako ariketak. Ikerketa honetan proposatzen dena da aurreko esperientziak kontuan hartuta Euskal Herriari, eta dagokion testuinguruari, ongien egokitzen zaion berrikuspen feminista bat egitea, gatazkaren ondorioen eta biolentziaren inguruko begirada irekitzea eta orain arte zentroan egon ez diren bizipenak ikuspegi feminista batetik berreskuratzea.

1.- ZERGATIK IKERKETA HAU? ZERGATIK ORAIN?

Ikerketa egiteko ezin une aproposagoa da. Batetik, ETaren amaiera hurbilak ziklo historiko berri bat ireki du, bizikidetzaz eta barealdiez hitz egin ahal izateko aro bat. Hainbat urtetan bizitako sufrimenduari eta parte hartze politikoari izena eta nondik norakoak jartzeko unea da. Aitortzekoa da hainbat instituziok abian jarriak dituztela zenbait egitasmo. Honezkero Memoriaren Institutua (Nafarroan berriki), Eusko Jaurlaritzaren Bakearen eta Giza Eskubideen Idazkaritza, memoriarako funtsak (Euskal Memoria kasu...). Baina ez zaio esplizituki begirada feminista batetik heldu gaiari. Hala gertatzen da, esaterako, Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020rako Bizikidetzaz eta Giza Eskubideen Planean, ez baita genero ikuspegia esplizituki azaltzen. Bestalde, une interesgarria da akademiak ere hel diezaion gatazken, biolentzien eta genero ikuspegiaren teorizazioari eta analisiari Euskal Herrian.

Bestalde, nabarmendu behar dut dagoeneko egin direla hainbat mintegi euskal gatazkaren subjektu feministen inguruan (UEU, 2016 Eibarren), euskal gatazkaren irakurketa feministaren inguruan (UEU, Bilgune Feminista, 2015 Iruñean eta Bilbon) eta justizia trantsizional feministaren inguruan (Université d'été AFJT, 2017 Baigorriin). Herri egitasmoak diren Foro Sozialak eta Bake Bidean elkarteak ere hasiak dira beren proposamenetan genero ikuspegia txertatzen. Eta geroz eta gehiago dira emakumeek euskal gatazkan izan duten parte hartze zuzena aztertzen duten ikerketak (izan ETako militante izan zirelako, izan espetxeratutako andreak izan direlako). Horietan esanguratsua da Zuriñe Rodríguez ikerlaria osatzen ari den ikerketa tesia, edota Olatz Dañobeitia 90ko hamarkadan ENAM Euskal Nazio Askapen Mugimenduan parte hartu zuten emakumeen bizipenak jasotzen dituenena. Gainera, badira Euskal Herriko hainbat ikerlari, nazioartean gatazka armatuen ondorioak genero ikuspegitik lantzen dihardutenak (Irantzu Mendia, Carlos Martin Beristain...).

Baina, orain arte, ez da proposatu euskal gatazka modu transbertsalean genero ikuspegi batetik lantzen duen ikerketarik. Are gehiago, *Lehen Ierroko* protagonistei (emakumeak izan arren) eman zaie ahotso soilik. Kontuan hartuta gatazkek modu berezitan eragiten dietela emakumeei, eta biolentziak forma konkretuak hartzen

dituela, interesgarria da begirada zabaldu eta aztergai ditugun emakume horiekin lanketa egitea.

Bestalde, garai honek aukera ematen du apurka alde bateko zein besteko biktima eta bizirauleekin lanketa egiteko, eta horregatik ere, berritzailea da ondoko ikerketa hau. Helburua da ahalik eta emakume perfil anitzena jasotzea, ikusteko ea emakume izateagatik antzeko bizipenak izan dituzten eta nola egin dioten aurre egoerari, horrek aberastuko luke euskal gizartea bizikidetzarako egiten ari den bidea. Kasu honetan ETako militante izandako senide edo lagunak edukitako andreak izango dira ikergai. Horrek, halaber, ez du esan nahi homogenea denik taldea. Aitzitik, emakume bakoitzaren kokalekuak zertzelada konkretuak eskaintzen dizkigu. Hainbat erakundetatik ari dira biktimen arteko elkar errekonozimendua bultzatzen, baina *lehen lerroko* biktimak izendatuta, berriz ere alboratzen dira ikerketa honetan subjektu diren emakume hauek. Hain justu, eztabaidaren erdigunean dagoen biktimen arteko mailaketarik amaitzeko proposamena ere bada ondokoa.

Era berean gustatuko litzaidake ikerketa sarrera bat izatea lan zabalago batentzako. Horregatik, garrantzitsua izango da gatazkan inplikaturako alde guztiak eroso egon daitezen ikerketa proposamen bat aurrera eramatea. Kasu honetan, 80ko eta 90ko hamarkadetan aipaturako esperientziak izan zituzten andreak izango dira ikerketako subjektuak. Hainbat txostenek, eta Eusko Jaurlaritzak argitaratu berri duen "Euskadin izandako tortura kasuen ikerketa"-k ahalbidetzen du zehaztea aukeratutako bi hamarkada horietan hainbat izan direla gatazkaren zentroan euren burua ikusi duten aldeak. Bestalde, badira 35 urte garai horiek joan zirela, eta hortaz, ikerketa egoki bat egiteko nahikoa urruntasun eskaintzen digute. Aldiz, nahikoa hurbiltasun dugu gatazkaren ondorioetan hausnartzen jarraitzeko. Euskal Herriko zazpi lurraldeetako andreak elkarrizketatzea da asmoa, tokian tokio berezitasunak kontuan hartzeko, baina gertutasunik ez galtzeko. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi nazioarteko gatazka guneetan horrelako prozesuak abian direla. Horren erakusle Kolonbiako "Ruta Pacifica de las mujeres" egitasmoaren proposamena: "Memoria para la vida. Una comisión de la verdad desde las mujeres para colombia" (2013). Azpimarratzekoak baita ere Irlandan, Mendebaldeko Saharan, El Salvadorren eta Palestinan -besteak beste- horrelako ikerketen bitartez egindako ahalduntze lana (Mendia, 2013).

Finean, une egokia da, eta aurrekari garrantzitsuak daude ikerketa mardul hau gaur egun aurrera eraman ahal izateko. Gatazkaren ondorioak jasan dituzten hainbat andrearen kontaketa jaso eta analizatuko baitira, eragindako kalteak eta izandako praktika erresistenteak genero ikuspegi batetik aztertzeko.

2-HELBURUAK ETA IKER GALDERAK

Ikerketaren **helburu nagusia** da Gatazkaren konponbide prozesuan egiten ari den bizikidetza ariketan eta memoria kolektiboaren bilketan orain arte bigarren lerroan egon diren andreen kontaktak jasotzea, eta emakume horiek izandako parte hartze soziopolitiko ezagutzea. Hortik hasita, orain artekoaren berrikuspenera proposatzea gatazka, biolentzia, memoria eta praktika erresistenteen kontzeptuetan oinarrituz.

Helburu hori eskuratzeko, ordea, beharrezkoa izango da bigarren mailako ikerketa helburuak finkatzea, eta horiekin bat doazen ikerketa galderak zehaztea. Horrek ahalbidetuko du ikerketa norabide egokian kokatzea.

Hemen dira helburua espezifikoak, eta ondoren, helburu horiei dagozkien ikergalderak planteatu ditugu. Ikerketan zehar horiek erantzunda hasieran finkatutako helburuei keinu egingo diegu:

Ikerketaren helburuak:

1. Emakume horien bizipenak jaso eta gatazkaren konponbiderako eraikitzen ari den memoria kolektiboari ekarpena egitea.
2. Gatazkak eta biolentziak andre horiengan hartutako formak jasotzea, eta aztertzea ea alde guztietako emakumeak zeharkatzen dituzten gatazkek eta biolentziak antzekotasunak dituen.
3. Emakume horien biktima izaera gainditu eta erresistentzia praktikak ezagutzea; subjektu politiko gisa ikusaraztea. Eta aztertzea zein nolakoa izan den emakume horien parte hartze soziopolitiko gatazkak iraun bitartean.
4. Aztertzea, zein nolako praktika erresistenteak eraman dituzten aurrera. Eta, ikustea ea antzekotasunik ba ote dagoen elkarrizketatutako emakumeen artean.
5. Etorkizuneko beste ikerketa batzuei bidea utzita, ikusi zein aukera dagoen gatazkaren konponbidearen prozesuan ekarpena egiteko begirada feminista batetik eta ikerketa abiapuntu hartuta.

Ikerketa galderak:

1. Nola bizi izan dute euskal gatazka euren lagun eta senideak gatazkaren zentroan izan dituzten emakumeek? Eta nolako eragina izan du beraien egunerokoan?
2. Zein motako biolentzia jasan dute emakume horiek? Eta, arazorik al dago bizipen horiek biolentziaren kontzeptuarekin lotzeko?
3. Nolakoa izan da emakume horien parte hartze soziopolitikoaren eguneroko egoerari aurre egiteko, eta zein erresilientzia praktika jorratu dituzte?
4. Egindako kontaketa jaso ostean, birpentsatu beharko ote genituzke orain arte memoria kolektiboaren inguruan egindako hausnarketak, konponbidez egindako gogoetak eta gatazkari eta biolentziari buruz egindako definizioak?

3.-MARKO TEORIKOA

Euskal Herria azken hamarkadetan zeharkatu duen borroka armatuak eta horren inguruan eraldatuz joan den ehun soziopolitikoak hartu du zentralitate nagusia. Eta hortaz, Euskal Gatazka izendatzen denean, jendartearen iruditerian gatazka armatuaren ondorioak etortzen dira burura. Gatazka bat eta bakarra izan da aitortua gizartean azken 60 urteetan, eta afera politiko horrek erabateko zentralitatea hartu izanak ikusezin egin ditu beste hainbat aldarrikapen, eskakizun eta *auzi*. Are gehiago, borroka armatuaz eta beren ondorioez ari garenean, lerro bakartasunez pentsatzeko joera dago. Alegia, borroka armatuak ulertzeko guda ulertzeko logika berak erabiltzen dira: lerro bat eta horren aurkakoa buruz-buru, antagonikoak diren proposamenak mahai gainean jarriz. Horrek ez du esan nahi inplikaturik egon diren alde guztiek berdin egiten dutela gatazkaren kontaketa. Batzuentzako ETA erakunde terrorista bat izan da, Frantziako eta batik batik Espainiako gizartea kolpatu duena. Beste batzuentzako argia da bi *bandoen* arteko lerroa, eta beste batzuek aitortzen dute gehiago izan direla bertan parte hartutako aktoreak. Edonola garaile eta garaitu, albo bat eta beste... gerra logika da nagusi gatazkaren inguruko analisia egiterako unean.

Kontaketa zuzen eta lerro bakarrekoa egin nahi horrek, batetik sinplifikatu egiten du auziaren konplexutasuna; inplikaturik sektore oso konkretu batzuk bakarrik hartzen direlako ikergai. Gainera, bi alde argi definitzea ere askotan ez da erraza izaten. Ikerketa honetan aferan parte hartu duten agente askoren ondorio gisa ulertuko dugu gatazka. Horren bidez ikusiko dugu hainbat ertzetakoa izan dela Euskal Gatazka bera, eta orain arte kontuan hartu gabeko ahots ustez periferikoak eta gatazkaren hainbat *ñabardura* jasoko dira. Izan ere, gatazkaren eta biolentziaren irakurketa androzentrikoa eginda, lehen lerro horretan parte hartu duten kideen kontaketa soilik jasotzen da, eta ikusezin bilakatzen ditu gatazkaren parte izan diren hainbat lagun; batik batik emakumeak. Lehen lerroan ez egoteak, eta gatazka bera baino, gatazkaren *ondorio* gisa identifikatu izanak, emakume horien kontakizunak alboratu ditu. Beraz, haien bizipenak eta pertzepzioak jasotzeko ariketa egingo badugu, ezinbestekoa da gatazkaren eta biolentziaren inguruko berrirakurketa feminista bat egitea. Baita, haiek agentziarako eta erresistentziarako izan duten gaitasunaz hitz egitea, eta parte hartze

soziopolitikoak mahai gainean jartzea ere. Ondorioz, guda lerroen inguruko hausnarketa feminista egitea komenigarria izango da. Azkenik, memoria kolektiboaren eraikuntzan begirada feminista egotearen garrantziaz hitz egingo dut nazioarteko hainbat eredu kontuan hartuta.

3.1- Noren gatazka eta zein biolentzia? Berrirakurketa feminista bat

3.1.1- Gatazkaren lerro bakartasuna zalantzan jarriz

Gatazka armatuen eta gerren inguruko literatura teorikoak historikoki izan du begirada androzentrikoa. Nazio Batuen Erakundeak eta Gurutze Gorriak 1949an sustatutako hitzarmenaren arabera gatazka armatuak dira bi estatuak armaz borrokatutako gatazkak. Baina, badago xehetasun bat: nazioartekoak ez diren gatazka armatuak estatu jakin batek eta horren aurkako erakunde armatu batek borrokatzen dutenean gertatzen da. Nazioarteko Giza Zuzenbideaaren arabera posible da gatazka horrek bestelako forma politiko batzuk hartzea, baina nabarmena da bi alde kontrajarrien arteko bereizketa. Definizio horrek, beraz, ez ditu kontuan hartzen gatazkan inplikaturako hainbat erakundeen parte hartzea, eta, hortaz, ez da kontuan hartzen gatazkaren ondorioen ezaugarritze anitza. Era berean, horrek diskurtso eta agenda politikoaren erdigunean jartzen du halaberrez gatazka horren lehentasuna, eta gainontzeko auziak are periferikoago bilakatzen dira. Gatazka armatua bera amaitu ostean ere, ondorioei helderako unean eta bizikidetzaren proiektuak aurrera eramateko garaian, beraz, gatazka armatu horrek zentraltasuna edukitzen jarraitzen du, eta hortaz, osatzen den memoria kolektiboan ere nekez parte hartzen dute emakumeek gatazkako subjektu aktibo gisa. Arriskua dago, hortaz, aipaturako giza eskubideen urraketan analisisian ere begirada heteropatriarkala nagusitzeko, eta ondorioz, bi aldiz jazarriak izan dira sarri emakumeak. Lehenik gatazka garaian, emakumeen aurka biolentzia forma berezituak erabili direlako (sexu abusuak, bazterketa, bortxaketa...); eta bestetik, gatazkaren ondorioetan eta bake prozesuetan egitura heteropatriarkal iraunarazi direlako (Alfonso; Martin, 2013).

Gatazkek ardatz bakarra izango balute bezala aztertzen dira, eta horien ondorioei helderakoan ere, ardatz bakarra hartzen da kontuan. Baina, hori al da

gatazken ardatz bakarra? Gainerako ezberdinkeriak, dominazio egiturak eta bazterketak ezkutuan gelditzen dira. Alegia, ertzetako subjektuak zentroko diskurtsotik are urrutiago kokatzen dira, eta agentzia politikoa are gehiago galtzen dute (Goikoetxea, 2015). Hortaz, gehienetan ikusgaitzak diren borrokak eta gatazkak, are ikusezinago bilakatzen dira. Baina horrek ez du esan nahi, bestelako ardatzik egon ez denik. Hala azaltzen du fenomenoaren Zuriñe Rodriguezek:

“Kontzeptualizazio horren ondorioz, ikusezin bihurtuko da patriarkatutik eratorritako indarkeria, komunitatearentzat gorabeheratsuagoak diren beste indarkeria batzuen premiaren eta garrantziaren aurrean. Eta horrekin gatazka armatua beste gatazkarik ez dagoelako sentimendu kolektiboa eratzen da. Gatazka armatu hori gizonen gatazka izango da, eta indarkeria horiek hegemonikoak eta orden sozial bihurtuko dira, gizon batzuek beste gizon batzuen aurka sortutako indarkeria direlako. Horregatik bihurtzen dira, hain zuzen ere, hain garrantzitsuak” (Rodríguez, 2016: 22).

Hortaz, gatazka armatuak zentraltasuna hartzen badu ere, inondik ere ez da gatazka bakarra. Areago, genero sistemak erabat zeharkatzen du gatazka armatu batean dagoen gizarte bat; kontua da ez zaiola arretaz erreparatzen aldagai horri. Ez hori bakarrik, gatazka armatuak bizi izan dituzten gizarteek are gehiago polarizatzen eta trinkotzen dituzte generoen arteko ezberdintasunak, estereotipoak eta rolak (Mendia, 2014). Izan ere, genero sistemaren eraikuntzaren ondorioz gizonezkoei eta emakumezkoei egozten zaizkien rolak are nabarmenagoak bilakatzen dira horrelako egoeretan, eta hermetikoago bilakatzen dira jokabideak.

Hori aitortzea da gatazkak ikuspegi androzentriko batetik harago aztertzen hasteko lehen urratsa. Kontuan hartzen badugu genero ezberdinkeriaren aldagaiak bete-betean zeharkatzen duela gatazka armatu bat pairatu duen gizarte, kontuan hartzen hasiko gara *lehen lerroan* eta *modu aktiboan* soilik parte hartu duten horietatik harago ere egon direla gatazkaren ondorioak jasan eta bertan parte hartu duten askotariko subjektuak. Emakumeek gatazka horietan izandako rola kontuan hartzen hasiko gara orduan.

Gizon-emakume hegemonikoak indartuz:

Orain arte egin izan dira gatazka armatuetan (baita Euskal Gatazkaren inguruan) modu zuzenean parte hartu duten emakumeen inguruko ikerketak. Agerikoa da emakume zein gizon izan, erakunde militar baten kide izatearen esperientzia ez dela bera. Finean, ordea, iruditeria kolektiboan iraunarazten den figura zentrala berbera da: **denbora osoko militantearena**. Irudi horren ezaugarriak maskulinizatuak lirateke, Zuriñe Rodriguezen arabera:

“Gizona publikoa, produktiboa, subjektua, arrazionala eta maskulinoa izango da (...). Zatiketa horretan gizona da publikoa, eta atal publikoan, gainera, boterea, prestigioa eta politika egoten dira (...). Espazio publikoa, bertan gatazka armatua egoteaz gain, gizentasuna garatzeko eta maskulinitatearen erakustaldia egiteko agertoki sinboliko bihurtuko da. Gizon zehatz eta gutxi batzuek -terroristak batzuentzak, gudariak besteentzat- osatuko dute gatazka. (Rodriguez, , 2016:28)

Garrantzitsua da une honetan “genero” kontzeptuaren inguruko argipen batzuk egitea. Ikerketa honetan generoa eta genero sistema erabiliko dira, norbanakoen arteko ezberdintasunak zeharlerro gisa eta modu hierarkikoan antolatzen dituen eraikuntza sozial gisa; botere harremanak eragiten dituen, eta prozesu dinamikoa, aldagarria eta historikoen baitakoa dena (Bullen, Hernandez, 2010).

Beraz, 60 urteko ibilbidean emakumeek ere erakunde armatuan, esparru instituzionaletan, alderdi politikoetan, polizia erakundeetan eta bestelako eragileetan parte hartu badute ere, hainbat ikerketek azaltzen dute askotan jarrera maskulinizatu horiek erreproduzitu behar izan dituztela talde barnean horrelako egitura hierarkizatuetan eta militarizatuetan biziraun ahal izateko (Del Valle, 1985). Baina, maskulinitate hegemonikoari jarraitzen ez dioten gorputzak (sari emakumezkoenak) non daude? Ez al dituzte gatazkaren kalteak jasan? Eta, ez al dute gatazkak iraundatu urte horietan zehar inolako parte hartzerik izan?

Gatazka armatuak ulertzeko ikuspegi androzentrikoak ez ditu protagonistatzat hartzen gorputz periferiko horiek, ustez ez baitute modu zuzenean bat egiten arestian

aipatu dugun gatazka armatuaren definizioarekin. Ikuspegia apur bat zabaldua, ordea, ikusiko dugu emakume horien egunerokoan eragin nabarmena izan duela gatazkak, eta eurek ere eragin dutela, nolabait, auzian. Kontua da genero sistemaren arabera gorputz batzuei eta besteei egotzitako rol eta estereotipoak errepikatzen direla gatazka armatuetako testuinguruan; baita indartu ere. Hain justu, Judith Butlerren (2018) genero nahasmenduaren teoritik abiatuta, aitortu beharko genuke sexua zein generoa, biak direla ekintza performatiboen bitartez eraikitako (eta, hortaz, desegin ahal diren) ekintzen egitatea. Baina, esan dugunez gatazka armatuetako testuinguruetao gizarteetako genero sistema are indartsuagoa da, eta ekintzen bidez are gehiagon indartzen dira gizon eta emakume hegemonikoen irudiak eta betebeharrak (Shepherd, 2010). Hemendik aurrera beraz, gizon eta emakumez hitz egingo dugu, jakin arren dikotomia hortik harago ere bestelako gorputzak egon badaudela Euskal Herrian, eta gatazkaren genealogiak zeharkatu dituela. Edonola, rol eta estereotipo konkretu batzuez ari garenez, horrela bereiztea hobetsi da.

Hori abiapuntu hartuta, eta gizonezko militantearen iruditeria aipatu ostean, beharrezkoa da ikustea zein den andreei gatazketan egozten zaien rola. Emakumearen papera iruditeria kolektiboan (baita Euskal Herrikoan) agerikoa da. Esparru pribatuari dagozkion lanak egozten zaizkio: lan erreproduktiboak, zaintza lanak, irrazionalitatea, diskrezioa, sentimentalismoa... Aski erraz identifikatu daitezke ezaugarri horiek euskal gatazkaz ari garenean ere. Are gehiago, euskal nazionalismoaren barruan historikoki amaren paperarekin parekatu da emakumearen eginbearra (Etxebarrieta, 2016:61), eta beraz, gehiago indartu genero sistemaren baitako emakume hegemonikoaren irudia. Ongi bereizi zituen bati eta besteari egozten zaion iruditeria kolektiboa Teresa del Valle:

“Idatzietan, karteletan, pintadetan edo eranskailuetan ETAREN irudia indarraren eta erresistentziaren sinboloz osatzen zen, eta irudiak maskulinoa izaten jarraitzen zuten: gizon ukabil bat, gizonezko baten besoa metraileta bat heltzen duela. (Del Valle, 1985: 244)

Emakumezkoaren irudia, berriz, erabat lotuta dago ama edo bikotekidearen irudiarekin. Oihana Etxebarrietak (2014, 2016) egindako ikerketa lanetan argi

gelditzen da zein izan den Euskal Gatazka delakoaren iruditerian indartutako irudia: militantearen identifikazio maskulinoa egin da. Andrea berriz kanpotik hori sustengatzen egon den bikote/ama izan da sarri (Etxebarrieta, 2016). Alegia, zeregin pasiboak eta periferikoak egotzi zaizkio emakumeari 60 urteotan. Kasu honetan ETako militante izanagatik edo bestelako erakunde ilegalizatu batean egoteagatik errepresioa jasandako kideez eta horien senide eta lagun emakumeez ari gara. Baina, gauza bera gertatuko litzateke gatazkarekiko beste posizio bat izan duten erakunde, norbanako eta politikarien inguruko emakumeez ari bagara. Hala eraikia baitago iruditeria kolektiboa, eta hala ari da lantzen gaur ere gatazkaren ondorioen konponbiderako saioetan: alde batekoak zein bestekoak izan, emakume horiek beti izan dira lan erreproduktiboez arduratu, eta nolabait albokaltez ondorioak jasan dituzten norbanakoak.

Horrek, batetik, ikusezin egiten du emakume horiek egindako lana, eta auzi politikotik kanpo kokatzen ditu. Aipatu bezala, antagonikoak diren bi alde egon direla aitortzeaz gain, genero sistemaren araberako ardatza ere kontuan hartuko bagenu, ohartuko gara erabat errotuta daudela bati eta besteari egozten zaizkion egin beharrak, eta, horrela, gatazka beraren inguruko irakurketa feminista eginda, aldagai gehiago hartuko lirateke kontuan. Finean, gatazka politikoari dimentsio gehiago ezartzea da kontua, *lehen leerro* hortatik aldenduta gatazkak eragina izan duela ikusi eta auzi politiko bezala izendatzeko.

Gatazka politikoa(k) dimentsio guztietan

Ikusi dugu dagoeneko gatazka armatuetako testuinguruetan gizon eta emakumeen rola are gehiago indartzen badira ere, emakumeek izan dutela parte hartzea. Aurrerago ikusiko dugun moduan, kontua da lan horiek, erreproduzio eta zaintza ardurak eta bestelako elkarteetan parte hartzea ez dela bereziki ardura politiko gisa ulertu (politikaren ulerkera hegemonikoaren ondorioz). Espazio pribatuetan ikusezin izandako eginbeharrak dira guztiak, eta hortaz ez da politiko gisa kontsideratu. Horregatik, gatazken ondorioak neurtzerakoan eta gatazken analisia egiterako unean, alboratu egiten da emakume horiek bizitakoa. Ez zaio garrantzia ematen, ez baitauka zentralitatea.

Edonola, emakumeek gatazken bizipenak izan dituztela aitortzean, eta gatazka bakarraren zentralitatea deuseztatzean eta, aipatu moduan ardatz gehiago txertatzean (genero sistemarena esaterako), gatazka horrek iraun duen bitartean izandako aldagai guztiak kontuan hartu ahal izango dira. Ikerketa honi dagokion kasu zehatzean, Euskal Gatazkan 80ko eta 90ko hamarkadetan euren lagun eta senideak ETako kide izateagatik jasandako ondorioak, biolentzia eta aurrera eramandako praktika erresistenteak kontuan hartuko ditugu. Aitortuz andre horiek ere bete betean bizi izan dutela gatazka. Areago, andre izateagatik gatazkek aldagai berezituak izan dituela beraien esperientzian. Gatazkaz baino, gatazkez hitz egin genezake, beraz.

Gatazkaren ikuspegi zabalak hainbat konturen inguruko gogoeta egitea ahalbidetzen du. Batetik, gatazkaren ondorioak herritar guztientzako berdinak izan ez direla, eta hortaz, gatazka testuinguruetako parte hartze soziopolitikoak ere ez izatea berdinak. Emakumeek horrelako testuinguruan ondoriorik jasan ez dutela, eta parte hartu ez dutenaren ustetik urrun, Kate Milleten *Sexual Politics* (1969) liburua kontuan hartuta, ohartuko gara eguneroko praktikan politika dagoela, eta gatazkek iraunarazten direla; pertsonala ere politikoa badela, alegia. Ildo hortatik, horra, Irantzu Mendiak gatazken irakurketa feministaren inguruan egiten duen proposamena:

Feminismoak gatazka eta indarkeria kontzeptuen zabaltzea eta sakontzea proposatu izan du; alegia, horien birdefinizio bat, emakumeen egunerokotasunaren bizipenetan oinarrituta legokeena. Behetik gorako ikuspegia da hau, ukatzen duena politika eremu instituzionaletan eta boterearen goi mailetan soilik egiten denik; feminismoak horri “egunerokotasunaren politikaren” garrantzia kontrajartzen dio, errealitatea ulertzeko zein eraldatzeko. (Mendia, 2016: 115)

“Egunerokotasunaren politika” horri erreparatuta, ohartuko gara historikoki plaza publikoan kontatzeko eta lantzeko zilegi izan ez diren hainbat gertakari, diskriminazio eta biolentzia azaleratzen direla (Afonso, Beristain, 2013). Eta, denbora luzean estalitako bizipenak politizatzeke eta gatazkaren ondorio gisa lantzeko aukera ematen du horrek. Alegia, gatazken analisi androzentrikoek ez bezala, ikuspegi honek eskaintzen du aukera emakume horiek ere ondorioak pairatu dituzten (eta horiei aurre egin dieten) subjektu gisa identifikatzeko:

“Emakumeak biztanleria orokorra diren heinean biolentziaren biktima zuzenak dira. Areago, senide harremanak eta harreman afektiboak izateagatik talde armatuen biolentziaren jomuga ere bilakatzen dira. Beste askok beren lidergo propioagatik bizi dituzte ondorioak, eta kasu askotan komunitatearen beraren bitartez jasango dute biolentzia; beraien aukera afektiboengatik, esaterako, zigortuak izatera ere iritsiz”.
(Afonso,; Beristain, 2013: 21)

Antzeman daitekeen moduan plano bakarrean ez, gutxienez hirutan bizi dituzte emakumeek gatazkaren ondorioak. Nolabait beren gorputzak bilakatzen dira hiru mailatan guduaz: komunitate mailan; intimitatean, gatazkaren plano publikoan eta jendarte mailan. Euskal Herrian ere, ikusiko dugun moduan hiru ardatz horietan sumatzen da andreak jasandako indarkeria. Hortaz, gatazkez zeharkatuta daude andre horien gorputzak, horiek politizatzea eta aitortzea izango litzateke hurrengo urratsa. Horretarako, ezinbestekoa da biolentziaren kontzeptuaren inguruko gogoeta ere egitea.

3.1.2- Zer da biolentzia?

Gauza bera gertatzen da biolentziaren kontzeptualizazioarekin. Gatazken irakurketa Mendebaldetik eta ikuspegi heteropatriarkal batetik eginda, oso modu estatikoan ulertu ohi dira praktika biolentoak, eta hortaz, gatazkaren ondorioak jasan dituzten subjektuak ere ez dira anitzak izaten. Hala dio Euskaltzaindiaren Orotariko Hiztegiak: *Indarkeria: Norbait menderatzeko indar zakar eta basa*. Agerikoa da definizio horrek dakartzan ondorioak; biolentzia indar erakustaldi fisikoarekin lotu ohi da, gorputzetik gorputzera egindakoarekin eta berehalako ondorio ikusgarriekin. Ageriko zantzu fisikoekin eta, asko jota, nolabait nabarmentzen diren epe laburreko espresio psikologikoekin du lotura soilik definizio unibertsal horrek. Era berean, norbanakoen arteko gatazka soilik isladatzen du, eta ez du lantzen ondorio kolektiborik.

Edonola, biolentziaren kontzeptuaren inguruko eztabaida ere ez da laburra. Biolentzia zer den eta nondik eratorria den eztabaida teoriko luzea izan da, eta era

berean gizarte zientzien zentralitatea eduki duen gaia da. Begirada feministatik gaiari heltzeko, beraz, beharrezkoa da lehenik eta behin ikerketari ongien egokitzen zaion biolentziaren definizioa topatzea. Bourgeois-en (2004) ustez, biolentziaz hitz egitea da botere harreman eta harreman politiko asimetrikoez hitz egitea. Euskal gatazkan alde askok parte hartutako gatazka armatua izan denez, eta, beraz, biolentzia politikoa norabide askotarikoa izan denez –are gehiago ikerketa honetarako hautatu den denbora epean–, hori izango da erabiliko dudan definizioa. Beraz, biolentzia politikoa da estatuaren segurtasun indarrek herritarren edo herritarren sektore baten aurka erabilitako indarkeria; baita herritarren sektore edo erakunde batek ezarritako erakunde horien aurka erabiltzen duena ere. Kasu honetan, Espainiako eta Frantziako estatuak euskal gizartearen sektore baten aurka egindako errepresioa kontuan hartuko genuke (jarraipenak, torturak, salbuespenezko neurriak, indar parapolizialak...); baita ETAk erakundeetaako partaideekiko eta euskal, espainiar eta frantziako gizarteko sektore batzuen aurka erabilitakoa ere.

Definizio horrek, ordea, bi aldeetako ondorioak aitortu arren, mugatu egiten du biolentzia pairatu duten subjektuen eremua. Orain artekoa kontuan hartuta, soilik lehen aipatutako espazio publikoko protagonistak (gizonak) izango dute biolentzia jasan dutenaren aitortpena. Publikoak eta protagonistak ez diren gorputzek berriz, ez dute aitortpenik jasoko, nahiz eta jasan, jasan duten, ikusi dugun moduan gatazkek zeharkatu dituelako beraiek ere. Hala azaltzen du Judith Butlerrek:

“Biolentzia horiek ez dira soilik eremu estrukturalean gertatzen. Egunerokotasunean ere antzeman daiteke biolentzia hori. Kontua da egunerokotasun horretan biolentzia jasaten duten gorputzek “ez dutela axola”, eta hortaz, berdintzat hartzen ez denez, min egiteo erabateko zigorgabetasuna dago. (Butler, 2010).

Baina, nola antzeman egunerokoan ere jasaten diren biolentzia horiek? Nola aitortu emakumeek ere jasan dutela biolentzia politikoa, eta, areago, biolentzia horrek forma bereziak hartu dituela beraien kasuan andre izateagatik? Dagoeneko, ugari direla mundu mailan biolentziaren inguruan egindako berrikusketa feministak. Mahai gainean jarriko ditugu biolentzia aztertzeko; ohiko zantzuez gain, Ruta Pacifica de las Mujeres (2012) egitasmoak proposatzen dituen aldagaiak:

- Giza eskubideen urraketak
- Biolentzia psikologikoa
- Emakumeen aurkako biolentzia zehatza (biolentzia sexuala eta sexualizatua)
- Emakumeengan biolentzia erabili denean, erabili dituzten *modus operandis*-en azterketa.
- Estatuak eta justiziak kasu horiek salatzean emandako erantzunak
- Efektu eta ondorio indibidualak
- Emakume gisa jasandako ondorio zehatzak
- Familia ondorioak
- Horiei denei aurre egiteko estrategia propioak.

Horrek, Irantzu Mendia eta Gloria Guzmanen arabera, emakumeek soilik pairatzen dituzten ondorio zehatzak ekartzen ditu. Ondorioz, bi ikerlariak ezinbesteko jotzen dute ondorengo gaiak lantzea biolentziaren berrirakurketa feminista bat eta osatze kolektibo bat lantzen den unean (Guzman,; Mendia. 2016):

- Enplegu arloko bazterketa, eta bazterketa ekonomikoa
- Eskola diskriminazioa
- Identitate kulturala ukatu beharra
- Amaitu gabeko doluak
- Hainbat ertzetako biolentziaren ondorioak
- Familia desegituraketak
- Bizi baldintzen prekarietatea

Finean, agerikoa da emakume izatearen ondorioz, gatazkaren biolentzia politikoa pairatzaz gain, genero indarkeria ere bizi dutela espezifikoki andre horiek. Hainbat mailatan ageri da; biolentzia armatutik abitu eta emakumeen aurkako biolentzia sinbolikoenera arte. Aldagai horiek kontuan hartuta, biolentziaren inguruko begirada aberatsagoa jasotzen dugu, eta ondorioz, aukera dugu norberaren espezifitateak are sakonagoan aztertzeko. Era berean, kasu bakoitzean andre bakoitzak ondorio horiei aurre egiteko izan duen parte hartze soziopolitikoa eta aurrera

eramandako praktika erresistenteak modu zabalago batean aztertzeo aukera ematen digu, eta ondorioz, urteetan isildutako ahotsak biktima izatetik subjektu aktibo bilakatzeko aukera ematen digu, ertzetako gorputzak gatazken erdigunean kokatuz.

Kontuan hartu behar dugu ikerketan parte hartuko duten emakumeek indarkeria jasan dute soilik ETAko kide izandako norbaiten senide edo lagun izan direlako, edo hortaz akusatuak izan direlako. Errepresio horrek, beraz, zantzu politiko erabatekoa izateaz gain, emakume izateagatik giza eskubideak urratu dizkie (Mendia; Guzman, 2016). Nazioartean hitzartutako giza eskubideen urraketak dira zerrendatutakoak, baina gatazken analisi eta konponbideen ikuspegi androzentrikoaren ondorioz, ez dira gehienetan espresuki aintzat hartzen. Ezin aipatu gabe utzi, ordea, 2000. urtean Nazio Batuen Erakundeak hitzartutako 1325. ebazpena.

Emakumeak, bakea eta segurtasuna. Kontraesanak.

2000. Urtean Nazio Batuen Erakundeak 1325. Ebazpena kaleratu zuen: *United Nations Security Council Resolution on Women, peace and security*. Helburua izan zen emakumezkoek gatazka eremuetan eta gerra testuinguruetan bizitako egoerak eta jasandako biolentziak bereziki aztertzea. Ondorioz, ahalbidetzen du gatazkek modu anitzagoan lantzea eta ulertzea hainbat direla andrazko gorputz horiek zeharkatzen dituzten aferak. Era berean, errekonozitzen du emakumeek gatazka eremu horietan paper soziopolitiko bat jokatu dutela egunerokoan praktika erresistenteak abian jartzeko. Orduetik, hainbat izan dira gatazken konponbiderako urratsa egin duten lurraldeak, eta erakundearen arabera, 2013an sinatutako bake akordioen erdietan emakumeen egoera espresuki aztertzeo konpromisoa hartua izan da.

Espresuki emakumeen aurkako biolentzia aitortzeaz gain, garrantzitsua da hitzarmena, gatazkaren ondorioetako testuinguruetan emakumeei ere paper garrantzitsua ematen dielako: *“Ebazpenaren berritasuna da oraindik ere emakumeak talde zaurgarri gisa eta biktima gisa izendatzen baditu ere, errekonozitzen direla ahots eta agentzia propioa duten subjektu gisa* (Magallón, 2007:66). Hala ere, protagonismo hori sarri lotu ohi da emakumeek “bakerako” duten gaitasunarekin. Ebazpenak berak andreei ematen die bakea eraikitzeo egin beharra, berezko osagai balute bezala.

Horrek erreproduzitu egiten du lehen aipatutako genero sistemaren araberako rol eta estereotipo banaketa.

Hainbat ikerlarik salatu du gobernuz kanpoko erakundeek eta nazioarteko instituzioek gatazken osteko prozesuetan emakumeei egozten zaizkien rolek indartu egiten dituztela desberdinkeria horiek. Nazio Batuen Erakundearen Desarme, Desmobilizazio eta Bergizarteratze (DDB) eredian, esaterako, azpimarraten da emakumeek horrelako prozesuetan parte hartuta gizartearen estabilitatea iraunaraziko dela (Shepherd, 2010: 11). Beraz, alde batetik Nazio Batuen Erakundeak gatazka prozesuetan emakumeek jasandako biolentzia esplizituki azaltzea garrantzitsua izan arren, ezin ukatu genero sistemaren araberako estereotipoak iraunarazten direla gatazken ondorengo testuinguruetan ere:

“Ikuspegi post-estrukturalista batetik egoera aztertuta, aipatutako testuetan agertzen diren genero, sexu eta sexualitate errepresentazioek ez dituzte soilik gorputzaren errealitateak sortzen, baizik eta unitate domestikoak, harreman sexualak, zaintza harremanak eta bestelako egoera sozialak iraunarazten dituzte, arau heterosexualetan oinarritzen direnak”. (Shepherd, 2010: 12)

80ko eta 90ko hamarkadetan Euskal Herrian kokatutako ikerketa honetan ere, ikusiko dugun moduan iraunarazi dira erreprodukzio eta zaintza lan horiek, gatazkak iraun bitartean, eta ondoren. Horregatik, garrantzitsua da nazioarteko legedia kontuan hartzeaz gain ikuspegi feminista batetik horren inguruko gogoeta kritikoa ere egitea. Edonola, biolentzia politikoak genero aldagaia kontuan hartzea eta emakumeei agentziarak gaitasuna eskaintzea urrats bat da, eta ikerketa honetan bi faktore horiek garrantzia izango dute elkarrizketatuekin saioak osatzerako unean. Biolentzia *intimo* horiek politizatzea, eta egunerokoari aurre egiteko ekintzak praktika erresistente gisa irudikatzeak beste dimentsio bat ematen die gatazken ondorioen analisiari.

3.1.3- Lerro bakartasunaz kolokan

Gatazken eta biolentzien berrirakurketa feminista eginda, agerikoa da ezin dela gertatutakoaren ondorioen kontaketa lerro zuzen bakarrean oinarrituta egin. ETAk 2011ko urriaren 20an behin betiko su etena aldarrikatu zuenetik herri mugimenduak, instituzioek, eta alde bateko eta besteko ideologietako alderdi politikoek mahai gainean jarri dute errelato bat ala beste kontsentsuz onartzeko nahia. Baina, betiere, gatazkaren eta biolentziaren irakurketa androzentrikoa eginda, subjektu protagonista bilakatu dira “lehen lerro” horretan modu zuzenean gatazkan parte hartu duten horiek (gizonak). Lanketa horietan emakumeen presentziaren eskasiaz hausnarketa egiten du Irantzu Mendiak:

“Euskal emakumeon esperientzia “euskal gatazkan” —eta horren atzean bigarren plano batean geratu izan diren beste hainbat euskal gatazkatan (sozialak, ekonomikoak, kulturalak...)—, ez dago kolektiboki elaboratuta ezta kontatuta ere. Zentzu horretan, esku artean daukagun erronka “euskal gatazkaren” genero politikaren erabateko azterketa burutzea da, eta horrekin batera euskal patriarkatuaren salaketa jendarteratzea”. (Mendia, 2016:115)

Finean, euskal gatazkaren irakurketan eta analisisian, gainontzeko gatazka armatu askoren kasuan bezala, gerra terminoetan egindako irakurketa nagusitu da. Horrek, berez dakar *lehen lerro*, eta *bigarren lerro* edo *atzeguardia* bezalako kontzeptuak erabiltzea. Zuriñe Rodriguezek (2016) egindako bereizketaren moduan (full-timeko militante gizonak VS full-timeko emakume zaintzaileak), lerroen arteko bereizketan ere argia da. Batetik, genero sistemak erabat zeharkatutako bereizketa da, batean gizon militante hegemonikoak irudikatzen direlako, eta bestean, aldiz, emakume zaintzaile hegemonikoak.

Baina, areago, lerroen arteko bereizketak erabateko lotura du espazio publikoaren eta pribatuaren erabilerarekin. Aztergai ditugun emakumeen kasuan ez bezala, gizona izango balira atzeguardiaz arduratzen direnak, eta publikoki beren lanketa politikoa mahai gaineratuko balute, zeri deituko genioke lehen lerroa? Zein jarduerak hartuko luke garrantzia handiagoa? Ikusiko dugun moduan, gakoa ez dago lerroen arteko bereizketa egitean, genero sistemaren araberrako bereizketa egitean baizik. Aurrerago ikusiko dugun moduan elkarrizketatutako hainbat andrekin diote

atzeguardiako lana ia beti egin dutela emakumeek, baina gizonik egon bada lan hori egiten, argi adierazi duela politikoki zein lan egiten ari zen.

3.2- Agentziarako gaitasuna: Eguneroko praktika erresistenteak eta parte hartze soziopolitikoak

Gatazkaren eta biolentziaren berrikuspen sakonagoa egin ostean, ikusi dezakegu, ustez “bigarren lerroan” kokatutako emakume horiek ere modu zuzenean pairatu dituztela gatazkaren ondorioak, eta hortaz, ezinbestean ulertu behar dugu eurek ere egoerari aurre egiteko praktika erresistenteak abian jarri dituztela. Baina, gatazken inguruko iruditeria nahikoa zurruna da, eta genero sistemak erabat zeharkatzen du goitik behera. Gatazka politikoak, oro har, estrukturaren aldaketa/iraupena bultzarazteko borroka izaten dira. Horregatik, gutxitan erreparatzen zaie eguneroko aldaketei eta kalteei. Egitura horren zurruna izanda, ustea dago nekez egin daitezkeela aldaketak norbanakoaren mailan, eta horregatik makro mailako aldaketak dira etengabe bilatzen direnak. Baina, praktikaren teoriak uzten du horren inguruko hausnarketa egiteko arrakala. Egiturak ez dira horren zurrunik, eta norbanakoak badu eragiteko tartea; **agentzia**.

3.2.1- Agentzia eta praktika erresistenteak

Beharrezkoa da aitortzea norbanakoak baduela eragiteko gaitasuna, eta beraz, subjektu pasibo izatetik, agentzia duen (hau da egitura zurrun horietan eragiteko gaitasuna duen) subjektuak ere badirela (Giddens, 1987). Soilik modu horretan aitortuko dugu aztergai ditugun emakumeek biktima izaeratik harago parte hartzaile politiko izaera ere hartu dutela. Gizarte zientzien eztabaida amaiezina izan da praktika sozialen eta dominazio egituren arteko harremanaren azterketa. Batzuek egituren zurruntasunari lehentasuna eman eta erabateko aldaketak proposatzen dituzte. Besteek, sistemen barruan norbanakoak kokatzeko dituen aukeretan jartzen dute arreta. Auzi epistemologiko hori gainditu asmoz Pierre Bourdieu soziologoak proposatzen du praktikaren teoria (1972). Finean, adieraztera ematen duena da subjektuak baldintzatuta daudela bere *habitus*agatik (beren inguruagatik), eta metatuta

duzen *kapitalagatik* (ekonomikoa, soziala, sinbolikoa). Baina, Ekintzaren Teoriaren bitartez, subjektuari aitortzen dio agentzia, alegia, eragiteko gatasuna, eta ondorioz, ekintzen bitartez errealitate hori aldatzeko aukera (Bourdieu, 2008).

Ekintzaren eta Praktikaren teoritik abiatuta, ugari dira teoria feministak eginako ekarpenak. Horietan aipagarriak dira Dolores Julianok, Sherry Ortnerrek eta Mari Luz Estebanek, besteak beste agentziaren eta praktikaren inguruan egindako gogoetak. Julianoren arabera (2009), nahikoa da muturreko egoeretan dauden andreek egoera iraultzeko nahia izatea eta egoera orekatzeko mekanismoak martxan jartzea agentzia daukatela aitortzeko. Alegia, agentzia egoera jakin bati aurre egiteko nahitara egindako edo intenzionatu gabeko ekintzak egiteko ahalmena litzateke. Horrela, biktima izaeraz harago beharrezkoa da ekintzarako gaitasuna aitortzea:

“Tentsioa dago emakume horiek biktima gisa ulertu edo agente gisa ulertzearen artean. Kontuan hartu behar dugu emakume horiek giza erresistentzia egin dutela, muturreko egoeretan ere. Agente gisa kontsideratu behar ditugu, gutxienez egoera orekatzeko mekanismoak abian jarri dituztelako. Biktima gisa hautematea geure arazoa da. Ikuspegi teoriko eta praktikoko baten mugak dira, ez besterik”. (Juliano, 2011:53).

Harago doa Mari Luz Esteban (2011) Julianok parte hartzen duen artikulua bilduma berean egindako ekarpenean, izan ere, *gorputz agenteetaz* dihardu. Gorputza ulertzeko eredu horrekin bi arlotan jartzen du arreta: arlo materialean (generoaren edota etniaren moduko kontrol eta ezberdinkeria disposizioetan), eta agetzian (salaketaren praktika eta aldarrikapenerako espazioa). Modu horretan, teorizatzen jarrai daiteke *emakume* subjektuaren inguruan eta subjektu politiko feministaren inguruan (Esteban, 2011). Julianok eta Estebanek, biek azpimarratzen dute eguneroko praktika horiek duten garrantzia. Hori oinarri hartuta, ekintzarako gaitasuna duten subjektu gisa irudika ditzakegu ikerketa honetan elkarrizketatuak izango diren emakumeak.

Adostasuna badago praktika horiek eragiteko gaitasunarekin bat egiten dutela. Baina, zenbateraino dira ekintza horiek nahitara egindakoak? Beti har ditzakegu kontuan praktika erresistente gisa? Sherry Ortnerren arabera (2006), agentziak

erreferentzia egiten dio norbanakoek elkarreragiteko duten gaitasuari; baina Ornerrek bereizi egiten du egitea eta ekintza. Ekintzak beraz, eraldatzeko gaitasuna dakar berarekin. Boterea erabiltzekoa, edo proiektu propioak eraikitzekoa. Eta hain justu, boterearen negoziazio horretan, boterea hartze horretan jokoan dauden talde subalternoek eramaten dituzte praktika erresistenteak aurrera. Sektorerik horretan kokatuko ditugu geure ikerketako subjektu diren emakumeak. Izan ere gatazkak iraun bitartean azpiratutako taldea izan dira, ahaztuak, eta agentziarako gaitasuna aitortzeaz gain, boterea badutela aitortuko dugu, bizitzea tokatu zaien egoera eraldatzeko asmoa (kontzientea batzuetan, inkontzientea besteetan) dutelako.

Aipatutakoa ongi laburbiltzen du Maria Ruizek emakume espetxeratuen inguruan egindako doktorego tesian:

Banakoek testuinguruan elkarri eragiteko duten gaitasuna adierazten du agentziak, oinarri hartuta nahitako eginbideen bitartez –horiek kontzienteagoak ala inkontzienteagoak izan– ahalmena dutela boterea negoziatzeko eta haien egitasmoak –indibidualak edo kolektiboak– lortzea bideratzeko, nahiz eta, betiere, posibilitate-baldintza zehatzen barnean. Horrenbestez, ezegonkorrak bezain aldakorrek diren gure gizarte-harremanetan, giltzarria elkarrekintza da; hots, negoziazioa. (Ruiz, Torrado, 2016: 164)

Ruiz Torradoren agentziaren definizioa erabiliko dugu ikerketa honetan, eta praktika erresistenteez arituko gara, ulertzen delako emakume horiek abian jarritako ekintzak subordiazio egoera bat eraldatzeko asmoz jarri direla abian. Agentziarako gaitasuna aitortu ez bagenie, bi aldiz biktima bilakatuko genituzke, ondorioztatuko genukeelako ez dutela inolako praktika erresistenterik aurrera eraman (Martin, 2009). Agentziaren kontzeptuak, aldiz, aukera ematen du eguneroko praktika txiki horiek ere praktika politiko gisa identifikatzeko, eta hortaz, emakume hauek eragile gisa definitzeko. Gainera, aurrerago ikusiko dugun modan, aukera dugu metodologiaren inguruko hausnarketa egiteko, izan ere, emakume horien kontakizunei balio politikoa emanda ahaldundute prozesu bat gerta baitaiteke. Hala jasotzen du Mendebaldeko Saharako emakumeen inguruan egindako ikerketa batek:

Gertatutakoa are hobeto kokatzeko, emakume horiek jasandako biolentzia testuinguru sozial eta politiko zabalago batean ezartzea eta modu kolektiboan jasandako mina aitortzea ariketa egokia izan da hainbat kasutan. Elkar zaintza areagotzen du. (Guzman; Mendia, 2016: 97)

Eguneroko praktika erresistenteetan arreta ipinita emakume horien agentziarako gaitasunari erreparatzeaz gain, ohartuko gara orain arte ikusezina izan den parte hartze soziopolitiko bat ere izan dutela andre horiek Euskal Gatazkan. Horrela eguneroko esperientzia pertsonalen eta egitura sozialen gurutzaleku bilakatzen da emakume hauen esperientzia:

Emakume horiek maila pertsonalean izandako bizipenak eremu pribatutik publikora eta politikora ekartzean, ohartzen dira dikotomia hori gainditzea posible dela, eta zeharkatzen dituzten botere harremanez jabetzen dira. (Martinez, 2015: 95).

Erreparatu beharko genieke, hortaz, parte hartze soziopolitikoaren inguruan teoria feministatik eta herri mugimendu berrien teoriatik egindako ekarpeneei.

3.2.2- Parte hartze soziopolitikoak.

Arestian aipatu moduan, gatazka egoeretan are gehiago indartzen da genero sistemaren bitartez egindako espazio eta eraginguneen banaketa. Espazio publikoan protagonista izango dira nagusiki gizonezkoak, eta hori izango da hegemonikoki esparru politiko gisa ulertuko dena, eta nagusituko den ahotsa. Horren adibide dira ETAREN su etenaren ostean (2011) egindako foro eta bilguneetan egon den gizonezkoen presentzia handia. Horrek ez du esan nahi, ordea, emakumeek parte hartze soziopolitikorik izan ez dutenik. Kontua da politikaren ulerkera hegemonikoa aintzat hartuta, emakumeen presentzia ez dela hain handia izan espazio publiko horretan. Ulerkera ondorengo arrazoiari dagokio:

Politika eremu publikora mugatzea, eta, hortaz, instituzioei loturiko jardunari aitortzea politikaren zentzu zentrala. Eremu horri politika hegemoniko deituko diogu aurrerantzean. Espazio maskulinizatua da aipatutakoa, Pili Alvarezek ongi azaltzen duen moduan: *“Politika hegemonikoa esfera publikoaren parte da. Historikoki gizonentzako espazioa izan da, eta hortaz, maskulinizatua dago. Egiteko modu maskulinoak gailendu ohi dira eta lidergoa sustatzen da”* (Alvarez, 2012: 28). Mila Amurrioren (2012) arabera, ordea, politika hegemonikorako jardun maskulinoak, batetik, mugatu egiten du emakumeen parte hartzea. Pili Alvarezen arabera (2012), emakumeek parte hartzearen ikusgarritasun falta bi arrazoi nagusitan oinarritzen da. Batetik, ustezko militantzia edo parte hartze politiko neutroa eredu maskulinoa dela oroitarazten du; eta ondorioz, politikagintza eredu hori hasieratik da baztertzaila emakumeentzako. Bestetik, edonolako politikagintza izanda ere (instituzionala, herri mugimenduetakoa...), andrazkoen parte hartzea askoz ere mugatuagoa dago; emakumeen militantzia sustatzea zaila izan ohi da; izan ere, politika eremu publikoari oso lotua dago, produkzioari baina ez erreprodukzioari. Horregatik, aztergai ditugun emakumeen kasuan gutxitan aitortzen zaie parte hartze soziopolitiko bat, nahiz eta aurrerago ikusiko dugun moduan ia elkarrizketatu guztiek izan dute halako esperientziarik.

Horrenbestez, politikaren adiera zurruna, hegemonikoa eta ustez neutroa (hau da, maskulinizatua) erabili izan denez EuskalGatazkaren aktore politikoak zehazteko, soilik subjektu zehatz batzuek politika egin dutela ulertzen da (hainbat erakundetako militanteak, herri mugimenduko kideak, alderdi politikoetako kideak, politikariak, enpresariak, polizia...), eta albo batera uzten da bestelako erakundeek egindako lana. Edonola ere, kontuan hartu behar dugu elkarrizketatuak izango diren emakume gehienek parte hartu dutela eta saretu direla hainbat erakundetan, batez ere, euren egoera berdinean dauden emakumeekin (Etxerat, ETArekin biktimen elkarteak...). Hortaz, ezin ukatuzkoa da andre hauen parte hartze politikoak, bai maila publikoan (aipatutako elkarteak batik bat asistentzialak izan arren), eta baita egunerokoan aurrera eraman beharreko praktika erresistenteetan. Horiek identifikatzea izango da ikerketaren muin nagusietako bat. Beharrezkoa hortaz ohiko parte hartze politiko moldeez harago gogoeta egitea (Amurrio, eta Larrinaga, 2013).

Esparru jakin batzuetan, eta hain justu ikerketa honetan ikergai diren gertatzen den emakumeen kontzentrazioak erakusten du generoei sozialki esleituriko jarduera eta rolen arabera espezializaturik daudela partaidetzarako motibazioak eta trebetasunak, eta beraz, genero-identitateei loturik agertzen direla gaitasun horiek. Beste uste bat ere deuseztatu behar da: parte-hartzeak berez dakarrela jokabide ikusgarria esparru publikoan. Zaintza, osasuna eta besteen beharren asetze lanei loturik dauden parte-hartzeak sarritan partaidetza esparru ez formalekin uztartu izan dira, eta ikusezin bilakatu (Amurrio eta, Larrinaga, 2012). Horrela, partaidetza eredu ugari estalita geratu dira. Genero ikuspegitik ordea, exijitzen da parte hartzearen inguruko definizio berri bat osatzeko, emakumeen bizipenetatik. Hain zuzen ere, feminismo politikoaren ekarpenetako bat da emakumeen partaidetzaren adierazpenak eta formak ikusgarri egitea, arlo publikoko partaidetza gizonezkoen esperientzien eta arauen arabera definitzen duten kontzeptu androzentrikoak auzitan jarritz.

Ondorioz, politikaren adiera hegemonikotik aldendu, eta espazio pribatuari esleitu zaizkion egin behar erreproduktibo baina, aldi berean, politikoei eskainiko diegu arreta ikerketa honetan. Ikerketan parte hartuko duten emakumeek egunero abian jarri dituzte hainbat praktika erresistente (politiko, Ortneri jarraituz) egoera iraultzeko asmoz. Bestalde, hainbat elkarteetan bildutako andreak dira; nahiz eta Amurriok eta Larrinagak (2012) adierazi duten moduan elkarte horiek ere batez ere genero sistemaren arabera egindako lan banaketari oso lotuta egon (presoen senideen elkarteak, biktimen elkarteak, babes sareak...). Edonola ere, egin behar horiei guztiei politikoaren kategoria eskainita, emakume hauek egindako, eta orain arte ikusezin izandako egin beharrak mahai gainean jarriko ditugu. Horrela nabarmenduko dira egindako lan horiek ere ekintza politikoak direla, eta, ondorioz, ikusiko dugu nola ikergai ditugun emakume horien bizipenetan ageri den beraiek ere parte hartzea izan dutela Euskal Gatazkan.

3.3- Posible al da memoria kolektibo feminista? Begirada bat nazioarteko proposamenei: Egiaren batzordeak eta Trantsiziozko zuzenbide feminista

Ikerketaren helburuetako bat da emakume horien kontaktak jaso ostean, memoria kolektibo are zabalagoa izan dadin proposatzea, eta aurrera eramaten ari diren bake prozesuari eta gatazkaren konponbideari ertzetako ahotsak kontuan hartzeko ekarpena egitea. Ez da, ordea, mundu mailak horrelako ariketa bat proposatzen den lehen aldia. Are gehiago, estatu espainiarrean ere, egin dira Gerra Zibilean emakumeek jasandako egoeraren inguruko hainbat ikerketa. Unean une, eta lekuan leku, ordea, formula jakin bat gailendu da, testuingurura ongi egokitzen delako. Euskal Herrian horrelakorik abian ez da jarri oraindik, nahiz eta Foro Sozialak iazko udazkenean abiatu zue “Nik Sinesten dizut” kanpaina. Bertan, euskal gatazkak iraun bitartean indarkeria matxista jasan zuten hainbat emakumeren esperientziak bildu zituzten eta publikoki salatu.

Hala ere, aitortu behar da borroka armatua, eta ETaren behin betiko desagertzea berriki gertatutako fenomenoak direla, eta ondorioz, orain arte desarmearen, desmobilizazioaren eta bergizartearen inguruan egindako hitzaldietan gutxitan aipatu dela genero ikuspegia txertatzearen kontua. Ondorioz, ez dira nazioarteko irizpideak ez dira jarraitu, eta beharrezkoa da afera horretan ere, ETaren desagertzearen prozesuan gertatu moduan, *euskal eredu* bat finkatzea. Halakorik ezean, ikerketa honetarako kontutan hartu ditugu beste lurralde batzuetan gatazkaren ondorioei heltzerako unean genero ikuspegia txertatzeko abian jarri dituzten hainbat prozesu. Horien adibide dira egiaren batzordeak jarri dituzte abian, eta trantsiziozko zuzenbide feministaren adibideak.

Egiaren batzordeak:

Hainbat urtetan gobernuak edo bestelako eragileren batek egindako lege urraketak aztertzeko eta ahots gehien jaso ahal izateko ardura duten egiturak dira. Batzorde horien helburua izaten da memoria ahalik eta zabalena jaso eta berradiskidetzarako urratsak ematea. Hainbat kasutan diktaduren ostean osatu dira horrelako egiturak (Txilen, esaterako); bestetan gizarte konkretu bateko talde bat baztertua eta zapaldua izan denean horren inguruko gogoeta bultzatzeko (Hego Afrikaren kasua); beste batzuetan, aldiz, gatazka armatu baten ondorioak arintzeko sortu dira (Kolonbia). Ikuspegi feminista batetik, ekarpena egiten dute horrelako

batzordeek, izan ere, hainbat ahots eta biolentzia forma ugari jasotzeko enargua dute. Ordea, arriskua dago espreski begirada feminista batetik ez aztertuta, sexu-genero ardatza duen biolentzia mota eta horien ondorioak ez jasotzeko (Martin, 2013). Kolonbian esaterako handia da ikuspegi horretatik egindako ekarpena. Mugimendu feminista, esaterako, bete betean dabil gatazkaren konponbideen urratsak emateko mahaian, eta proposamena egon zen bake negoziazioak eteteko feminizidio kasu bat egotekotan (Pagola, 2016). Hori, inondik ere, urrats handia da, eta kontuan hartzeko bertan ere horrelako bide bat hasi nahiez gero. Beste adibide bat da El Salvadorren 10 urteko gerra zibilaren ostean horrelako batzordeak ezarri izana espreski emakumeen egoera azpimarratuz (Ibarguren, 2017).

Azken horiei, helburuari baino prozesuari erreparatzeko duten ahalmenagatik, *egiaren bideak* ere deitu izan zaie. Gaur egun, eta hurbilen dugun antzekotasuna kontuan hartuta Foro Sozialak Hego Euskal Herrian abian jarritako lanketa feminista azpimarratu genezake. Edonola, ez ditu kontuan hartzen ikerketa honetarako subjektu ditugun emakumeak; ez baitute, lehen aipatu moduan “lehen mailako” biolentzia jasan, termino estandarretan.

Trantsiziozko zuzenbide feminista:

Egiaren batzordetik harago, proposamen honek aukera ematen du gertatutakoa begirada feminista batetik aztertzeko. Eta emakumeak biktima huts identifikatuzetik harago, subjektu politiko bilakatzen ditu, eurek jasandako bioletziari eta horri aurre egiteko moduari izendapena ematen baitio. Hori da, esaterako Irantzu Mendiaren (2016) proposamena.

Oinarrian zuzenbide trantsizionalaren ideiak ditu. Hau da gatazka egoeretan izandako giza eskubideen urraketak aztertu eta epaitzeaz arduratuko da, edonolako alderdikeria eta gatazkan inplikaturako egituretatik (izan gobernua, izan beste ezein aktore) urrunduta. Helburua du, gainera, bakea eta bizikidetzarako oinarri sendoak ipintzea. Horrek, ordea, badu arriskua, ohiko zuzenbide ustez neutro, baina maskulinizatu eta heteropatriarkala erreproduzitzeko. Mendiaren proposamenean, beraz, trantsiziozko tribunal horrek eta legedi horrek, oinarrian izan beharko du

begirada feminista, eta ezinbestean aitortu behar ditu gatazkaren hamaika ertzak eta biolentziaren hainbat forma. Gatazkak emakume horiengan izandako eragina eta batik bat beste gatazkekin elkar gurutzatzean eragindako mina mahai gainean jarri eta epaituko da modu horretan.

4.- TESTUINGURUA

4.1- Euskal gatazka 80ko eta 90ko hamarkadetan

Arestian zehaztu moduan, beraz, ezinezkoak dira gatazka egoerak modu lineal batean ulertzea, areago, euskal gatazka bera ere ezin uler daiteke bi lerro kontrajarriren historia moduan. Hain justu, 80ko eta 90ko hamarkadetako testuinguruak agerian uzten du trantsizio deiturikoaren garai korapilatsu horietan ugari izan zirela auzian parte hartzea izan zuten indar politikoak (jakina, politika bere adiera zabalenean ulertuta: herri mugimendua, alderdi politikoak, talde polizialak eta parapolizialak...). Espainiako Estatuan “demokraziaren berrezartzeak” eta mugimendu kontrakulturalak eragina izan zuen orohar lurralde osoan. Ezin alboratu daiteke, beraz, testuinguru horrek Euskal Herrian izandako eragina. Edonola, euskal gatazkan murgilduta edo zipriztinduta egon ziren eragileak eta une hartan Hego zein Ipar Euskal Herrian zegoen egoera lerrotara ekartzea da asmoa. Izan ere, bi hamarkada horietako parte hartze soziopolikoaren konplexutasuna gatazkaren norbaide anitzen isla da: gaur egunera iritsitako errealtoan bi dira aktore nagusiak: ETA batetik eta estatuak (Espainiakoa batik bat, baina baita Frantziakoa ere) bestetik. Testuinguruaren kokapen labur honek hautsi nahi du baieztapen horrekin: lerro bat eta bestea ere anitzak izan dira, eta gatazkaren egitura konplexuagoa. Garrantzitsua da hori jasotzea, izan ere, ikerketan parte hartuko duten andreen bizipenetan ere igarriko baita gatazkaren ertz ugariaren kontaketa. Horretarako, batetik labur azalduko dugu garaian Ezker Abertzalearen barne konplexutasuna, eta Espainiako zein Frantziako estaturen jokamoldea gatazkarekiko. Bestalde, Ezker Abertzaleak bi hamarkadotan ikuspegi feminista txertatzearen ahaleginen bilketa labur bat egingo dugu.

4.1.1- Beruna baino gehiago.

Ondorengo datuak ematen du uneko egoera politikoaren konplexutasunaren berri. 1983rako, 6 ziren Euskal Herrian “iraultzaile” izendatutako talde armatuak: ETA, ETApn VII, ETApn VIII pro-KAS, CCAA (Komando Autonomoak), Iparretarrak eta Iraultza (Ernai, 2016). Ordurako, ordea, ETApn-ko *zazpikiek* erabakita zuten borroka

armatua utziko zutela, eta EE Euskadiko Ezkerrarekin harreman zuzenean, eta Espainiako Gobernuarekin negoziatuta lortu zuten 22 preso askatzea eta 70 errefuxiatu Hego Euskal Herrira ekarrazteko baimena. Euskadiko Ezkerrak, beraz, zenbait urte lehenago ez zuen protagonismoa irabazi zuen ondoko urteetan. Euskadiko Ezkerraren inplikazioak kasu horretan, Iraultzak EMKrekin zuen lotura estuak, KAS koordinadoraren, eta oro har, Ezker Abertzaleko hainbat egituren sareak, eta herri mugimenduaren norabideak argi adierazten du urteotako Euskal Herriko gatazka ez dela soilik armatutako erakundeez (talde iraultzaileak edo talde polizial zein parapolizialak) osatuta egon. Aitzitik, eragile politiko ugari izan dira nahaspilatuta egon direnak, eta beraz, gatazkako subjektuak ere anitzak dira.

Estatuei eta politika instituzionalari dagokionez ere, segurtasun indarrez harago, inplikazioa nabarmena da euskal gatazkan. 1982an irabazi zituen Felipe Gonzalez buru zuen PSOEk hauteskundeak. 1983an bertan eman zuen Jose Barrionuevo barne ministroak ZEN planaren (Zona Especial Norte) berri. Espainiaren demokraziaren berrezartzean, lehenengoz estrategia konkretu bat bultzatu zuen Espainiako Gobernuak. Horrek, besteak beste ekarri zuen estatuko indar armatuen presentziaren gorakada euskal lurraldean. Baita atxiloteten, torturen eta bahiketa kasuen areagotzea ere.

Garaikideak dira, gainera, Batallon Vasco Españolen ekintza parapolizialak (1982 aldarrikatu zituzten hainbat atentatu), eta 1983an bertan hasi zen GAL taldea Ipar Euskal Herrian ekintzak egiten. Espainiako Gobernuaren barne ministeritza taldearen jardueraren jakinaren gainean zegoela aski ezaguna da. Taldearen helburu nagusia izan zen Ipar Euskal Herrian kokatutako euskal errefuxiatu saldoaren artean ikara zabaltzea, Frantziar estatua Espainiaren alde posizionaraztea, eta ETA ahultzea.

Izan ere, ordura arte, euskal errefuxiatuentzako gune aski lasaia zen Ipar Euskal Herria bertan bizitzeko. Ehundaka ziren bertan bertan bizi zirenak; ezagunak dira Baiona, Ziburu, Donibane Lohitzune eta Miarritze, harrera hori egiteagatik, besteak beste. Gainera, garai horietan bazen Ipar Euskal Herrian beste talde armatu bat: Iparretarrak, eta horretaz gain babes sare zabal bat sortu zen errefuxiatuei beharrezko harrera eta arreta eskaintzeko. Ipar Euskal Herriko jendartea ere, beraz, inplikaturik

zegoen, orobat, euskal gatazkarekin. Ordea, GALEk 3 urtetan 27 lagun hil izanak, eta egindako beste hainbat jarraipenek eta erasoek itogarri bihurtu zuten bertako giroa. Era berean, Frantziako estatuak ulertu zuen Espainiako gobernuaren mezua, eta 1987ko urrian inoiz egindako sarekada handiena egin zuen euskal errefuxiatuen aurka. Guztira 200 kide atxilotu zituzten. Horietako batzuk espainiaratu eta beste batzuk deportatzeko.

Ipar Euskal Herrian ez ezik, Hegoaldean ere giro bizia zegoen. Ezker Abertzalearen gazte antolakunde zen Jarraik erabaki zuen beste zenbait herri mugimenduk aldarrikatzen zuten aurka *intsumisoen* kanpainarekin aurrera ez egitea. Horrek, ordea, zatiketa ekarri zuen ezker sektorean, baita 1986ko irailean Yoyes ETako buruzagi ohiaren hilketak ere. Era berean, 80ko hamarkadako lehen urtetako borroka nagusietakoa izan zen Lemoizko zentral nuklearraren itxiera, eta ETAk ez ezik, hainbat eragile ekologistek ere izan zuten bere protagonismoa. Areago estrategien kontrakotasunagatik izan zituzten hika-mikak euren artean. Zenbait txostenek, gainera, urte hori bera (1986) jartzen dute dispersioaren hasiea moduan: Herrera de la Manchako espetxean zeuden 13 euskal preso urrundu egin zituzten (Ernai, 2016).

Ondoko urtetako giroa ere parekoa izan zen. Tinkoa eta tentsoa, ekintza-errepresioa-ekintza logikaren barnean kokatuta. Herri mugimendua eta politika instituzionala, biak zeuden bor-borka. Testuinguru horretan herri mugimendua ez ezik, indar politiko instituzionalak ere hasi ziren negoziaketetarako prestatzen. Ezin ahaztu baititzakegu Euskal Herriko instituzioek eta alderdiek gatazkaren bilakaeran izandako parte hartzea ere. Horren adibide, 1988an Ajuria Eneako Paktua sinatu zuten garaian legebiltzarrean zeuden indar politiko guztiek (PNV, PSOE, EA, CDS, EE eta IUk) HBk izan ezik, ETaren biolentziaren aurka. Nafarroako Gobernuan ere gauza bera egin zuten, nahiz eta orduko hartan EA ere aurka azaldu zen. Hala iraun zuen giroak, arik eta 1989an Argeleko negoziazioa heldu zen arte.

Argeleko negoziazioen porrotak eta 1992an ETaren zuzendaritzaren aurka Bidarten egindako operazio handiak, kolokan jarriko ditu ordura arte Euskal Nazio Askapen Mugimenduak (era zabalenean) aurrera eramandako strategiaren zimenduak. Egoera iraultzeko Txinaurriak barne eztabaida jarri zuen abian Ezker

Abertzaleak. Euskal Nazioaren egituratzea eta borroka armatua, bi ildo horiek modu paraleloan lantzea berretsiko dute militanteek, eta ordutik aurrera, ETAk egitura militar are sendoagoa erakutsiko du. Euskal gizartearen kopuru handi bat bere jardueraren aurka kokatuz. Izan ere, orduan hasiko da ETA kargu politikoak dituzten herritarak ere hiltzen.

Kalean, berriz, errepresioa eta erantzuna eskema zen nagusi. Kale Borroka delakoak geroz eta presentzia handiagoa hartu zuen, eta poliziaren (Ertzaintza, Guardia Zibila eta Polizia Nazionalea batik bat) erantzuna are bortitzagoa izan zen. Areago *Grupos Y* deituriko talde moduan definitu zituzten indar polizialek, hala, gazte antoolatu horiek ETAREN beste komando bat baliran atxilotu, inkomunikatu eta epaitu ahal izateko. Horren erakusle, 879 lagunentzako tortura kasuak jaso dituzte berriki EAEn izandako tortura kasuen inguruan Eusko Jaurlaritzak argitaratutako ikerketan (Etxeberria, et al. 2017).

ETAk, ordea, jarraitzen zuen ekintza bortitzekin. Ortega Lara espetxe zaina bahituta eduki zuten 1997ko ekainera arte, eta hilabete geroago baitu zuten Miguel Angel Blanco. Euskal presoak 48 ordutan Euskal Herritarzearen ordainetan askatuko zutela esana zuen ETAk. Ermuako PPko zinegotzia zen Blanco, eta euskal gizartea bahiketaren aurka mobilizatu zen inoiz baino kementsuago. Espainiako estatuak erantzun ez, eta hil egin zuen ETAk zinegotzia. Inoiz baino aurkakotasun handiena jaso zuen ETAk orduan. Eta, judizialki, Ezker Abertzalearen beste erakundeen aurkako jarrera areagotu zen, baita herri mugimenduaren kriminalizazio ere. Horren adibide, 18/98 makrosumarioa. Besteak beste, Egin egunkaria eta irratia itxiarazi zituzten. Edonola, kaleko giroa erabat tentsiozkoa bazen ere, Hego Euskal Herriko indar politiko, herri eragile eta sindikatu zenbaitek egin zuten apustua 1997-1998 urte artean Lizarra-Garaziko akordioa adosteko. Helburua zen euskal gatazkaren erro politikoak gainditzeko akordioa bilatzea. Apurka egindako ibilbidean, mugarri da esaterako 1999an egindako manifestazio handienetarikoa. Bilbon deitu zuten Lizarra-Garazi akordioa sinatzaileek eta jende andana bildu zen bertan. Gainera, urte bereko otsailean Euskal Udalerrien asanblada aurkeztu zen 600 zinegotziz osatuta (Ernai, 2016).

Laburbilduz, beraz, ezinezkoa da euskal gatazkaren irakurketa linean eta aldebakarra egitea. Aitzitik, lerrotoan bilduta ikusi ahal izan dugun moduan, ugari dira aztergai ditugun bi hamarkadetan inplikaturik egondako eragileak, alderdiak eta norbanakoak. Elkargurutzaketa eta ertz guzti horiek, geure ikerketako subjektu diren emakumeen kontaketa ere islatuta ikusiko ditugu, eta testuinguruaren kokapen labur hau egiteak ahalbidetuko du gatazkaren subjektuen erradiografia zabalago bat egiten.

4.1.2- Arrakalak berunean.

Hego Euskal Herria borroka askoren pizgarri izan zen urteotan, baina mugimendu feministak eta Ezker Abertaleak izandako harremana, Ipar Euskal Herriko emakume abertzaleei dagokie hein handi batean. Ipar Euskal Herriko emakume abertzaleak izan ziren emakumeen eskubideen aldeko borroka lehen lerroan jarri zuten aitzindariak. 60ko hamarkada amaieran hasi zuten lanketa, eta 1974ean sortu zen Emazteak Iraultzan taldea; jendarte eta nazio askapenari emakumeen askapenaren aldarria gehitu zion kolektiboa. Hego Euskal Herrian, berriz, aipagarria da 1978an Koordinadora Abertzale Sozialista KASeko Emakumeak antolakundea sortu zela (KAS Emakumeak). Horrela, 1975ean sortu zen koordinadoraren helburu laukoitzari (Euskadi independentea sozialista, batua eta euskalduna), *ez patriarkala* gehitu zioten (Dañobeitia, 2016). 1984an, Ipar Euskal Herrian Aizan sortu zen; emakume sozialista eta independentistaz osatutako erakundea. Ez zegoen KASen barruan kokatuta baina lotura politiko handia zuten, eta, horregatik koordinadorak eta talde feministak aldarrikapen txosten bateratua argitaratu zuten 1984ean. 1987rako, berriz, KAS barnean erakunde feminista autonomoa sortzeko prozesua jarri zen martxan; Egizanen sorrera izango zena (Aranguren; Epelde; eta Retolaza, 2015). Talde honen arabera sozialismoa zen emakumeen zapalkuntzaz askatzeko alternatiba. Egizanek 2000ko hamarkadan utzi zion jarduteari. Eta erronka berdinarekin, baina ikuspegi ezberdin batetik, euskal emakumeen zapalkuntza hirukoitzaren arazoari erantzuna ematen dion Bilgune Feminista sortu zen 2002ko urtean.

4.2- Gaur egun: memoria ariketetarako abagune proposa

Lehenago ere azaldu moduan, ezin une egokiagoa da ondorengo gaiari heltzeko. Areago, bada dagoeneko Euskal Herriko gatazkaren konponbidearen prozesuan ikuspegi feministaren gabeziak mintzatzen denik. Bi dira, nire ustez, ikerketa hau uneotan egitea ahalbidetzen duten faktoreak: borroka armatuaren fasea amaitu izana eta gatazkaren ondorioei bereziki erreparatzea bata, eta bestea, Euskal Herriko mugimendu feminista azken urteetan indartu izana, eta nazioarteko zein bertako gatazka armatuen irakurketa feminista planteatzen ari direla, gatazken subjektuak aniztuz. Oraingoz, ordea, ez da lortu irakurketa hori gatazka zeharkatutako eremu guztietara hedatzea, eta soilik *lehen* lerro horretan jarri da arreta. Ikerketa hau testuinguruan jartzeko, beraz, beharrezkoa da borroka armatuaren amaieraren laburpen bat egitea, baita egun gatazkaren ondorioen konponbiderako lanean ari diren eragileen berri ematea, baita ikuspegi feministik halako prozesuetan izandako eragina azpimarratzea ere. Esate baterako, Kolonbian.

4.2.1- Gatazkaren konponbiderako bidean.

Luze eztabaida daiteke Euskal Herrian noiz jarri ziren gatazkaren konponbiderako lehen zimenduak. Ikerketa honetan, ordea, azken urteei erreparatu eta ETA erakundeak egindako alde bakarreko bideko zenbait urratsi erreparatuko diegu, batik bat, horrek gainontzeko eragileetan izandako bilakaera aztertzeko asmoz. Hala ba, 2011ko urriaren 17an, Aieteko Bake Konferentzian Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat eragile elkartu ziren ETAREN amaieri eta gatazkaren ondorioei heltzeko bideorri bat zehazteko. Hona konferentzian parte hartu zuten eragileen ordezkariak zabala: EAJ, PSE-EE, PSN, PSF, Alternatiba, Abertzaleen Batasuna, EA, Aralar, Ezker Abertzalea, Ezker Batua Berdeak, Geroa Bai, Izquierda-Ezkerra, UMP, Mouvement Démocrate, ELA, LAB, ELK, UGT-Euskadi, Confédération française démocratique du travail, Confebask, Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia. Horiek denak bildu zituzten eratu berri zegoen Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak eta Lokarrik. Eta egunaren amaieran Aieteko adierazpena egin zuten nazioarteko sei pertsona ezagunek: Kofi Annan, Gerry Adams, Bertie Ahern, Jonathan Powell, Gro Harlem Brundtland eta Pierre Joxe. ETARI eskatu zioten jarduera armatua uzteko, eta

Frantziako eta Espainiako estatuei dei egin zieten gatazkaren konponbiderako elkarrizketa irekitzea. Handik 3 egunetara, urriaren 20an, ETAk behin betiko su etena aldarrikatu zuen. Aldi hartan, gizarte eragileetako ordezkariak egon arren ez zuten mugimendu feministako kiderik gonbidatu, eta gatazkaren ondorioei heltzeko bideorrian ez zuten genero ikuspegitik inolako analisisirik txertatu. Adierazpen nagusia egiteaz arduratu zirenak ere gizonezkoak izan ziren guzti-guztiak.

2012an eta 2013an sortu ziren hurrenez hurren Bake Bidea Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian Foro Soziala. Herri eragileak izan dira bi horiek hasieratik, eta helburua izan dute Euskal Herriko herri eragileekin zein instituzio publikoekin harremanak estutzea gatazkaren amaiera ordenatu bat zehazteko eta horien ondorioei heltzeko. Orain gutxi arte (gatazkaren ondorioei erreparatu arte), ezer gutxi aipatu dute bi eragile horiek ikuspegi feminista gatazka armatuen analisisian txertatzeaz. Foro Sozialak 2017an egin zuen lehenengoz halako kanpaina bat: “Nik sinisten dizut” deiturikoa, zeinak gatazkak iraun bitartean biolentzia bizi izan zuten hainbat emakumeren testigantzak jaso eta gatazken pluralitatearen inguruan eztabaida piztu zuen. 2018ko apirilean Armagabetzearen, Desmobilizazioaren eta Bergizarteratzearen (DDR) inguruan egindako jardunaldietan gonbidatu zuten Justine Masika, Kongoko ekintzailea eta Synergy of Women for Victims of Sexual Violence erakundeko koordinatzailea, gatazka armatuetan emakumeek jasandako biolentzia sexualaren inguruan hitz egiteko. Bake Bideanek ere azken urtean txertatu du diskurtsoan genero ikuspegia.

Ustez elkarrizketak, ordea, apenas eman zuen uztarik, eta Ezker Abertzaleak hausnarketa prozesua abiatu eta eraldaketarako oinarriak jarri arren, gatazkaren ondorioei heltzeko oztopoak egon ziren. Hala heldu zitzaion “aldebakarreko prozesu” deiturikoari. ETAk, bestelako eragileen (NEB, Bake Bidean, Foro Soziala...) laguntzarekin eta zenbait instituzio publikoren isilpeko lanaren bidez (Esnaola, 2017) armagabetze osoa egiteko hautua egin zuen 2013an. Handik urtebetera, 2014ko otsailean ETAk eta NEBek agerraldia egin zuten armategi-zigilatzearen egiaztatzearen hasiera argitan emateko. Parte hartzaile guztiak izan ziren gizonezkoak. Espainiako Auzitegi Nazionalean deklaratu behar izan zuten hurrengo egunetan NEBeko ordezkariak. Urte horretan bertan Ipar Euskal Herriko ia sentsibilitate politiko guztiek

bat egin zuten Baionako adierazpenarekin. Armagabetzea eta gatazkaren ondorioei heltzea adostu zuten adierazpenean. Lokarrik ere armagabetze plana argitaratu zuen, eta baita Eusko Jaurlaritzak ere. Espainiako eta Frantziako estatuekin negoziatzetik urrun, Euskal Herriko eragileen agentzia are eta nabarmenagoa bihurtu zen armagabetzearen aferan.

Elkarrizketarako aukerarik gabe, geroz eta indar handiagoa hartu zuten hurrengo urteetan Foro Sozialak eta Bake Bideanek, nazioarteko beste gatazka armatuetan gertatu ez bezala, gatazkaren eragin zuzena jasandako estatuak ez zuten inolako prozesurik ireki nahi auziari amaiera emateko. Foro Sozialak eta Bake Bideanek Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta sortzear zegoen Ipar Euskal Herriko Elkargoari eskatu zioten auzioaren erantzukizuna hartzeko. Ezker Abertzaleak, aldebakarreko eskeman jarraituz Abian prozesuaren ondorioak argitaratu zituen, nahiz eta jakina den Frantziako estatuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin zuzeneko harremanetan egon zirela urte luzez (Esnaola, 2017). 2016a zen ordurako, eta Ipar Euskal Herrian indarra hartuz joan zen gizarte zibilia ahaldundu eta bera izan behar zela armagabetzeaz arduratu behar zen subjektua. Luhusokoa¹ etorri zen orduan, 2016ko abenduaren 16an. Baina, atzera begira jarrita ohartuko gara instituzioetatik gizarte zibilera egindako saltoak, eta gizarte zibilaren agentziaren jabetzeak Ipar Euskal Herrian, apenas egin diela lekuri emakumeei. Egindako kronologia laburrean gutxi dira publikoki gaiaren ardura hartu duten emakumeak, bideorri politikoa aurkeztu dutenak edo modu batean edo bestean gatazkaren ondorioei heltzeko legitimitatea izan dutenak. Aipatzekoak dira horien artean Anaiz Funosas Bake Bideaneko eleduna, Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko presidentea eta Sylviane Alaux PSko militantea. Argazki hori ez dago errealitatetik urrun. Berriki argitaratutako Luhuso: *ETA-ren armagabetze zibilaren kontakizuna* (Esnaola, 2017) eta *El desarme: la vía vasca* (Egaña, 2017) liburuetan agerikoa da publikoki emakumeek izandako presentzia eskasa. Hain justu, elkarrizketatuen bosten bat (%20) dira emakumeak.

¹ 2016ko abenduaren 16 iluntzean “bakearen artisauek” deiturikoei ETArekin armak deuseztatzeari ekin zioten eta Frantziako Poliziak atxilotu zituen Jean Noel Etxeberri, Beatrice Molle-Haran, Mixel Berhokohirigoin, Mixel Bergouignan eta Stephane Etxegarai

Luhusoko gertakariaren ostean, Bakegileek zabaldu zuten ETArekin izan zuten harremana, eta adierazi zuten Ipar Euskal Herriko gizarte zibila prest zegoela armagabetzea bururaino eramateko. Polizia operazioan atxilotu zituzten kideetan bakarra zen emakumea, Beatrice Molle, genero ikuspegitik aztertzekoa berak jokatutako papera ere. Kazetaria da Molle, ibilbide luzekoa. Baina gertakariaren ostean jasotako kroniken eta armagabetzearen inguruan egindako liburuetan, Mollerren papera mugatu da ekintza egiteko “etxea uztera”. Areago, Mollerren konfiantza bermatzen duen beste aldagai bat azpimarratzen dute kronika liburuek: “Xibun Haran-en alarguna zen. Ipar Euskal Herrian abertzaletasunaren figura historikoetako bat da Haran” (Esnaola, 2017: 11). Gauzak horrela, atxilotu egin zituzten Errekarte baserrian Luhuson gau hartan zeuden kideak, baina, ordurako abiatua zegoen Bakegileen mugimendua. Ipar Euskal Herriko gizarte zibilak amaituko zuen ETAREN armagabetzea.

Sei hilabetez abiada bizian egin zuten lan publikoan eta pribatuan Euskal Herriko instituzioek zein eragileek. Adostasunak eta desadostasunak tartean, 2017ko apirilaren 8an irudikatu zuten ETAREN eramateko desarmatzea. Ipar Euskal Herriko gizarte zibileko hainbat kidek (argazkietan batik bat gizonak ageri dira) izan zuten armategiak Frantziako poliziarri entregatzeko ardura. Lokarrik, gainera, amaitutzat eman zuen bere ibilbidea.

Armagabetzearen blokeoa pasata, heldu diote eragile ia guztiek gatazkaren ondoriez hitz egiteari, eta orduan hasi dira lehen aipatutako foro, jardunaldi eta egitasmoak antolatzen. Horrek adierazten du, beste behin, Euskal Herriko gatazkaren kontaketa apenas egon dela euskal iruditerian emakume subjekturik, eta ondorioak jasan dituzten bigarren edo hirugarren lerroko subjektu pasibo gisa irudikatzen direla. Areago, azken ekintza publiko nagusian, 2018ko maiatzaren 4an, ETAREN amaiera baieztatzen zuen ekitaldian 84 gonbidatutatik 27 ziren emakumeak (laurdena ere ez). Oraingo honetan, mugimendu feministako kide bakarra gonbidatu zuten.

Laburbilduz, gatazka armatuaren amaieran parte hartu duten, eta subjektu nagusi izan direnak, oraingoan ere gizonezkoak izan dira. Ondorioz, balizko bake baterako zimenduak jartzen ariko liratekeenak ere gizonezkoak lirateke. Eta, hortaz, bakeraren ikuspegi androzentrikoa nagusituko litzateke, bestelako gatazkak eta

urteotan emakumeek izandako agentzia eta jasandako mina ez litzatekeelako aitortuko. Horrelako espazioetan eta foroetan emakumeek lekurik ez izateak, eta genero ikuspegia gatazkaren ondorioen eta bake diskurtsoetan presente ez egoteak memoria kolektibo(et)an arrakalak sor ditzake:

Euskal jendartea osatzen dugun emakumeon kontakizun askotarikoek gure memoria kolektiboaren parte izan behar dute, baldin eta bakerantz egin nahi dugun trantsizio honek zilegitasun eta sinesgarritasun minimoak eduki nahi bditu. Beste modu batera esanda, euskal emakumeei ere egia zor zaie.
(Mendia, 2016:115)

4.2.2- Euskal Herriko Mugimendu feminista: Hau ez da gure bakea.

Agerikoa da euskal gatazkaren inguruko lanketak egiteko testuingurua aldatu dela. Horrek, ordea, bortxaz ez du ekarri emakumeek auzian eduki duten paperaren inguruko hausnarketa, ezta gatazkaren beraren irakurketa eta memoria feminista bat eraikitzeak. Lehenago aipatu moduan gatazkaren ondorioei heltzeko taldeetan eta lanean ari direnak -modu publikoan-, batik bat gizonezkoak izateak, ez du inondik ere gatazka armatuen analisi androzentrikoen dinamikarekin hausten. Ordea, azken urteotan Euskal Herriko mugimendu feministak modu batean eta bestean ekarpena egin dio gatazkaren irakurketari eta gatazkaren ondorioen irakurketari genero ikuspegia txertatzeko. Nolabait, mugimendu feministako sektore bat ari da (hautu erabat kontzientea ez izan arren), euskal gatazkaren memoria feminista txiki bat osatzen. Oraingoz, baina, orohar gatazkaren lehen lerro gisa definitu izan den horretan parte hartu duten emakumeen esperientzia (erakunde militar bateko kide izatea, borroka nazionala eta feminismoa uztartzea...) eta bizitako ondorioak (tortura espezifikoak, espetxe sistema heteropatriarkala...), aztertu dira. Hala ere, izan dira azken 60 urteetako gatazken pluraltasuna aintzat hartzeko abian jarritako zenbait ekinbide. Horiek dira, hain zuzen ere, gatazkaren inguruko errotiko analisia egiten duten egitasmoak. Ez dira asko izan, ordea, eta horregatik, ondorengo lerroetan 2011k hona mugimendu feministak gaiaren inguruan egindako zenbait hausnarketa bilduko ditugu; bai herri mugimenduari dagokionez eta baita maila teorikoari ekarpena eginez ere.

Hainbat faktorek eragingo zuten Euskal Herriko Mugimendu feminsitak loraldia izatea 2011tik aurrera. Hainbat eztabaidagunetan eta kolektibotan sarearen indartze hori bete-betean lotua izan da gatazka armatuak zentralitatea galdu izanarekin. Era berean, hainbat kolektibo feministen azken urteetan bere egin dute euskal gatazkaren ondorioen inguruko analisi feminista egin beharraren aldarria, eta areago, atzerriko (batik bat Kolonbiako) gatazken konponbideari erreparatu diote bertako zenbait ikerlari feministek. Edonola ere, aipatu dugu euskal gatazka genero ikuspegitik aztertuta egindako lanak eta aldarrikapen zein egitasmoak aipatuko direla atal honetan. Egia da, behin betiko su etenaren aurretik ere osatu zirela gatazkaren inguruan horrelako zenbait irakurketa (Del Valle, 1985; Alcedo, 1997), eta baita zenbait egitasmo politiko (horietan ezagunena Eusko Legebiltzarreko emakume politikariek osatutako Ahotsak) kolektiboa. Gaur egunera ekarrita ordea, 2011tik aurrera egindako egitasmoak izango ditugu aipagai.

Horietan berritzaileena izan daiteke Bertha Gaztelumendi zinemagileak 2012an argitaratutako *Mariposas en el Hierro* dokumentala. Berritzailea, euskal gatazkaren ondorioak jasandako hainbat emakume (anitzen) ikuspegia jasotzen duelako batetik, eta gatazka politikoaren ikuspegia ere anizten duelako (indarkeriaren bizirauleak dira protagonista; gatazka armatuarenak batzutan, indarkeria sexistarenak bestetan, edo lan arloko biolentzia jasan dutenak). Ikusentzunezkoak, nolabait jasotzen du euskal gatazka iraun bitartean hainbat eta hainbat emakumek bizitako biolentzia. Indarkeria horien jatorria kontuan hartu bai, baina emakume horiek urteotan bizitakoaren berri ematen du dokumentalak, lehenago aipatu moduan gatazken ertz diferenteak auzitan jarriz eta emakume horien agentzia kontuan hartuz.

Handik bi urtera egin zen, Ondarrun Emakume Abertzaleen VI. Topaketa. Goizetik arratsaldera testuinguru berri horretan emakume* abertzaleek zein paper jokatu behar zuten eztabaidatu zen bertan. Gatazkaren ondorengo egoera soziopolitikoaz hitz egin zen, eta lehen aldiz aipatu zen publikoki *trantsizio feminista* kontzeptua. Balizko bake egoera batean Euskal Estatu Feministak ere zein beharko lukeen aletu zuten arratsaldeko mahai inguruan Jule Goikoetxeak, Ainhoa Etxaidek, Josebe Iturriotzek, Idurre Eskisabelek, Saioa Iraolak, Ana Murciak eta Jeanne Rolandek. Nork bere lekutik trantsizio feministaz eta balizko euskal estatu feministaz

ekarpena egin zuen bertan. Euskal Herriko mugimendu feministaren norabiderako zenbait oinarri jarri zituzten, eta ikerketa honen gaiari dagokionez, topaketa horietan identifikatu zen mugimendu feministak behar zuela izan gatazkaren ondorengo bidean subjektu aktibo.

2015ean kaleratu zuen Bilgune Feministak *Hau ez da gure bakea* manifestua, azaroaren 25aren harira. Hala zioten artikuluaaren amaieran: “Bakearen aroa bada, izan dadila denontzako bake garaia”. Horrela, auzitan jartzen zuten euskal gatazkaren ondorioen inguruan ordura arte egiten ari zen irakurketa. Alegia, gatazka armatuaren alde bateko eta besteko biktima zuzenak soilik kontuan hartzea ondorioen biktima gisa, eta gainontzeko gatazkei arretarik ez ipintzea salatu zuten. Nolabait, Bilgune Feminista engaiatu zen gatazkaren ondorioak ikuspegi feministatik lantzearen eginbeharretan parte hartzera. Urte berean antolatu zituzten ondorengo urteetan mugarri izango ziren UEUren jardunaldiak: *Hau ez da gure bakea* eskola feminista. Lehenik Iruñean, ondoren Bilbon, euskal gatazkaren inguruko irakurketa feminista eta memoria kolektiboaren inguruko hausnarketa bultzatu zen. Oihana Etxebarrietak, Zuriñe Rodriguezek eta Arantza Santesbetanek antolatu zituzten; euskal gatazkaren iruditeriaren inguruko analisia egin zen, eta lehen aldiz hitz egin zen gatazkan parte hartu zuten emakumeen inguruan, zein gatazkan zuzenean parte hartu ez baina horren eragina bizi izan duten emakumeen inguruan (presoen bikoteen inguruko gogoeta, Oihana Etxebarrietaren eskutik).

Ikastaroak lehen adreilua jarrita, Oihana Etxebarrieta eta Zuriñe Rodriguezek idatzi zuten Susa argitaletxearen Lisipe, pentsamendu politiko feministaren bildumako lehen liburua, 2016an: *Borroka armatuak eta kartzelak*. Hitzaldi sorta eginda, gatazkan zuzenean parte hartutako emakumeen bizi esperientzien ahotsa jarri zuten erdigunean, baita espetxeetako harreman afektibo sexualen inguruko gogoeta mahai gainean jarri ere. Nolabait, urteetan eraikitako *gudariaren* iruditeriarekin hausten hasi zen mugimendu feminista, eta hala exijitu zuen bestelako errelato batzuk ere memoria kolektiboaren erdigunean kokatzeko. Urte berean antolatu ziren, hain justu UEUren *Kartzela eta Euskal Gatazka birpentsatzen. Subjektu feminista baten norabidean* ikastaroa. Hala, iruditeriaz harago ere, lehen aldiz hasi ziren gatazkan parte hartu edo parte izandako subjektu berriak izendatzen (emakumeak*, marituak, zuzenean parte

hartu ez zutenak...). Era berean, horiei agentziarako gaitasuan aitortzen zaie lehen aldiz ikastaro horretan. Areago, 2016aren amaieran, *Kalera Kalera* egitasmoa bultzatzen dute hainbat preso ohiek. Lehen aldiz emakume presoek beren bizipen propioak kontatzen diuzte haiek protagonista diren egitaraua osatuz. EPPK-k ere iragarri zuen emakume presoekin lanketa berezia egingo zuela.

Gogoeta teorikotik harago, 2017an mugimendu feminista kohesionatzen hasi zen kalean eta praktikan ere presentzia izateko gai horren inguruan. Ez alperrik. Nekane Txaparteko Suizan espetxeratzeak, Ekhiñe Eizagirre mugimendu feministako kidea espetxetik ateratzeak eta Sara Majarenasen auziak aukera eman zuen (edo beharra izan zen) ikuspegi feministatik gatazkaren ondoriozko zenbait gai mahai gainean jartzeko: amatasuna espetxean, kartzela bera egitura moduan, isolamendua, dispersioaren ondorioak... Horren adibide, urte horretan bertan Valladolideko espetxera martxa antolatu zuen Bilgune Feministak, bertan bakartuta zegoen Nahikari Otaegiri babesa adierazteko. Urtearen ondarrean, Ainhoa Mujikak eta Agurtzane Delgadok salatu zuten emakume huts izateagatik espetxean tratu berezitua jasan zutela eta behartu egin zituztela komunak garbitzera. Urtebete lehenago Fleuryriko (Paris) espetxean EPPK-ko kide emakumeek protesta egin zuten gainontzeko presoekin espetxearen emakumezko moduloen baldintza kaskarrak salatzeke. Lehen aldiz elkartu ziren “preso sozialak” eta “politikoak” borroka berean, eta isolamendura bidali zuten Itziar Moreno kideak. Gaiak oihartzuna hartu zuen Fleuryn zeuden kide gizonezkoek gose greba abiatu zutenean Morenoren isolamendua salatzeke.

Beraz, mugimendu feministak egin du urteotan Euskal Herrirako testuinguru berrirako ekarpena. Areago, hasieran bazterreko gogoetak eta praktikak zirenak bere egin dituzte zenbait urteren ondoren (eta hein batean) gatazkaren ondorioetan buru belarri dabilzan zenbait egiturek. Horren adibide dira *Nik Sinisten Dizut*, Foro Sozialaren kanpaina eta Sarek emakume espetxeratuen eta ama kartzelaratuaren iguruan egindako txostena eta EPPK-ren azken eztabaidan emakume presoek aurrera eramandako gogoeta propioa. Eztabaida mahai gainean egon, badagoen arren, oraindik ere gatazken aniztasunari eta periferiako subjektuei ez zaie behar besteko ahotsik eman, eta osatze kolektiborako ezinbestekoa izango da hori ere erdigunean jartzea. Horra ikerketa honen ekarpena.

5.- METODOLOGIA

5.1- Ikuspegi feministaren garrantzia.

Txosten osoan zehar behin eta berriz aipatu moduan, ikerketa honen misioetako bat da marko metodologiko egoki bat sortzea gatazken ondorioak bizi izan dituzten emakumeek zentroko ahotsa hartzeko, eta gogoeta kolektibo bat bultzatzeko. Ez da nolanhiko lana, edonola, beste herrialde batzuetako gatazka armatuen konponbide prozesuetan halakoak abian jarri baitituzte. Euskal Herrian ere Foro Soziala zein Bilgune Feminista ari dira *Osatze kolektiboaren* kontzeptuaren inguruko gogoeta sustatzen. Ikerketa honetan, beraz, bide horretarako aletxo bat jartzea da asmoa.

Horretarako, ezinbestekoa da ikuspegi feminista ikerketa osoan zehar garatzea. Metodologikoki gaiari nola heldu, eta teknikoki ikerketako subjektuekin zein harreman izan, ezinbestean aztertu behar da genero ikuspegitik, batik bat ikertzaile/ikertu dikotomia (sarri) hierarkikoarekin hautsi nahi bada. Epistemologia feministaren inguruko gogoeta egin nahi da ikerketa honetan, horregatik datorren atala eskainiko diogu horri.

5.1.1- Epistemologia feminista eta ikertzailearen rola kolokan jartzea.

Genero ezberdinkeria aztertzeko zenbait autorek egindako ekarpenak interesgarriak dira, **zer** aztertzeaz gain, **nola** aztertzen den hausnartu dutelako. Zentzu horretan, genero ezberdinkerien analisiari egindako ekarpen garrantzitsuenetako bat da epistemologia positibistari eta zientifistari egindako kritika. Kokaleku berritik, ikerketak aurrera eramateko moldeak ere aldatu dira, eta hortaz metodologia berrien eta feministen inguruko hausnarketa plazaratu da. Bestalde, zenbait ikerlarik diote interesgarria dela hain justu ohiko ikerketa teknikez jabetu, eta genero ikuspegitik osatutako diseinu teknikoa egitea. Nik, beraz, ez dut errotik moztuko teknika klasiko

horiekin, sakoneko elkarrizketak egingo baitira, aurrerago azalduko dugun moduan, baina asmoa bada ikerketa honek metodologikoki utzitako hariei tiraka gogoeta egitea.

Egiteko moduak, ikerlariaren kokalekuak eta haren jakintza metatuak zein bizipenek, posizio konkretu bat ematen diote aztertzaileari. Donna Haraway-k eman zion izena horri, *ezagutza kokatua* (1991). Baina, hortik harago, beharra dago ikerketa ereduaren eta prozesuaren inguruko hausnarketa ere konpartitzeko. Nola jasotzen dugu informazioa? Zein nolako harremana dugu ikertuarekin? Nola jaso subjektibitateak? Eta, are gehiago, nola kudeatu ikerlariarengan jasotakoak izandako eragina? Alegia, jasotako informazioa objektiboa ez dela azaltzeaz gain, nola islatu prozesuan izandako subjektibitate guztiak ikerketan? Txostenean zehar behin baino gehiagotan aipatu moduan, ikerketa honetan ahots horien subjektibitatea eta agentzia jasotzeaz gain, gatazkak berak zein nolako bizipen anitzak eragin dituen aztertu nahi da. Ezinbestekoa da, beraz, datuen bilketaren inguruko gogoeta hori egitea kasu honetan ere.

Hain justu, Euskal Herrian bertan kaleratu dira gai horren inguruko zenbait gogoeta. Horren adibideetako bat da bertan landutako etnografia feministen esperientziak jasotzen dituen *Etnografia feministak* liburua (UEU, 2016). Hainbat gogoeta egiten dira bertan, agentziak, praktika erresistenteak, subalternitatea eta hegemonia, eta bestelako proposamenak jasotzen dituen. Lerro horretan, subjektibitate horiek jasotzeko moduan proposatzen du Estebanek: *Itinerancias corporales* delakoa. Gorputza, beraz, egitura eta ekintza elkartzen diren korapiloa da. Horrek, era berean, kasu konkretuetara jotzeko aukera ematen du, eta baita bizipen horiek kolektibotasunean eta espazio sozialean kokatzeko ere. Hala, errealitate berriak ezagutu, eta andrazkoek eragiteko daukaten gaitasuna azaleratzen da. Bada, beraz, ikuspegi antropologikotik genero ezberdinkeria aztertzeko ekarpen bat ere. Azken batean, ikerketa helburua soilik informatze izatetik subjektuen ahalduntzea izatera ere igaro daiteke modu honetan; nolabaiteko *kontzientzia hartze prozesua* gertatzen baita. Dagokigun ikerketa honetan, sakoneko elkarrizketak egingo dira, itinerarioen beharrean, baina, finean, garrantzitsua da azpimarratzea kezka hori egon badagoela, eta beraz, ikerketan parte hartuko duten subjektuengana heltzeko prozesuan hori presente dagoela.

Are gehiago, aurrerago diseinu teknikoan azalduko dudan moduan, sakoneko elkarrizketak ez ezik, amaierako kontraste saio bat ere egin da ikerketako sei parte hartzaileekin. Haien proposamena izateaz gain, balio dezake ikerketaz beste, ahalduntze eta elkarbanatze prozesuak sustatzeko. Baina, horrelako lanketak eginak dira dagoeneko, eta horren adibide, Kolonbiako bake prozesuaren harira sortutako Ruta Pacifica de las Mujeresen *La verdad de las mujeres víctimas del conflicto armado en Colombia* (2013). Honakoa da bideorri horrek elkarrizketak egiteko jartzen dituen baldintzak:

La metodología feminista ha tomado abiertamente la experiencia de las mujeres como fuente de conocimiento y ha declarado como principio su compromiso con el empoderamiento de las mujeres. La narrativa de mujeres se ha generado a través de una mediación femenina en un espacio significativo y de acompañamiento para las mujeres participantes. (Ruta Pacifica de las mujeres. 2013:16)

Diseinu teknikoa egiterako unean eredu hartu da elkarrizketatuak aukeratu eta elkarrizketak aurrera eramateko bide orri horrek jarraitzen duen eskema. Beraz, agerikoa da ikerketa hau aurrera eramateko zalantzan jarri behar dela, ezinbestean ikertzailearen eta ikertuaren arteko hierarkia eta botere harremana. Are gehiago, dagokigun ikerketa honetan bezala, ikerketako subjektuek beraiek prozesuaren parte izan nahi badute, eta are gehiago, gorputzean bertan bizitako esperientziak parte hartzaileek inork baino hobeto ezagutzen badituzte.

Hari horri tiraka (baina beste botere harreman gehitu batekin: mendebalde-hego amerika ardatzean) sumatu dezakegu Ruth Beharren *Cuéntame algo aunque sea una mentira* irakurgaia. Informatzaile batekin izandako hartu emana islatzen du paperean, baina, gainera, mendebaldeko unibertsitate bateko ikerlari batek Mexikoko emakume batekin duen informatzaile-ikerle trataeraz egiten du gogoeta. Zalantzarik gabe, aldagai horiek eragina dute ikertzaile-informatzailearen arteko harremanetan, eta autoreak, hain justu, horren inguruan egiten du gogoeta: posible al da mendebaldeko teoriziotik Ertamerikako errealitate baten argazkia egin. Are gehiago, nola jaso tentsio horiek ikerketan bertan? Nola sortu praktika berriak botere harreman horiek ahalik eta txikienak izan daitezten? (Behar, Ruth. 2009). Ezinbesteko gogoeta da hori

ikerketa honetan ere. Baina ipar-hego aldagaia kontuan hartu beharrean, kontuan hartu beharko genituzke gatazka egoerak bizitako emakumeen esperientzia jasotzen ari garela. Horra galdera beraz, posible da halako bizipenetatik pasa ez den norbaitek horrelako ikerketa egitea? Edo, alderantziz, zein neurritan mantendu daiteke ikertzaile eta ikertuen arteko bereizketa gaiak bete betean harrapatzen baditu guztiak? Alegia, ikertzaileak halako bizipenak baditu, eta ikertuek bat egin nahi badute ikerketa prozesuarekin? Azken ondorioetan jaso beharko dira gai horri dagozkion tentsio guztiak.

Harawayek zioen ezinbestekoa dela ikerlariak bere posizioa zein den azaltzea, hala ikerketaren ikuspegia bera definitzen baitu. Posizioaz gain egiteko modua zalantzan jartzerako unean, ordea, ohartuko gara ikerlariak zaila duela jatorriz duen posizioa eta esperientzia hori hala nola alboratzea (Espinosa, 2014). Horregatik, ikerlari gisa, nola kokatzen garen eta zer aztertzen dugun hausnartzera garamatza, eta gu geu ere, gauden posizioan gaudela, egiten ari garena ikuspegi kritikoz hausnartzeko beharra areagotzen du. Ikuspegi hori oinarrian duen diseinu tekniko bat osatu dut, hortaz: epistemologia feminista zeharlerro duena, ikerlari-ikertu hierarkiaren inguruko gogoeta duena (guztiz hautsi ez den arren) eta emakume hauen bizipenak akademiarako jakintzaz gain, herriarentzako ezagutza gisa landuko duena.

Hortaz, etnografia feministaren bidetik, gorputzetik abiatutako gogoetak dira ikerketa honetan plazaratuko direnak, baina hori lortzeko, metodologia kualitatiboa erabiltzea hobetsi dut ikerketa honetan, sakoneko sei elkarrizketa eginda. Gorputzetik abiatutako etnografia erabat ez menderatzeak, eta denbora apurra izateagatik, ohiko tekniken bidez informazioa biltzea izan da aukera. Hala ere, garrantzitsua da etnografia feministaren bidea urratzea, hala jasotzen ditut *Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia* liburuan bildutakoak:

Gorputzetik ere etnografia egitea da helburua, betiere une oro eraldatzen ari diren testuinguruetan kokaturik. Etnografia mota hori garrantzitsua litzateke ikuspegi feminista batetik arrazoi ezberdinengatik. Batetik, gorputzean bertan gauzatzen delako eta generoa eraikitzen eta deseraikitzen den testuinguruarekin harremanetan dagoelako. Bestetik, pentsamendu androzentrista garaikideak sortutako dikotomiak zalantzan

jartzen dituelako, esate baterako, gorputza/burua, natura/kultura, norbanako/gizartea bezalako bikoteak. (Esteban; Hernandez (koord). 2016: 155)

5.2- Diseinu teknikoa.

Esan bezala, etnografia feministaren bidetik teknika kualitatiboak erabiliko dira ikerketa honetan: sakoneko elkarrizketak izango dira informazio iturri nagusiak, baina lehenago ere aipatu bezala, kontraste saio bat egingo da ikertuekin, haiek hala eskatuta, ikerketan jasotakoak berrikusteko batetik, elkarren esperientzien berri izateko, bestalde. Teknika bakoitza zertan den, eta ikerketa subjektuak hautatzerako unean zein aldagai kontuan hartu diren azaldu aurretik, beharrezkoa da esplikatzea zein den ikerketaren unibertsoa, eta zein nolako lotura dudan ikertuekin. Izan ere, horrek eragin du besteak beste ikertzaile-ikertu dikotomiarekin hausteko unean edukitako gorabeherekin.

5. 2.1- Unibertsoa eta ikerketa subjektuekin dudan harremana.

Euskal gatazkak Euskal Herriko zazpi lurraldeak zipriztindu dituela oinarri hartuta, herrialde osoko argazkia egitea garrantzitsua da, kontuan hartuta, gainera 80ko eta 90ko hamarkadetan Ipar Euskal Herrian ere eragin berezia izan zuela gatazkak. Hala ere, hurbiltasunagatik, eta pentsatuta gerora ere ikerketa honek segida izango duela, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Lapurdiko emakumeak izango dira ikerketa honetan subjektu. Guztira sei andre elkarrizketatuko ditut: bi bizkaitar, hiru gipuzkoar eta lapurtar bat. Adinari dagokionean, zabala da tartea: 30 urtetik 70 urtetara arteko kideak izango baitira eledun; izan ere, helburua da 80ko eta 90ko hamarkadetan militante izandako horien lagun eta senide emakumeek gatazka nola bizi izan duten azaleratzea. Batzuetan aita, besteentzat laguna, beste batzuentzat arreba edo bikotea, gazte edo heldu guztiek bizi izan dute gatazkaren ondorio emozional eta fisikoa. Era berean, aipagarria da, aldagaietan ikusiko dugun moduan, guztiak ez direla egon “gatazkaren” lerro berean, eta horrek aniztu eta aberastu egiten du ikerketa: errefuxiatu baten arreba izan, sasian dagoen iheslari baten ama izan, espetxeratu baten aita, kartzelatik atera berri den baten bikotea edo ETAk hildako baten laguna izateak

esperientzia mota diferentea eman dio bakoitzari, edonola, emakume izateak, eta gatazka “periferiatik” bizi izanak, komunean dituzten hainbat aldagai mahai gainean jarraziti ditu.

Beraz, kontuan hartuta ikerketa laburra dela eta lagina mugatua dela, norberaren ahotsa mahai gainean jartzea da asmoa, baina baita bere aniztasunagatik osoa den ikerketa bat plazaratzea ere. Norberarena eta kolektiboa gurutzatzen diren tokia izango da ikerketa hau; horren adibide izango da, besteak beste, amaieran kide guztiekin egingo den kontraste saioa.

Bestalde, aipatu behar dut elkarrizketatuak lortzeko gehien bat hurbileko errealtateetara jo dudala, eta, ondoren, “elur bolaren” teknikaren bidez, hainbat eta hainbat andre eskaini didatela beraien kontakizuna ikerketan jasotzeko proposamena. Ikuspegi feministatik egindako bilketa izanda, eta hori zeharlerro gisa kokatu nahi izanagatik, konfiantza sare bat sortzea izan da gakoa. Solasaldi luzeak, eta birritan egindako elkarrizketak egin ditut sei kasutatik lautan. Horrek erakusten du beharrezkoa izan dela andre horientzat babesguneak sortzea. Seitik lau ezagutzen nituen aurrez, are, horien historia gertutik ezagutzen nuen. Beste biren kontaktetara hurbiltzeko, berriz, hasierako lau kolaboratzaileek egin dute zubilana. Gainera, ahoz ahoko informazio truke horrek, emakume gehiagorengana hurbiltzeko aukera eman dit, eta etorkizunean haiekin harremanetan jartzeko konpromisoa ere hartua dut. Horra elur bola teknikaren puntu indartsua: batak besteari zertan den esanda, konfiantzazko kate bat sortuta, hasieran helduko ez nintzatekeen zenbait kontaktetara heldu naiz, eta geroz eta andre gehiago daude, gainera, beren kontaktetaren berri eman nahi dutena.

Gatazkaz eta biolentziaz ari diren ikerketetan ezinbestekoa da konfiantza hori sortzea, izan ere, ikerketa honetan gertatu bezala, asko dira oraindik publikoki kontatu ezin / edo kontatu nahi ez dituzten istorioak. Batetik pribatutasun hori errespetatzea, eta bestetik isiltasun horiei zentzua ematea, hori da ikerketa honen beste erronketako bat, zalantzarik gabe. Eta, ikerlariak zein posizio duen jabetun izan behar duenez, ezin aipatu gabe utzi andre hauek nirekin izandako konfiantzak baduela nolabait “elkarbanatutako historia”-tik. Garai diferentean bada ere, gatazkaren ondorioak jasaten dituen andre moduan irakurri naute ikerketako subjektu guztiek. Diotena

konprenitzen duen ikerlari gisa hartu naute, eta hori abantaila izan da solasaldiak aurrera eramateko. Nahiz eta, gaiarekiko atxikimendu horrek, askotan zaildu egin duen bizipen horiek ikertzaile baten betaurrekoetatik irakurtzea.

Hala ba, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Lapurdiko sei emakume izango dira ikerketako subjektu nagusiak. Guztiek eduki dute euskal gatazkan zuzenean inplikaturik hurbileko kide bat, eta ondorioz, eurak ere, *a priori* erabakimen propioz ez izan arren, jasan dituzte gatazkaren ondorioak, baita, parte hartzera iritsi ere. Hurbiltasunetik egin dira elkarrizketa sakonak, eta konfiantza sare horretatik abiatuta sortu dira ikerketa subjektuekin harremanak. Horrek ahalbidetu du, finean minez eta parte hartze erdi klandestinoez hitz egitea, ahalik eta segurtasun handiena hartuta. Horregatik, ezeren aurretik aipatu behar da ikerketan erabiliko diren izenak asmatuak direla, esanguratsuak izan arren elkarrizketako zenbait pasarte zuzenean ez jartzea erabaki dutela elkarrizketatuek, beraiek, “salagarriak” izan daitezkeelakoan.

5. 2.2- Ikerketarako teknikak.

Elkarrizketa sakonak:

80ko eta 90ko hamarkadetan euskal gatazkak ukitutako andreak dira elkarrizketetako protagonistak. Elkarrizketa sakonen tekniken bitartez, helburua da solasaldi luzeak egitea, gertakari konkretuetan, eta bizipen subjektiboetan murgiltzeko, eta horiek, ondoren, errelato komun batekin alderatzeko. Solasaldi horiek orain arte kontuan hartu gabeko euskal gatazkaren hainbat subjektibitate ezagutzeko aukera emango dute. Guztira sei elkarrizketa egin ditut. Erdi itxita dagoen gidoi bat erabili dut, gehigarrien atalean txertatuta dagoena, eta batez ere garrantzia emango diot, andre horiek bizitako egoera gatazkatsuak azalratzeari, ohartzeari hori biolentzia izan dela, eta horren aurrean haiek erresistentziarako eduki dituzten praktikak ikusarazteari. Esan bezala, hainbat autorek aipatzen dute horrelako narratibek badutela subjektuaren ahalduzko gaitasuna. Solasaldi horiek ahalbidetuko dute emakume horien bizipen konkretuak ezagutzea, eta egoerari aurre egiteko abian jarritako praktikak ezagutzea.

Aldi berean, euren subjektibitatean sakontzeko aukera emango dute, eta gai konkretuak testuinguru orokorrago batean kokatzekoa ere bai.

Sakoneko elkarrizketa informazioa lortu asmoz elkarrizketatu baten eta elkarrizketagile baten artean egiten den elkarrizketa profesionala da (Juaristi, 2003). Helburua, ikergai dugun fenomenoaren kasu honetan emakume horiek euskal gatazkarekin izandako hartu-emana— ulertzeko eta aztertzeko gakoak izan daitezkeen aldagaiak edo gertaerak ezagutzea. Juaristik dio komenigarria dela solasaldiak elkarrizketatu eta elkarrizketatzaile bakarrarekin egitea, konfiantzazko testuingurua sortzeko. Kasu honetan, ordea, sakoneko elkarrizketa “ortodoxoen” arauak apur bat hautsi dira gaiaren berezitasunari ahalik eta gehien hurbiltzeko. Kasu honetan, elkarrizketatu guztiek, batek izan ezik, eskatu dute konfiantzazko kide bat alboan izatea elkarrizketak iraun bitartean. Batzuetan besterik gabe parte hartu ez duen lagun bat izan da, baina kasu batean ikerketako bi kidek eskatu zuten elkarriekin egitea elkarrizketa. Kontuan hartuta horrek ahalbidetzen duela ahalduzko prozesu bat, eta bizipen pertsonalak plano politiko zabalago batean kokatzea, diseinu teknikoan onartu da biren baino gehiagoren arteko solasaldia.

Bestalde, elkarrizketek ohi baino gehiago iraun dute. Grabatutako elkarrizketak 6 izan dira, eta guztiek iraun dute 2 ordu eta 3 orduren tartea. Hala ere, jaso gabeko beste hiru solasaldi luze ere izan ditugu, gaiari buruzko lehen hurbilpena egiteo eta konfiantza testuinguru bat sortzeko. Horietan esandako batzuk grabatutako elkarrizketetan errepikatu dituzte, esan ez dituztenak errespetuagatik eta segurtasunagatik ez dira jasoko ikerketa honetan, nahiz eta hautemango den haien perfilak osatzerakoan ere. Ondokoak dira ikerketako subjektuak hautatzerakoan garrantzitsuak izan diren aldagaiak:

ALDAGAIK

1.Mailako aldagaiak:

-Lurraldetasuna: Lehenago aipatu bezala, Euskal Herriak bizitako gatazkaren erradiografia osatu xamar bat egitea da asmoa. Horregatik, lurralde guztiak kontuan hartzea hobetsi da; Ipar zein Hego. Edonola ere, sei elkarrizketatuak Bizkaitarrak,

Gipuzkoarrak eta Lapurtarrak izango dira, garrantzia eman baitzaio zazpi lurraldean kontuan hartu beharrean iparraldeko zein hegoaldeko kontaktak jasotzeari.

-Gatazkarekiko kokalekua: Kontzeptu teorikoak argitzen ari ginela esan dugu euskal gatazkak badituela bi lerro baino gehiago, eta frenteak anitzak direla. Hala ere, kontua sinplifikatze aldera, ikerketa honetan kontuan hartuko dira ETAko militante izandakoen senide edo lagunak ahotsak, eta bestalde ETAk hildako baten lagun min baten kontaketa. Gatazkarekiko kokalekua zabalagoa izan daiteke, baina lehen hurbilpen baterako bi albo horiek bereiztea hobetsi dut. Horrek ez du esan nahi, ordea, “bando” batean edo bestean dagoen andre horrek ez duenik ideologia konkretu edo partikularrik. Alegia, aurrerago ikusiko dugun moduan sarri ez datoz bat beren senide edo lagunak emakume horien pentsamendu politikoarein. Horrek are interesgarriago bilakatzen ditu elkarrizketatuen kontaktak.

-Gatazkan parte hartu duen subjektuarekiko harremana: Gauza bera al da preso baten ama izan ala alaba? Berdina al da espainiako eta frantziako estatuen indarkeria jasatea edo ETAk lagun bat hiltzea? Perfil anitza osatu dut bakoitzaren berezitasunak ezagutzeko eta horiek, ondoren alderaketa batean kokatzeko.

2. Mailako aldagaiak:

-Sexua: Hasieratik aipatu bezala, elkarrizketatu guztiak izango dira emakumeak. Badu garrantzia, beraien subjektibitate propioak jaso nahi direlako eta orohar urte horietan zehar gatazka bizi izan duten emakumeen ahotsak eraikitzeaz den gatazkaren errelatoan txertatu nahi delako. Hala ere, bigarren mailako aldagaia da ez baita determinantea izan sei elkarrizketatuetan nor aukeratu erabakitzerako unean.

-Gatazkan parte hartu duen subjektuaren sexu-generoa: Gauza bera al da subjektuan parte hartu duen senide edo lagun hori gizonezkoa izatea ala emakumezkoa? Gure elkarrizketatuen gertuko gehientsuenak gizonezkoak dira. Bada salbuespen bat, ETAko kide izandako eta ondoren ETAk hildako emakume baten lagun mina elkarrizketatuko dut ikerketan, eta beraz, interesgarria izan daiteke alderatzea batean eta bestean bakoitzak zein rol hartu dituen.

-Adina: Zerikusi zuzena du gatazkan zuzenean parte hartu duen horrekin gure subjektuek duten harremanarekin. Izan ere, aita izan gatazkan inplikaturik dagoena, edo haren ama izan, ikuspegia aldatuko da. Horrek, era berean, adinak emandako ikuskera ezberdinak biltzen ahalbidetuko digu.

-Ideologia: Bigarren mailako aldagaia izan arren, garrantzitsua izango da aldagaia hau elkarrizketatuen profila osatzerako unean. Izan ere, Posible da gatazka hain gertu bizita ere, norberak kokaleku ideologiko ezberdina izatea. Horrek egoera biolentoei eta gatazkari aurre egiterakoan izandako eragina (edo perfil guztien artean dauden antzekotasunak) aztertzea interesgarria egiten du.

Ondoko taulan elkarrizketatuek barnebiltzen dituzten aldagaien berri emango dugu, eta bertan jasoko dugu elkarrizketak irauten duena eta elkarrizketarako zein babes erabili duten:

1. TAULA

1. TAULA:	Lurraldea	Kokalekua gatazkan	Harremana	Sexua	Bigarren subjektuaren sexua	Adina	Ideologia	Elkarrizketa denbora	Elkarrizketa nola
Koro	Bizkaia	Militante ekologista, ENAM	Preso baten laguna + preso ohi baten bikotekidea	Emakume	Gizona	50	Ezkertierra, militante ekologista	2h 13'	1-Lagun min batekin (grabatu gabe) 2- Bakarrik
Rosa	Bizkaia	Estatuen errepresioa jasan du	Anaia preso eta errefuxiatua	Emakume	Gizon	61	Ezkertierra eta abertzalea, ez militantea	3h 18'	Preso horren emaztearekin
Arantxa	Gipuzkoa	Ezker Abertzalea	Aita eta anaia preso, senarra preso, hiru seme preso eta bat iheslari (gaur egun bakarria preso)	Emakume	Gizon	70	Ezker Abertzaleko militantea	3h 15'	Esperanzarekin bi aldiz (bat grabatuta, beste bat grabatu gabe)
Esperanza	Gipuzkoa	Estatuen errepresioa jasan du	Semea sasian 7 urte, ondoren preso (gaur egun)	Emakume	Gizon	71	Ezkertierra eta abertzalea. Ez militantea. Etxerateko bozeramaile batzuetan	3h 15'	Arantzarekin bi aldiz (bat grabatuta, beste bat grabatu gabe)
Estitxu	Gipuzkoa	ETAren ingurukoa (espainaiako errepresioa jasan) + Gaur egun ezkertierra abertzale independentea	Laguna ETAko buruzagia. Iheslaria Frantzia eta Mexikon. ETAk hildako baten lagun mina	Emakume	Emakume	65	Ezkertiar eta abertzale ez militantea. Euskaltzalea	3h 20'	Bakarrik
Izar	Lapuri	Espainiako frantziako estatuen errepresioa jasan du	eta Aita ETAko kidea eta espetxeratua. Osaba ere bai.	Emakume	Gizon	29	Ezkertierra eta abertzalea. Militante feminista	2h 27'	Militantzia kide batekin.

Iturria: Norberak sortua

6.- PERIFERIETAKO MINAK eta ZENTROKO GATAZKAK: Datuen analisia

“No son miedos pequeños. Yo cuando alguna vez se ha hablado alguna vez en conferencias que hemos ido de terrorismo o... yo siempre he dicho lo mismo. Digo terrorismo es el que están ejerciendo ellos, al menos conmigo. Como yo habrá cienmil más. Pero.. a mí, a mí esa gente, sin comerlo y beberlo, por el único motivo de tener un familiar directo con el cual yo no he querido perder el contacto, me han tenido aterrorizada. Y me han tenido en sus manos. Y me han tenido vulnerada totalmente, y eso si te jama el tarro. (...) Jamás le he hechado la culpa a mi hermano. Y es más hoy soy la tía más vaga del mundo, pero si hoy me tocara volver a hacer todo lo que he hecho, vamos lo haría con los ojos cerrados.” (Rosa)

Esaldi horretxek laburbiltzen du ongi datozen orrietan aletuko duguna. Rosak anaia izan zuen ETA kidea, 80ko hamarkadan. Errefuxiatu Ipar Euskal Herrian lehenbizi, GALen mehatxuen ostean Bretañara egin zuen ihes, familiak non zegoen jakin gabe. Atxilotu ostean, Espainiara eraman zuten, Carabancheleko espetxera aurrena, Zamorara. ostean. Izan zen Alcala Mecon ere. Espetxetik atera zenetik pasa dira 30 urte dagoeneko, baina gorputzean iltzatuta ditu Rosak zauri horiek. Koro da Rosaren anaiaren gaur egungo bikotekidea. Espetxean ezagutu zuen, eta lagun egin ziren orduan. 15 urteko aldea dute batak eta besteak; Korok badu zauri bat; ingurukoek beti pentsatu izan dutela “preso ohi baten neska gazte engainatua” izan dela, erabakimenik izango ez balu bezala. Ongi ezagutzen du, ordea, kalean heroe den etxeke anti-heroea. Ahulguneak, beldurrak, amets gaiztoak. Horiek kudeatzen aritu da 30 urteotan.

Arantxaren genealogia euskal gatazkak zeharkatzen du erabat. Aita izan zuen preso frankismo garaian, anaia ondoren, 70ko hamarkadaren hondarrean. Haurra eduki berri zuela izan zuen senarra preso, eta lau seme-alabetatik bik kartzela ezagutu dute. Horietako batek segitzen du espetxean, Frantzian, 800km-ra. Bost urtez ez zuen jakin non zuen semea, klandestinitatean baitzegoen hura. “Ama” baten moduan etxekeak babesten saiatu dela dio, baina badaki egoerari aurre egin behar izan diola sarri: lau edo bost aldiz joan da polizia bere etxera, hilean behin 1.600 kilometro egin behar ditu, eta herriko Ezker Abertzalean militantzen jarraitzen du, 71 urterekin. Behin

Interviuk erreportaje oso bat idatzi zuen bere inguruan ETAkide baten ama izateagatik. Orduan herriko zinegotzia zen.

Arantxaren semearen laguna da Esperanzarena. 1997an egin zuen ihes eta 7 urtez semea non zegoen ez zuen jakin. Areago, semeak alde egin zuenean haserretu egin zen, eta horregatik “egoista” dela errepikatzen du behin eta berriz. Frantziako poliziak harrapatu zuenean “lasaitasuna” sentitu zuen, baina barne gatazka hori ere ez du ongi kudeatzen, ez baitaki semearentzat onena izan zen. 2002an atxilotu zuten semea, eta ordutik Espainiako eta Frantziako kartzeletan ibilia da Esperanza. 2006an aurkitu zioten gaixotasun larri bat, eta, horregatik, kanpoko sostengu nagusia bilakatu da, nahiz eta bere ustez ez duen “lan politikorik” egiten. Halaber, Bruselaseko Europako parlamentuan egon da larri gaixo dauden presoengatik hitzaldiak ematen.

Izarrek 29 urte ditu. Urte eta erdi zuenetik aita espetxean izan du, baita osaba ere. Haur zenean “normala” zen aitarengana bixitan joatea, beti “ondo zegoela” esatea, eta joan etorrietan nekatzea. 14 urte zituenean, ordea, aitarekin haserretu, eta egotzi zion aitari lehenetsi egin zuela Euskal Herria alaben ordean. Ordutik urteak pasatu ditu aita bisitatu gabe. Frantziako militar batekin ezkondu egin zen, eta alaba bat izan zuten elkarrekin. Banandu, eta erabaki zuen aitak ezagutu behar zuela iloba. Orain berriz estutu dute harremana. Ez da inoiz militantea izan, eta ezker abertzaletik ahalik eta urrunen egon nahi izan du, baina orain feminismoak eman dio politikoki aktiboa izateko arrazoi bat baino gehiago. Azken urtean presoengatik aldeko komitean aritu da.

Estitxuk gazte garaian aritu zen ETaren ingurumarian, baina 80ko hamarkadarako urrunduta zegoen erakundetik. Ez ordea bere lagunak, tartean Dolores Gonzalez Katarain, Yoyes. Mexikon errefuxiatu egon zenean mantendu zuen berekin harremana, baita ondoren Parisera itzuli zenean ere. Giroa gaiztotuta zegoen ordurako, eta itzuli eta urtebetera, 1986an hil zuten Yoyes laguna. Goierriko girotik aldendu zuten Estitxu, eta erabaki zuen hobe zela bolada batez Durangora bizitzera joatea. Hala ere, publikoan bere lagun minaren defentsa egin du urte luzez. Noiz edo noiz begiratu izan du etxe atarian ea inor zain izan duen, eta kotxe azpian ere begiratu izan du, badaezpada ere, disimulu handiz.

Horra ikerketarako elkarrizketatutako sei andreen bizipenak labur kontatuta. Gatazkaren zentro sentitu ez badira ere, jabe dira gatazkak erabat zeharkatu duela haien bizitza. Horregatik, ondorengo orrietan, gurutzatutako gatazkez, biolentziaren forma espezifikoek, praktika erresistenteez eta parte hartze politikoaz jardungo naiz, ikerketako subjektuen hitzak hartuta. Helburua da berriki eraikitzen ari den gatazkaren memoriaren eta errelatoaren eraikuntzan arrakala berri bat irekitzea eta ikustea nola alde bateko eta besteko emakumeek bizi izan dituzten zuzenean ondorioak, eta nola aldez edo moldez parte hartze aktiboa izan dute eguneroko horri aurre egiterako orduan. Ikusiko dugun moduan, norberaren esperientzia propioa izanagatik ere, testuinguru eta irakurketa orokorrago baten barnean ulertu eta interpretatu ditzakegu haien hitzak.

6.1- Gorputzean korapilatutako eta gurutzatutako gatazkak.

Nere bizitza aldatu da. Jun dia 21 urte, ordun gazte zinan, gazte klaro, 49 urte, eta oain 71 itea, ba, hor ere badao alde kalte handi bat, zure pertsona bezela. Eta aldatu da: ba nahi dezu gauzak munitzea, aldatzea zu lasaitzeko, ikustezu adinean aurrera zoazela eta horrek bildurtzen zaitu. Iruitzen zaizu zuk egin behar dezula bere jarraipena, nahiz eta badakizun badagola jendia jarraipen hori egingo dula, baño da beste perspektiba bat. Ez daka zerikusirik ordun zekazun sasoia mentala, fisikoa... nik oain, mentala tarteka ta fisikoa oso tarteka ya. Osea, indar falta bezela nabari det. (ESPERANZA)

Esperanzak dioen moduan, gatazkan zuzenean parte hartu ez, baina senide edo lagun bat “lehen lerro” horretan egon izanak, nolabait eragin die beraiei ere aldaketa egunerokoan. Norberaren erabakia izan ez denez, gainera, barne kontraesanak sortu dizkie, eta askotan, aurretik ere bazituzten gatazka propioekin korapilatu dira euskal gatazkaren ondorioak. Are gehiago, lehenago ere aipatu moduan, gatazka baten zentralitateak ikusezin(ago) bilakatzen ditu bestelako gatazkak, eta ezin albo batera utzi genero sistemaren ondoriozko gatazkak erabat zeharkatzen duela euskal gatazka ere. Elkarrizketatutako guztiek, Estitxuk izan ezik, gizonezko senide edo lagun bat izan dute euskal gatazkaren parte hartzaile, eta

hortaz, ikusi ahal izango dugun moduan, ama, bikotekide, arreba edo alaba izan, indartu egin dira emakume hegemoniko moduan hartu duten rola. Alegia, indartu egin da genero sistemak ezarritako sexu-genero rol eta estereotipoen banaketa. Hala, ikerketan parte hartutako emakumeen kontaketa agerikoa da Zuriñe Rodríguez (2016) ikerlariak egindako bereizketa: *full-timeko militante gizonak VS full-timeko emakume zaintzaileak*. Edonola, ikusi ahal izango dugunez, bereizketa hori “berezko” sentitzen dute zenbait elkarrizketatuk, areago, Jule Goikoetxea ikerlariak (2015) zioen moduan, polarizatu egingo dituzte jarrera horiek. Beste batzuek, aldiz, korapilo moduan bizi dute, eta sarri ezeroso eta gutxietsita sentituarazi dituzten jarrerak ere jasan dituzte horren harira.

6.1.1- Zaintzaileak, muinetaraino.

Elkarrizketatutakoek aitortu dute eraldatu egin zaiela egunerokoa beraien senide edo laguna gatazkan bete-betean harrapatuta zegoela jakin zutenean. Horietako zenbaitek, erabateko zaintzaile papera hartu dute orduz geroztik. Areago, ama moduan, edo arreba moduan “berez” dagokien zerbait dela azpimarratzen dute, eta nabarmentzen dute egiten duten hori ez dutela erabaki politikoagatik egiten, zaintzaile den edonork egingo lukeela baizik. Batik bat atxiloten ostean eta kartzelaldi luzeetan areagotzen da barruan dagoen horrekiko arreba mantendu nahi izatea. Horretan bat egiten dute Rosaren, Esperanzaren eta Arantxaren kontaketeak. Esperanzak eta Arantxak, gainera, ama izatearekin lotzen dute euren semeen egunerokoa arintzen hartu duten zama eta lana.

Desberdina da izatea senarra (kartzelan) edo seme bat edo alaba bat. Esateizut ez da berdina. Eztakit nola esan. Gogorra da seme batekin zu bakarrikan geatzen zeanean kalia, baina zeharo deberdina da semea kartzelan sartzen denean. Bat zuria da, eztakit... nei askoz gogorragua egin zitzaiten. (ARANTXA)

Hala, ama-zaintzaile rolak zenbaterainoko garrantzia duen ere agertzen da bien arteko solasaldian. Jabetun dira semeen zaintza sarea zabalagoa dela, baina sentitzen dute ardura hori, semearen kanpoko sostengua izatea. Hain zuzen, biak dira, besteak beste, bisiten zerrendaz eta kanpoko artaz (abokatuak, medikuak, herriko militanteekin

harremana...) arduratzen direnak. Gainera, dagoeneko 70 urtetik gora dute biek, eta badute beldur hori, ikusi ahal izango duten semea espetxetik libre. Halaber, beldur horri gailentzen zaio kezka bat: ea haiiek bizirik egongo ote diren, “antolatu ahal izateko” espetxean ez ezik, semearen bizia, espetxetik ateratzen denean ere. Hala diote:

Ikusten dezu ya urte batzuk pasa dirala, gu ere ari geala urte batzuk hartzen... eta nik behintzat beti pentsatzen det, ba nahi nuke ikusi etxean, ezta? Eta esaten dezu, posible izango da etxean ikustea? (...) Orain pentsatzen det aber ikusikoeten etxian ni hil baño lehenago. Ematen du zu faltatzen bazea, geldituko direla umezurtz o ezta, ordun bai, nei horrek emateit gauza edo. Normalian ez tet esaten dakatela barruan gauza hoi. (ARANTXA)

Nik hori ez, baino dena antolatuta utzi nahi diot. Lana edukiko du? Bizitzeko nola ingo du? Ez dakit zer nahi dioten antolatu, baino... bueno bueno bueno. (ESPERANZA)

Eta, rol hori hartu izanak, hain justu, kontraesanak eta barne gatazkak sortu dizkie. Izan ere, amaren (eta, berariaz, zaintzailearen) papera ongi bete ote duten zalantza egiten dute sarri, eta semeak hartutako erabakiarekin kulpabilizatu izan dute bere burua. Areago, beren burua ere kulpabilizatu dute semearekin haserretzeagatik. Esperanzak gogoan du semeak alde egin zueneko sentsazio hori. Ama moduan bere papera bete ez ote zuen galdetu izan dio askotan bere buruari:

Jun ondoren jakin nun jun zala. (...) Nahigabe kristona izan nuen pentsatuz ez nuela ya ikusiko edo ez dakit. Egoera oso latza da, oso latza, ta gainera pentsatuz aukerak bazeuzkala bizitzan aurrea ondo iteko. Ikasketak bukatuta, lana bazeukan, gutxina pentsatzezuna holako erabaki bat hartzea (...). Enun pentsatu nola etzian esan lehenao. Pentsatu nun non eondu nintzan ni ordurarte hoi ez kontuatzeko. Nun eondu naiz ni? (ESPERANZA)

Era berean, Esperanzak lotzen du semearen atxiloketa berriz ere zaintzaile rola (edo ama rola), ongi kunplitu ahal izango duen etapa berri batekin. Hori sentitzeagatik ere, errudun egiten du bere burua; nahiago baitu semea espetxean eduki, eta arreata eman, ez eta semea non dagoen ez jakin eta ezin ezer egin bera hobeto ikusi ahal izateko:

Igual ni egoistagoa naiz. Ni enteratu nintzanian (atxilotu zutela) txarla batian nengoen, eta mahaian zeudenak etorri zian zuzenean abixatzera. Eta nik pentsatu nuen: ba ikusi ahalko det, lagunduko diot behar duenarekin. Eske ze... ze gauza ezberdina. Nola liteke maitatu tope eta nik beste sentimendu batzuk edukitzea. Lehen iruditzen zitzaiten beharra izango zula, eta ezin nion lagundu. Eztakit, egoista pura naiz. (ESPERANZA)

Jakina da presoaren sostengu sare handienetako bat dela familia. Baina elkarrizketatuek diotenagatik, amak edo familiako emakumeak dira (bikoterik ezean), sostengu horretaz arduratzen direnak. Eta, hain zuzen, sare trinko horretan sartzea, zaila bihurtzen da batzuetan, “kanpotik” datozen beste kide batzuentzat. Nolabait presoaren zaintzaren ardura monopolizatu egin dutela sentitzen dute presoaren lagunek edo bikotekideek:

Familia barruan bazeuden pikeak. Ze klaro, lau arreba dira, ama eta aita, nahiz eta gutxi zihoan osasunez gaizki zegoelako, eta gero iloba guztiak. Eta gogoratzen naiz holan ezagutu nuela Rosa, bisiten zerranda eramaten zuena zelako. Oso zaila izan zen lehenengoz bisita bat lortzea. (KORO)

Espetxetik kanpo ere, amaren zaintzaile rol horrek nola iraun duen ohartarazi du Korok. Eta, aitortu du, horrek, nolabait sentiarazi diola babes sare hortatik kanpo denbora luzez. Hain justu, berak ere ama-zaintzaile rola erreproduzitu duenean sentitu da familiako beste baten moduan:

Familian nintzen “la chiquilla”. Eta hori urte askotan. Bueno , bere amak beti. Alabekin eta familia moduan ikusi gaituzten arte, horrela izan da. Osea ona nintzen, baina él se merecía lo mejor. Eta orain naizela irakaslea, ona, eta ikusten nautela tribunal zuzendari, orain bai. Lehen nintzen una pringada, eta bera ez, bera zen intelektuala, zaindu behar zena. (KORO)

Esperanzak eta Arantzak, neurri batean, asumitu dute zaintzaile rol hori. Ez, ordea, gogoz, Korok, Izarrek eta Estitxuk. Ondoko atalean ikusiko dugu nola, gatazkan parte hartu duen gizon horiekiko zaintzaile lana egin beharrak, eta “bere mesedetara” dagoen emakume izateak egonezina sortu dien azken hiruei.

6.1.2- Zaintzaileak, halabeharrez

Azken bisitan kexatu gira aitarekin, erraiten bainion nire ahizpa gaztea hartzen ari zela ardura asko bere adinerako. Nik hartu izan dut hori urteetan, eta pizua da. Aita ez da ohartzen, mais, erran diot lan handiegia dela. Nik badakit zer den urteetan pisu hori ukaitea, eta ni aldendu naiz mundu abertzaletik hortako. Orain ez dut nahi nire ahizpa gaztea hola ibiltzea.
(IZAR)

Aurretik esan moduan, gatazkan zuzenean parte hartu duen senide horren hurbilekoek zaintzaren zama ere berekin daramate. Areago, familiak edo lagunek baino, hurbileko emakumeek sostengu lan hori bete dutela azpimarratzen dute elkarrizketatuek. Isilpeko lan horren garrantziaz ari da Rosa ondorengo aipuan. Izarrek berriz, ongi adierazten du urteetan aitaren egoeraren berri ematearen ardura, bisitak antolatzearena... pisutsua egin zaiola. Hortaz, aurreko atalaren kontrastean, emakume-zaintzaile juntadura horrek hainbat buruhauste sortu dizkiela ikusiko dugu:

Ves? Volvemos a lo mismo. Esa red de apoyos siempre ha estado comandada por mujeres. Hay hombres, que los hay... pero la sensibilidad, siempre ha estado siempre a flor de piel en las mujeres, son las que han hecho mover carros y carretas. (ROSA)

Baina, full-time-ko zaintzaile rol hori hartzeaz gain, urteen poderioz euskal iruditeria kolektiboan sortu da emakume (ama-alaba-bikote) zaintzailearen irudi hori ere; *gudari*-aren irudiaren kontrastean (Etxebarrieta, 2016). Eta horrek, kanpora ere egin du emakume horiek “norbaiten” zaintzaile bilakatzea eta sozialki alboratzea benetan nor diren. Ondorengo aipuetan ikusiko dugun moduan, gatazkan inplikaturik dagoen horren hurbileko senide edo lagun emakumea izateak eragin handia izan du bai Kororen eta baita Izarren kasuan ere. Ordea, batek bereari eusten dion arren, besteak bere izate hori ukatzen du benetan nor den munduari erakusteko:

Mintzen nau pentsatzea hori, bisitan zoazela besteak desahogatu behar duelako. Tu eres un producto hecho para satisfacer las necesidades de una persona que ha dado todo por una causa mayor que nosotros. Hori pentsatzen duen jende asko dago, eta holako asko herria

agintzen egon dira, herrietako zinegotziak... ostia, aldatu behar dugu gizarte hau, eta asko demostratu behar dugu guk, guk (emakumeok) sinistu behar dugu que no les necesitamos, beraiekin baldin bagaude, beraiekin egon nahi dugulako dela. (...) Mutil gazte bat badoa bisitatzen preso batengana, badoa porque claro “esta totalmente convencido”. Emakume gaztea badoa, eta baldin badoa, esta totalmente convencida? Edo le han engañado? Joder eso me duele mogollón. Que pasa, ez dudala erabakitzen nik? (KORO)

Behar nuen aldendu mundu hortatik, eta behar nintzen sentitu ni, inoren alaba izan gabe. Hortako joan nintzen kolegioaren ondotik lizeo frantseserat, eta urteetan esan nuen nire aita Espainian bizi zela, ez nuen erraten egia. Frantses munduan ibili naiz, frantses lagunak eta bikotekideak izan ditut, eta aldendu naiz mundu abertzaletik. (IZAR)

Alegia, indarrean dagoen zaintzaile-harreman sexo afektiboen kudeatzaile iruditeria horren jabetun izan dira bai Koro eta baita Izar ere. Eta ohartzen dira emakume izateak eragina izan duela gatazkan inplikaturako horrekin sortutako harremanean. Barne gatazka ez ezik, maila sozialean ere ezinegona sortu die, eta horregatik, batek eta besteak martxan jarri dituzte estrategia ezberdinak rol horrekin hausteko. Korok lanaren bidez berretsi du bere izate propioa. Izarrek, berriz, bere izatea “ukatu” du zenbait urtez, gazteagoa zenean, bere ibilbide propioa egin ahal izateko.

Aipatu dut “ama-ona”-ren rola bete betean harrapatzen dituela euskal gatazkan inplikaturata seme edo alaba izan duten horien amak; bai behintzat Esperanza eta Arantxa. Baina, Estitxuk azpimarratzen du, hain zuzen ere Korok zeharka kontatzen duena: badagoela estereotipo konkretu bat presoek bikotekideen inguruan. Oihana Etxebarrieta ikerlariak ere aurrez landua du gaia Borroka armatua eta kartzelak liburuan (2016). Estitxuk hala dio:

Presoen bikoteak figura bat izan dira, ez hemen bakarrik (...). Bikoteek presoak ezin zuten utzi, hori uste det hemen ere izan dala... hala sentitzen zan. Nik ere nire bikotea eduki nuen kartzelan, eta pentsa, nik pentsatzen nun harreman hori bukatu behar nula, baino kartzelan zegoen bitartean, ba ez. Ezin dezu abandonatu. (ESTITXU)

Beraz, elkarrizketatutako emakumeek sentitzen dute, alde batetik utzi diotela nor izateari, norbaiten ama-alaba-bikote-lagun izateagatik, baina era berean, ordura

arte izan gabeko ardurak hartu behar izan dituztela gatazkan inplikaturako horren sustengu afektiboa, emozionala eta materiala bermatu ahal izateko. Lan hori, ordea, politikoa izanagatik ez da errekonozitu, eta elkarrizketaturako askok egozten diote hori emakumeek egindako lana izateari.

Gainera, bai eurek ere “lan inkondizional” gisa sentitzen dute zaintzarena, eta ez dute espero inoiz halako aitortzarik. Hala uler daiteke Mila Amurriok eta Ane Larrinagak (2012) azaltzen duten moduan, nola ez den egia emakumeek parte hartzen ez dutela: parte hartu bai, baina ezkutuko lanak egiten dituzte sarri, eta hortaz, ez da errekonozitua lan publiko eta politiko moduan. Ezinbestekoa da, beraz, jarduera politikoarekiko adierazpenak aldatzea. Honela bizi dute ikerketako subjektuek lan publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia hori:

Es como las tareas de casa, o como las tareas de los cuidados de los hijos, o como las tareas... se supone que es lo que te toca. Es un trabajo que no está reconocido, y pienso que hay cantidad de mujeres trabajando duro, durísimo, en cantidad de aspectos, y a la hora de dar la cara, pues mira quienes son siempre. (ROSA)

Gainera, bai emakume-zaintzaile rola bururaino eraman dutenek, eta baita horrekin hautsi nahi izan dutenek ere, aitortzen dute egindako lanaren balioa, eta era berean, ohartarazten dute inork ez duela lan hori aintzakotzat hartu. Halaber, ez dute sentitzen errekonozitua izan behar duenik, azken finean, “berez” egitea dagokien lana baita:

Nik ustet beantzat inportanteak geala, ama ama da. Hori pentsatzen det, betidanik. Zuk eraman dezu, zuk atera dezu (...). Nik uste det aportatzen diozula. Gainera, guk daukagu beste sentido bat, desberdina dana, orduan zuk segituan nabarmentzen dezu zer daukan. Eta nik uste det hori daukagula ez ama, emakume bezela. Nik pentsatzen det hori hala dela. (ARANTXA)

Nik eman diot ama batek edozein semeri emango diona. Zerbait barrutik ateatzen zaizuna da. Inork ez dizu obligatzen, eta gainea zu ondo egoteko, horrek ematen dizu zu ondo sentitzea. Nik ez banioke dedikatuko, edo ahaztuko banu, ez nintzateke ondo sentituko. Ni ondo sentitzeko behar det hor, presente. (ESPERANZA)

Alegia, euskal gatazkan senide edo lagun bat inplikaturata izateak, halaber, ekarri die elkarriketatutako emakumeei *full-time* zaintzaile bihurtzera, eta, ondorioz, are gehiago indartu da genero sistemaren araberrako rol eta estereotipoen banaketa. Ikerketako subjektuetan, bi jarrera izan dira rol horien atxikitzearen aurrean. Batetik, badaude muturreraino eta polarizatuta rol hori asumitu dutenak (Arantxa eta Esperanza dira kasurik argienak). Aldiz, badira rol horren aurrean deseroso sentitu eta horrekin hautsi nahi izan dutenak; nahiz eta horrekin hausteko norberaren estrategia ezberdina izan. Horren adibide ditugu Koro eta Izar.

Edonola, azpimarratzekoa da barne gatazkak ez ezik inguru hurbilean ere sekulako eragina duela sustengu sareko emakumea izateak. Hain justu, elkarriketatutako sei emakumeek askotan darabilte bai “amek” eta bai “bikotekideek” ere jokaleku propioa dutela gatazkan bertan. Badirudi gatazkan inplikaturatuko *ama zaintzaile* eta *bikotekide inkondizional* rola ongi errotuta daudela, eta lotzen dutela “emakume on” izatearekin.

6.2- Biolentziaren hamaika ertzak.

Genero sistemaren araberrako rolen atxikitze estuaz gain, ordea, ikerketako sei subjektuek ere jasan dituzte gatazkaren ondorioak, eta egoera biolentoak eta indarkeriazkoak bizi izan dituzte. Arestian aipatu moduan, ikuspegi feministatik biolentzia beraren kontzeptua birpentsatzea da helburua, kontuan hartuz emakume hauek, gatazkan inplikaturatuko senide edo lagun bat izate hutsagatik zipriztindu dituela indarkeriazko testuinguruak. Halaber, aitortu behar da modu berezitan eragin diela gatazkak. Alegia, ez dute soilik gatazkak berez dakarren indar armatuen (alde bateko zein besteko) errepresioa eta biolentzia jasan. Aitzitik, emakume izateak esplizituki sexualizatutako indarkeria (Mendia, 2012) pairatuarazi die emakume hauei, eta bestetik, orain arte kontuan hartu gabeko, eta aitortu gabeko bestelako indarkeriak ere bizi izan dituzte. Hori da ezkutuko biolentzia, eta horri ere arretaz erreparatuko diot ondorengo lerroetan.

Aipagarria da, alde bateko zein besteko (ETAko militante izandakoen senideen eta ETAk hildakoaren lagunen) emakumeek jasandako biolentziak antzeko patrioiak jarraitzen dituela, eta batik bat aldagai bat dela gehien errepikatzen dena: beldurra. Beldur hori, gainera, askotan ez dago lotuta beren bizipen propioekin; gatazkan zuzenean inplikaturako senide edo lagun horren segurtasunarekin baizik. Beraz, indarkeria bizitzeakoan ere, argi gelditzen da ikerketako protagonistek lehenetsi egiten dutela beste horren babesa, beren propioa baino lehenago. Errekonozimendurik ezak, ezikusi bihurtu ditu andre horiek bizitako hamaika ertzetako biolentziak. Dagoeneko, baina, nazioarte mailan hainbat ikerketek jaso dituzte andreek jasandako indarkeria forma propioak (Ruta Pacifica de las Mujeres, 2012; Mendia, 2012, 2013, 2016; Martin, 2009...). Horregatik, lehenago aipaturako biolentzia modu horiek hartu eta dagokigun testuingurura moldatuta, azterketa egingo dut nazioartean erabilitako aldagaiak kontuan hartuz. Hortaz, hiru ataletan banatuko dut ondorengo analisia. Lehenik, biolentzia Bourgoisen arabera ulertuta, gatazka politiko batean estatuko indar armatuen, zein testuingurua aldatu nahi duten eragile armatu horien ondorioz eragindako biolentziaz arituko naiz (2004). Ondoren, emakume izateagatik propio jasandako indarkeria sexualizatuaz arituko naiz. Amaitzeko, indarkeriaren beraren kontzeptu are zabalagoaz arituko naiz, gatazkan inplikaturako senide edo lagun bat izateak emakume horien egunerokoan izandako eragina aztertzeko (familiar dela, lagunekin dela, lanean dela...). Nabarmentzekoa da, era berean, emakume horiek ez dutela soilik aurkako parte hartzaileen indarkeria jasotzen. “Talde barruko” biolentzia edo erasoak ere bizi izan dituzte.

6.2.1- Indarkeria bada periferian ere

Oroitzen dut joan ginelarik aitaren epaiketa bat ikustera Madrilerat. Jarri ginen salaren gibelaldean, eta bost tipok inguratu gintuzten, eta galdegin genien zer ari ziren. Erran ziguten segurtasunarentzat zela, gu babesteko. Salan zeuden biktimen elkartekoak. Aitak irriño bat egin zigun eta ez zuten suportatu. Trufak, irainak, mespretxuzko begiradak... bazen gorrotoa bere begietan. Oso gogorra izan zen. Bai, biolentoa. 15 urte izanzen nituen. (IZAR)

Gatazkaren erdigunean ez egonagatik, eta ikusezin bihurtutako subjektu izanagatik, emakume hauek bizi izan dute indarkeria modu erabat zuzenean. Nahiz eta

beraiek, hasiera batean, biolentzia bezala ez definitu, agerikoak dira zantzuak eta ondorioak: beldurra, egunerokotasunaren aldaketa erabatekoa, kontrola, eta baita zuzeneko jazarpena ere. Bateko eta besteko andreek antzeko egoerak bizi izan dituzte. Ondorengo aipuetan ikusiko dugu bi aldeetako idar armatuen jazarpenaren beldurrak nola eragina izan duen elkarrizketatutako andreen bizipenetan. Alde batetik ditugu Koro, Esperantza, Arantxa, Izar eta Rosa. Bestetik, Estitxuren testigantza dugu.

Pero vives... malvives. Yo tengo el recuerdo de muchísimas noches. Yo de hecho, sobre todo mi padre, empezó a pasar en casa muchas temporadas conmigo. Yo siempre me he considerado una persona muy equilibrada, y ahora pienso que he tenido que ser fuerte. Porque (siltasuna). Cuando ibamos y veníamos de Iparralde, yo siempre he pensado: tarde o temprano me iba a tocar. Que me iban a venir y me iban a pegar un buen susto. Y si solo era un susto, ni tan mal. Osea llegabas a aceptar cosas que no eran normales. Yo cuando hablaban de terror... A mi me generaban terror, y me generaban mogollón de inseguridad. (ROSA)

Nik neregatik bildurra ez tet sentitu, sentitu det seme alabengatik, egitea zerbait geo errepresalia bat izatea. Neretzako bildurra? Ez. Nahiz ta esaten dezuna, etxe ondoan zenitun han jarrita, eta pasatzen zian ta... Jarraipenak bai izan ditugu (...) Guk denboa pilan izan degu etxean kotxe bat, de kontinuo, (...) juxtu hartzen zigula etxe frentea. Kontuatzen zinan, ta portalea jeisten zinanian ba beidatzen zenion komo, bueno beidatzeizut badakitelako zein zean. Baino esaten dizutena, sentitzen dezu bildurra, baino gehio seme alabengatik (...) Beaiiek beidatzen zuten kotxe azpin, eta guk kon mutxo disimulo, baina ere begirutzen genun bazpare ea zerbait genekan. Nik uste det bolada batez zerbait eduki degula. (ARANTXA)

Nik bildurre bildurre... onbre, igual gauez etxe ataria iritsi ta esaten nun, hemen ez da inor egongo zain, etaz? Halako zea bat bai. Edo kotxen tarteka, aber badaezpada ere, eztaikit eh... baño ez. Oso oso axaletik. Onbre, logika badu. Batetik, ETak in ditu gauza batzuk sekulan pentsatuko ez zenitunak. Yoyes hil du, eta joe ya... logika; zuk ustezenun logika, hautsita, ba... (ESTITXU)

Beldurra, beraz, eguneroko sentimendua bilakatu da elkarrizketatutako sei andreentzat. Baina, sentsazio hutsa izatetik urrun, bizi izan dute zuzenean ere indar armatuen biolentzia hori. Etxeko miaketeetan, autoak gelditzerakoan edo espetxera bisitan joandakoan, elkarrizketatuek zuzenean jasan dute estatuko indar armatuen biolentzia. Bourgoisek (2004) azaltzen duen estatuetako egiturek eragindako biolentzia

horren zantzuak azaltzen dira, beraz, ikerketa honetan ere. Dagokigun kasuan, hainbat izan daitezke egitura horiek: Ertzaintza, Gendarmeria, Frantziako eta Espainiako espetxeetako funtzionarioak eta militarrek, GAL, Guardia Zibila... Horietako batzuk elkarrizketatutako andreen aipuetan jasotzen dira. Errepresio gisa definitzea kostatu arren, aitortzen dute jazarpena bizi izan dutela:

Berdin zaie haurra ziren, gaztea ziren edo heldua ziren. Nehoiz ez dugu ukan begirada on bat. Beti mespretxuz, beti azkenak gira bisitara sartzen, haurrarekin joaten naizenean ere bortxaz jokutzen dute gurekin. Ez dute sentsibilitaterik, eta ohartzen zara preso sozialen senideekin ez direla hola. Beti izan da hola gartzela, eta hola izango da, seur. (IZAR)

Kasu honetan, Izarrek kontatzen du espetxeetako funtzionarioekin izandako harremana biolento gisa definitzen duela. Izan ere, 28 urte daramatza kartzelara bisitan joaten, eta haur, gazte, heldu eta ama gisa ere espetxe barnean egon denean, deseroso sentiarazi dute aldiro. Baina, kartzelazainak ez dira emakume hauei bortizkeria eragin dieten bakarrak. Hona Arantxak Guardia Zibila etxera etorri zen horietako batean bizitakoa:

Azaldu zian 12tan. (...) Atxiloketa batzuk izan zian eta, eta hoi dena, eta zaude ya bildurrez, eta atia jo zuten, eta esan nun, buf ya badatozte, eta ireki nun atea, ze total, bota ingo zuten (...) eta ras, sartu zian barrua, eta etxe guztia, eta eskailera guztik, eta jarri zuten pegatina beltza ez ikusteko kanpotik. Ya sartu zian, jun zian beste semearen gelara, atera zuten handikan, eta ya joka hasi zian, ni jarri nintzan erdin eta esan nien: "Ikutzen badezute berriro" eta haiek: "buabuabau", esan diet "Como le toqueis...!". Eta ya gelditu ziran (...) Eta beste alaba, klaro 13 urtekin, jarri zan oso gaizki, oso oso gaxki, dardarka, pultsazio batzuk, eske... ta nik esaten nien: "aber uzteko!", esan nien hola ezin zula egon, eta beraiek: "Ya se le pasará", eta nik "que está mal!". (...) Jarri zuten dena hankaz gora. Ze pasa zuten? Ba 5 ordu bai. Gaua hor pasa zuten. Eta gaxki. Geo lanea jun nintzan, eta lanean gaxki. ezin nintzan lanea jun gabe eon, eta hori dana, eta bai bai, izan zan oso gogorra. (ARANTXA)

Hortaz, esan liteke emakume hauek, gatazkaren zentroan ez egon arren, jasan dutela indarkeria, lehen lerro horretan egongo balira moduan. Horrek, giza eskubideen urraketa are larriagoa dakar nazioarteko hitzarmenen arabera (ikus. NBERen 1325. ebazpena), gatazkaren ondorioak bizi dituzten "zibilez" ari baikara. Edonola ere,

jasandako errepresio horrek zantzu politiko erabatekoa dauka, eta soilik gatazkan parte hartu duen norbaiten hurbileko senide edo lagun izateagatik jasan dute indarkeria (Mendia; Guzman, 2016). Beraz, NBEren 1325. ebazpenaren arabera, bizikidetzarako eta gatazkaren ondorioetako txostenetan jaso beharko litzateke andre hauek jasandako indarkeria ere. Areago, errekonozimendua jaso beharko lukete andre horiek edonolako bake prozesutan ere, eta horretaz gain agente aktibo gisa kontuan hartu beharko lirateke. Nazioartean, lehenago aipatu moduan egin dira horrelako saiakerak, nahiz eta akordio hori ez den bururaino eramán. Euskal Herrian, ordea, oraindik periferietako subjektuek jasandako indarkeria hori aitortzeko bidea apenas urratu da.

Butlerrek (2010) esan bezala, ordea, gatazkak iraun bitartean, eta gaur egun ere, ondorioen analisia eta memoria jasotzerakoan, axolarik ez duten gorputzak eta bizipenak dira emakume hauenak, eta modu horretan uler liteke nola zuzeneko errepresioa bizi izanda ere, ez duten ahotsik memoria kolektiboaren eraikuntzan ez eta aitortza publikoetan ere. Espazio publiko eta pribatuaren arteko dikotomia indartuta, etxean eta maila pertsonalean bizitako gertakari horiek testuinguru soziopolitiko konkretu batean jartzea kostatzen da oraindik, eta hortaz, gai politiko baten gisa jasotzea eta aztertzea ere bai. Baina, biolentzia zer den definitzeko erabilitako esanahi hegemonikoen arabera ere, agerikoa da emakume horiek jasan dutela indarkeria. Eta areago, Buorgoiek (2004) erabilitako kontzeptuak nire eginda, indarkeria politikoa jasan dutela ere bai. Izan ere, eraso egin duten estatuko indar armatu horiek, helburua dute haien aurka matxinatzen den talde horri aurre egitea, bortizkeriarekin. Kasu honetan, baina, matxinatzen den taldean parte hartzen duen norbaiten senideak eta lagunak dira indarkeria hori jasan behar dutenak. Aurrerago ikusiko dugun moduan, egoerari aurre egiteko erabilitako estrategiak ere bestelakoak izango dira, guda logika androzentriko batetik haragokoak. Ikusezin eta periferiko izan arren, ikusi daiteke, beraz, nola bizi izan duten zuzeneko bortizkeria hori.

Baina, bada gainera, bestelako indarkeria bat, emakume horiek jasan dutena, berezitua, hain justu, emakumeak direlako. Irantzu Mendiaren (2016) hitzei jarraituz, indarkeria sexualizatua deituko diot aurrerantzean. Biolentzia mota horrek berezko du emakumeen aurka egitea, modu berezitu batean, emakume izateagatik. Erabateko kutsu sexista duten praktikak dira horiek; izan andre horiek hiper-sexualizatzea, irain

sexistak ematea, mehatxu konkretuak egitea... besteak beste. Ondorengo atalean aletuko ditugu horiek are konkretuago.

6.2.2- Indarkeria sexualizatua denean

Lehenago ere aipatu moduan, genero sistema indartu egiten da gatazka egoeretan. Hala, bateko eta besteko rolak oraindik ere gehiago indartuz. Horretaz gain, ordea, indarkeriek ere hartzen dute kutsu sexualizatu hori, eta andrazkoak modu berezitan jazartzen dira. Berriki egindako testigantza bilketetan (adb.: Eusko Jaurlaritzak argitaratutako tortura eta tratu txarren txostenean) jasotzen dira emakumeei egindako tortura saio propioak, eta geroz eta gehiago dira halako tratua jasan dutela aitortu duten emakume militanteak (Dañobeitia, 2016). Era berean, testuinguruan azaldu moduan, espetxeratutako emakumeek bizi duten egoera partikularra ere jasotzen dute hainbat kolektibok egindako hausnarketek. Ordea, gatazkaren zentroan egondako subjektu horien bizipenak dira horiek denak, eta inoiz ez da kontuan hartu sexualizatutako indarkeria gisa dagokigun auzian parte hartu duen baten senide edo lagunak bizi izandako hamaika egoera, bortizkeria sexualizatuaren gisan. Egon, egon dira, ordea. Ikerketa honetan parte hartutako zenbaitek aitortu dute emakume izateagatik bizi izan dutela indarkeria sexualiztua. Bai alde batetik, eta bai bestetik, oraingoan ere:

Nabaritzen duzu (funtzionarioen) gorroto hori. “Joder es el sujetador! Y te pasaba, eta jarraitzen zuen pasatzen (raketa). “Te vuelvo a decir que es el sujetador”, y a no se quien no le pita el zapato, y a ti sí te pita. (KORO)

Hombre, yo por ejemplo, me acuerdo de tener que ir a Zamora, Yo siempre llevaba sujetadores de aro, y yo no podía llevar sujetadores de aro. Si me acuerdo una vez que nos hicieron descalzarnos, y yo no me descalcé, pero luego el canguelo que te entra... (...). Ahora, con sujetador sí iba. Porque si te tienes que quitar los zapatos, pues antes o después si tienes que recular, reculas. Pero como te pite un sujetador.. Es que, ¿Qué haces? Quitarte... Eso si me ha pasau. Sentirte... Que estás a su merced. Eso siempre lo he tenido presente. (ROSA)

Nik ustet ETAk hil zula “porque era mía”. Eta aldi berean Yoyesek jokatu zula jokatu zun bezala, emakume modura, bere bide propioa defendituz, bere autonomia, bai hori. Eta ustet

buruzagia zanez, eta gainera emakumea, baina bere garaietako aurreatua zanez, ETAk pixkat horregatik hil zula. Ez naiz analisi gehio itea iristen. Nik feminismo munduan, oinarri oinarrrizkoa bai, baina ez naiz ibili holako taldetan. Nere testigantza hemen bukatzen da, baina zer pentsa ematen du ETAk bere kide ohi bat hil eta hura emakumezkoa izateak. (ESTITXU)

Estitxuk ondorioztatzen du, nolabait Yoyesen heriotzak baduela zerikusia bere emakume izatearekin. Egia da ETako buruzagitzara iritsi zen lehen andrea izan zela, eta egia da, gainera, ez dela ezagutzen ETAk hildako beste buruzagiren baten berri. “Nirea zelako hil nuen” esapideak zalantzarik gabe indar sinboliko handia du, eta aztertzekoa litzateke genero ikuspegitik Yoyesen paradigmaren inguruan esandako guztia. Hala den ala ez den epaitu baino, interesgarria da aztertzea bere emakumetasunak zein nolako eragina izan zuen bere hilketaren irakurketa guztietan. Deigarria izan, bada, behintzat Espainiako hedabideek bere ama izaerara jo zutela bere heriotzaren berri emateko. Gainera, biktimen elkarrekin ere behin eta berriz oroitarazi zuten ama zela Yoyes. Nolabait, *ama ona*-ren rolak gain hartu dio espainiako medioetan ere *terrorista* izendapenari (Rodríguez, 2013).

Hain zuzen ere, emakume izanagatik sexu jazarpena pairatu behar izateaz gain, ama izateagatik ere, indarkeria berezitua jasan duela aitortu dute Izarrek eta Rosak:

Aski zaila da haurrekin joaitea gartzelara. Oroitzen dut Puertora jaitsi ginen lehen aldia. Haurrak bazituen 6 hilabete. Gastroa zuen, haurtzaindegian hartua. Goitika aritu zen gau osoa autobusean (...) Ez zuen jantzi garbirik, eta gainera, espetxean ez dizute uzten ez esnea ez pañalak sartzen. Beraz, nire alaba txikiagoa zenean gutxiagotan jaisten nintzen berekin, ezin duzu deus egin ordu eta erdian, lanjerusa izan daiteke haurarentzat. (IZAR)

Ahora en Zamora sí nos pasó que tenemos una visita, íbamos los 5; íbamos los 3 niños, mi marido y yo. Pasamos la primera puerta y no se que pasó dentro de los módulos que nos mandaron salir y tuvimos que salir, y la siguiente vez cuando fuimos a entrar, nos dijeron que visita máximo 4 personas. Y les dije: “pero bueno, Nos habeis sacado hace una hora”, íbamos 5 con 3 niños, y nos dijeron no 4 personas. Siempre hemos venido... 4 personas!!! Con ninguno de los niños se podía quedar fuera, y yo tampoco, yo era otra! Entonces el único que se podía quedar y se quedó fue mi marido. Aquella vez no nos dejaron entrar los 5. No

sabemos que pasó, pero aún habiendo habido una primera vez que pasamos, luego no nos dejaron. (ROSA)

Agerikoa denez, aipatutako kasuak Espainian gertatutakoak dira. Arantxak eta Esperanzak, berriz, hobekiago ezagutzen dituzte Frantziako espetxeak, eta azaldu dutenez, ez dute zuzeneko indarkeria sexualizatua bizi izan bertan. Espainian, ordea, Arantxak jasan du bestelako indarkeria sexualizatua. Kasu honetan, Interviuk, Espainiako aldizkari batek kaleratu zuen artikulu bat: *ETA-rren ama*. Beste hedabide batzuek ere antzeko erreportajeak idatzi izan dituzte, ETako kide izan diren hainbat senide izan dituen, leporatuta ETaren ama bera dela, besteak beste. Hortaz, indarkeria sexualizatu gisa identifikatu dezakegu hori, izan ere, ama izatearen figura hori baliatu dute zuzenean Arantxari min emateko. Hala kontatzen du:

Nei min handia egin naute, dudik gabe, entraron la alcaldesa eta beste pertsona batzuk, artikulu batzuk atea zianak hor, nik pentsatzen det zenek atea zun. Orain bertan ere atera da, azkeneko epaiketa euki zutena hauek en El Mundo o ezta kitnun Interviuk ekarri zuna garai horretan errepikatu dena. Titularra zan : “De niño a usar las armas”. Azaltzen gea denok (...) ta klaro izan zan... pffff... El País, lo otro... nere semea atxilotu zutenian, nere izena ibili zan “la madre del terrorista”, eztakize... Beste behin pleno batian, alkatesa asko sartzen zan nekin, eta klaro behin ya nik ya saltatu nun, ta esan nion: “Yo estoy muy orgullosa de mi hijo”. Ta ordun titular hoi azaldu zan leku guztitan. (ARANTXA)

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi, indarkeria sexualizatu hori bi modutan jasan dutela elkarrizketatutako andreak. Alegia, indar armatuez gain, sozialki ere pairatutako biolentzia mota bat izan da hain justu sexualizatuarena; batetik, berez, aurkako “bandoa”ren kideek eragina (indar faktikoak: polizia, funtzionarioak, hedabideak...), baina baita “berezko talde”an ere. Emakume izateak zein nolako eragina duen taldean azaltzen du Korok:

Aber, estoy con quien quiero, ez kartzelatik atera delako estamos todas haciendo cola. - Estereotipo horiek mintzen naute (...). Sentiarazten zaituzte ume. Nahi duzuna egiten duzu, baina umea zara ezta? Claro, éstos que han estado tanto tiempo en la cárcel ahora se tienen que desahogar. Ta aber, igual la que se tiene que desahogar soy yo, ulertzen duzu? Eta ikuspuntu hori da gizarte matxista batena.

Eta hori da jazarpen bat. Hor ikusten dut eraso bat, hori da eraso bat, konkretuki emakumeei, - eta emakume gazteei. Nola erasotu ahal diezu? Esaten: "ya si van, claro, van pero van engañadas, tiene que haber un hombre adulto que les diga que vayan" (...) Hor erasotua sentitzen naiz, eta hori askotan egunkarietan, Espainiako egunkariak erabili dute, eta hori mintzeko konkretuki emakume gazte talde bat. Ez? Ez dezagun tontoarena egin, gizarte honetan oso independentista, sozialista, ezta... baina jende askok pentsatzen du ere. Gizartea oso matxista da. (...) Eta hori ez dut berbalizatu zurekin hitz egin arte (KORO)

Korok aipatzen du, nola borroka konkretu baten aurkakoek erabiltzen duten indarkeria sexualizatu kolektibokoaren inguruan dauden emakumeei jazartzeko eta min emateko. Aipatzen du, era berean, hedabideek erabiltzen duten estereotipoa (Arantxaren kasuan ere estrategia komunitatibo gisa uler liteke) oso konkretua dela, bai gatazkan inplikaturako horren bikotekidearen kasuan, baita bere amaren kasuan ere. Baina horretaz gain, ohartarazten du talde barruan ere badaudela halako joera sexistak, eta horregatik exijitzen du hori ere eraso gisa izendatzeko.

Jakina, horrek hautsi egiten du gatazka armatuen aldeko logika. Elkarren aurkako bi bandoren arteko gatazka beharrean, Korok aipatzen duena kontuan hartuz, ohartu gaitezke badagoela talde barruan indarkeria ere, eta hortaz andre hauek jasandako biolentzia gurutzatua dela, eta bikoitza dela; batetik kolektibo konkretu batean kokatu dituztelako (ez dira haiek berariaz kolektibo horren barnean kokatu), eta bestalde, emakume izateak genero sistemaren arabera rol konkretu batzuetan kokatu dituztelako. Gainera, rol horiek baliagarriak izan dira beren lana gutxieteko, iraintzeko edo mina eragiteko. Horregatik, indarkeriak forma konkretuak hartzen ditu emakumeen bizipenetan. Biolentzia sexualizatuak, gainera, zigortu egiten ditu sozialki andre bezala; ikusi ahal izan dugun moduan, maitale, zaintzaile edo ama moduan zigortzen dituzte, bai estatuaren indar armatuek, baina baita inguru hurbilak ere.

6.2.3- Ezkutuko indarkeria, azalera

Orain arte, ohiko indarkeriaren definizio barnean kokatu dute elkarrizketatuek beraiek jasandako biolentzia. Baina, genero ikuspegian oinarritutako nazioarteko beste parametro batzuk kontuan hartuko bagenu (Ruta Pacifica de las Mujeres, Mendia, Guzman eta Martinen azterketen ereduak jarraituta), ohartuko gara indarkeria horrek orain arteko edonolako azterketetan kontuan hartu gabeko formak ere hartzen dituela andre hauen kasuan. NBERen 1325 akordioak ere gomendatzen du ezkutuko indarkeria horri erreparatzea gatazken ondorioen ebaluazioak egiterako garaian. Lehenago aipatu dugun moduan, indarkeria forma horrek egunerokoaren hainbat esparrutan hartzen du lekua: izan lanean, izan familian, izan lagunartean... Marko teorikoaren atalean aipatutako indarkeria adierazpen batzuk dagoeneko landu ditut aurreko ataletan (giza eskubideen urraketak eta emakumeen aurkako biolentzia zehatza, esate baterako), baina ikerketako subjektuek azaltzen dituzte arestian aipatutako beste bortxazko egoera batzuk. Horietako batzuk landuko dira ondorengo atalean: biolentzia psikologikoa, familia eta lagun giroko ondorioak, enplegu arloko bazterketa, bizitza duina ez izatea eta identitate kulturala ukatu beharra. Horretaz gain, behin eta berriz aipatu dute isiltasunaren diziplina (eta horrek dakarren bizi baldintzen prekarietatea) eta kalte ekonomikoa. Beraz, hori ere aztertuko dut Euskal Herriko gatazkaren espezifikidadeak kontuan hartzeko.

Biolentzia psikologikoa

Agerikoa den biolentzia fisikoaz gain, elkarrizketatutako andreek jasan dute biolentzia psikologikoa ere. Hitzez jarri, seitik bakarrak jarri ditu egoerak eragindako ondorio psikologikoak mahai gainean. Aitzitik, beldurrez eta kontrolaz hainbeste urte bizi behar izateak, agerian uzten du andre hauei eragindako ondorioen tamaina. Gainera, beraiez propioko ez hitz egin arren, azaltzen dute nola beren haurrek bizi izan dituzten muturreko egoerak ere, eta horrek kalte psikologikoa eragiteko beldurrez ere nola egon diren. Izarrek eta Estitxuk azaltzen dute nolako eragina izan duen:

Depresioa ukan dut, luze iraun du gainera, mais luze eh. Hor ohartu naiz ezin nuela segitu erraiten beti dena untsa zela. Luzaz izan dut beldurra abandonatua izaitera. Lagunekin, mutil lagunekin... Beti pentsatzen nuen aitzak bezela abandonatuko nindutela, banuen beldur hori.

Behin erran nion aukeratu zuela lehenik Euskal Herria eta gero bere alabak. Hor utzi nuen bisitatzeari. Eta gero, pasa dudalarik depresioa, ohartu naiz hitz egin behar nuela egoeraz, eta erran behar nuela: gaizki banaiz, gaizki naiz, egoera ez da erraza. (IZAR)

Fisikoki hori bai, Yoyesenaren ondoren, eduki nun, baja hartu bear izan nun, azaleko arazoagatik. Bi aldiz eduki det azalekoa (...) Gero familiako beste arazo gogor baten ondoren egon nintzen horrela, oseake klarisimo. Eta aurretik, izan zan Yoyesenakin, hilabetera. Bueno ba aurpegie dena eskamatuta, bueno enfin (...) Sendatu eta gero dermatologoak esan zidan: "bueno ahora sobre todo tranquilidad eh". Nik eztakit zer kontatuko nion, baina bere ea, konklusioa, ori izan zan. (ESTITXU)

Oraingoan ere, barne gatazkak zeharkatzen du Izar, beste elkarrizketarekin hainbat adibidetan gertatu den moduan. Alegia, ez da soilik kontrako aldeak eragindako min bat, aitzitik, bere egoera propioak sorrarazten dizkio zauriak. Estitxuri berriz, ageriko kalte psikologikoak azaleratu zaizkio fisikoki, medikuak berak hala esanda. Beste elkarrizketarekin ere, ez dute zuzenean arazo psikologiko konkreturik aipatu, baina jabetun dira egoerak eragin diela (edo ondokoei eraginarazi diela) buruhausteren bat.

Yo personalmente, me ha tocado viajar con buen tiempo y con muy mal tiempo, con muchas probabilidades de quedarte en la carretera, y yo estaba llevando a tres hijos. Y vamos, que ni lo habían comido ni lo habían bebido (...). Era recogerles el viernes, ponerte en el camino el sábado y volver el domingo. A los niños les estabas quitando mucho. Igual me lo planteo más ahora que antes. Yo que vida les he hecho llevar a estos pobres hijos durante 7 años. (...) ¿Qué les has hecho vivir? Pues experiencias duras, para ellos duras. Ahora te puedes dar cuenta más, pero yo creo que emocionalmente... les habré metido alguna carga durante unos cuantos años y cuando eran muy pequeños. Tampoco me arrepiento. (ROSA)

Nik ustet azkenen erotu egin nintzala, leku guztitan ikusten nun, gauero ikusi behar nun. Etxea etortzen zanian lo itea, ze Donostin bizi zan, lo mismo le daba, que le daba lo mismo. Ordun nik hoi bisualizatu arte... eske lo veía! Eta beti aitona batekin, eta aitona bizkarretik helduta

berari, hola babesten aitonari bezala. Ta ni esaten, yasta erotu naiz, zeni kontatu behar diot hori ikusten detela? (ESPERANZA)

Ez ez, baina hori gertatzen da eh, denoidi gertatu zaigu hori alde iten dutenian. (ARANTXA)

Eta klaro, kalean ere jarrera aldatzen da. Zu etzea berdina, beti izan naiz oso irekia, orain ez naiz hainbeste, eta urteak dia, hori barneratu itezu... gero gertatzen da. (ESPERANZA)

Ikus dezakegun moduan, egoerak berak eragin die psikologikoki ezegonkor egotera, eta nortasunean berean ere aldaketak izatera. Ordea, gatazken ondorioak neurtzeko ohiko aldagaietan, ez dira kabitzen elkarrizketatutako subjektuak, eta hortaz, biolentzia psikologikoa batzuetan kontuan hartzen bada ere (atxiloaldiaren ostekoak, tortura psikologikoen kasuetan), andre hauen kasuan bizitako indarkeria ez da jasotzen. Horrek are gehiago nabarmentzen du hasieratik aipatutako tesia: andre hauek jasandako biolentzia ikusezina izan da, eta norberak bere kasara aurre egin behar izan dio, inolako egiturak aitortu ez dielako beren mina.

Familia eta lagun giroko ondorioak

Genero indarkeria ardatz duten ikerketek kontuan hartzen dituzte egunerokoan egin beharreko aldaketak, indarkeria moduan. Era horretan, andrazkoek jasandako bortizkeria propioki lantzeaz gain, espazio pribatuko aldaketa eta ezinegon horiek modu politikoan lantzeko aukera ematen dute. Izan ere, bestelako aldagaiak erdigunean jarri ordez, bizitza duin bat aurrera eramateko aukerak eta baliabideak jartzen dituzte zentroan, eta, horrela, ikus daiteke nola egunerokoan familia hausturak edo hurbileko lagun sareak hausteak edo horiek bortxaz aldatu behar izateak eragina izan duen emakume hauen bizi kalitatean.

Elkarrizketatutako sei emakumeek ez dute gabezi nabarmenik izan familian. Alderantziz, familia egitura moduan izan da sustengu nagusia, eta guztiak nabarmentzen dute garrantzitsua izan dela guztiak elkartuta egotea. Beraz, ondorioztatu liteke, seme-alaba-senar-anaia bat gatazkan inplikaturik edukitzeak dakarren zamaz (eta hutsuneaz) gain, ez dela gehiegi aldatu familia funtzionamendua.

Hori uler liteke soilik kontuan hartzen badugu genero sisteman oinarritutako familia ereduak berez dakarrela sendiko andrazkoen zaintzarako erabateko inplikazioa. Modu horretan, ezinbesteko egitura bilakatzen da familia gatazkan inplikaturata dagoen horren biziraupen emozional eta materialerako.

Lagunekin, ordea, ez da beti halakorik gertatzen. Elkarrizketatutakoek, alde batekoak zein bestekoak izan, lagunak aldatu dituzte, edo aldatu dute lagun eta ezagunekin harremana, gatazkaren ondorioz. Guztiek sentitu dute nolabait ezin alboratu dutela gatazkak eragindakoa, eta hortaz, lagunak onartzen ez badituzte, beren identitate propioa albo batera utzi behar izan dutela lagun sarean onartua izateko, edo, bestela, aldentu egin direla giro horretatik. Hala kontatzen dute:

Sortu dira ezin ikusiak. Eta joe, nik batzuetan pentsatzen nuen, ni horrekin ondo konpontzen nintzen. Baina, no puedes ser amiga de todo el mundo, eta onartu egin behar da, zure laguna izateko aukeratu behar badut kartzelan egon den bikotearekin egon ala ez, ba ezikusiarenak ikusi ditut. Ez nik bakarrik, baita nire ahizpak ere. Eta nere alabek ikusi dute ex-presoren baten alaba izatea. Zer egin dezakezu? Ba pasatu. (KORO)

Si, pero bueno, me sale la sonrisa y me sigue saliendo. Osea, con la gente que hemos estado, otro tipo de gente, había quien les decían, ¿Sabéis con quién estáis andando? ¿Sabéis que su hermano está en la cárcel? Y decirte: “¿Tú tienes un hermano en la cárcel?” Y síiiii, y antes refugiau . Y se te quedan así: ¿Y eso? Por pertenencia a ETA. Yo ya es que vamos, osea (barrez), Entonces es cuando dices, si quieres taza, vas a tener taza y media. No decirte que no, pero si antes me veías dos veces a la semana, ya no quedabas ni una, y con el tiempo, pierden tu amistad (ROSA)

Osoko bilkura zan, Ordiziko udaletxean, Yoyesen aldeko agiri bat onartzeko. Hil zutenetik berehalaxe, bi egunetara edo. Oso zea gogoan dauket sentipena. Hor bai , ez mehatxu baino , jode, ikusi nitun aurpegik, besteak beste nere herrikon aurpegik, ze esateizut Goierri da, baino gorroto aurpegik, nahita jarritakuak bai ikusit

Hori baino urte batzuk lehenago ni españolista etiketakin gelditu nintzen, ta bate grazirik ez zian- iten, baño bueno, nik banekin ez nintzala batere españolista. (ESTITXU)

Estitxuren kasuan, gainera, muturreko egoerak gain hartuta, lekualdatze behartua egin behar izan zuen, beste herri batera. Hori ere, albo kaltea litzateke biolentziaren kontzeptualizazioa genero ikuspegitik aztertuko ez bagenu. Indarkeriaren ohiko adierazpen gisa jasotzen dute, ordea arestian ere aipatu ditugun nazioarteko ikerketek:

Hil zuten urteko urrian hasi nintzen hedabide horretan lanean, erabaki nun Durangon pisu bat bilatzea (isiltasuna). Berez tokatu zitzaidan Durangon bizitzen gelditzea, eta hori etorri zitzaidan oso oso ondo. Donostin ez neuken giro onik, ez nintzen sentitzen eroso. Donostin ordun bizi nun girotik alde in beharra sentitzen nun. Lagun batzuk ETArekin aldekoak ziren, bueno, gehienak giro horietan ibiltzen ziren, eta bai bai, lagun minen bat egon zan eta... hor hautsi genun harremana. Gogorrena nik ustet kasi gertuenetik izan nula. Gogorrena sentitu nuna gertunekokin hauste hori. (ESTIXU)

Ikusi litekeen moduan, familia egitura oinarrizko zaintza sare gisa mantendu da aldi guztietan, baina laguntasunak eraldatu egin dira emakume hauen inguruan gatazkaren erdigunean senide edo lagun bat izan duten unean. Batzuetan erabaki beharrean sentitu dira, zeinen alde jarri, senide edo lagunaren alde, ala inguruko ezagunekin. Lotura emozional estuak, eta muturreko egoeretan sustengua eman beharrak, ia beti jarri ditu andre hauek gatazkan inplikaturako kidearen alde, nahiz eta horrek zenbait lagunekin harremana moztera eraman dituen.

Enplegu arloko bazterketa

Nazioartean, aipaturako eragileek emakumeek gatazka egoeretan bizitako indarkeriaren beste adierazpide baten gisan jasotzen duten lan munduratzeari bizi izandako bazterketa. Batetik, independentzia ekonomikoa kentzen die, bestetik beren bizi propioa egin ahal izatekoa. Euren erabakimena izan ez arren, gainera, gatazkaren periferian kokatu arren, ikerketako subjektuek jasan dute lan munduko bazterketa. Esperanzak, Rosak eta Arantxak izan ezik, gainontzekoek trabak eta oztopoak izan dituzte enplegua eskuratzeko unean, soilik gatazkan zuzenean inplikaturako kide baten senitarteko edo laguna izateagatik. Hona hemen aipu esanguratsu batzuk:

Nik garai horretan lan egiten nuen leku askotan, eta esaten nuenean Getxokoa nintzela, eta hau eta beste, eta esaten nuenean ezagutzen nuela preso egondako nire bikotekidea, aldatzen zen jendearen jokabidea, bai. (KORO)

Ez nintzen ohartzen nire aitarenak eragiten ahal zuela lana ez ukaitea. Pasa nuen konkurtsoa, baina lan hori ukaiteko pasa behar nintzen psikologotik, eta ez naiz nehoiz izan psikologoan. Eta ez nekien dena erran behar nion ala ez (...), eta erran nion nor zen nere aita, eta dena. Ez zidaten eman lana, eta gero jakin nuen horregatik ez nuela ukan. (IZAR)

1987an izan zian ondorengo lehenengo hauteskunderik, Europakoak zian ta nere hedabideak jarri nindun HBn kanpaina segitzeko. (...). Arduradunei ez nien ezer esan, baina burutik pasa zitzaidan pertsona non grata izango nintzela batzuentzak. Mitin bat kubritzea jun nintzan, eta eukinun holako kontu eskatze bathan zegon baten aldetik. Neri esaten zidan ia nolatan jarri ninduten HBko kanpaina jarraitzeko. Kontu eske hori hedabideari egin behar zion ezta? Eta aldi berean nik defendatzen nun, ni kazetaria naiz eta politizatua izan arren nire lanean badakit zein parametrotan mugitu behar garen. (ESTITXU)

Agerikoa da emakume hauek, gatazkan zuenean parte hartu ez badute ere, ondorio materialak ere izan dituztela, enplegua eskuratzeko izandako oztopoak kasu. Erabakimen propioz euskal auzian parte hartu ez badute ere, beren bizitzetan autonomo izateko ezinbesteko faktore bat kolokan jarri zaie; enplegua eta askatasun ekonomikoa. Horrek egunerokoan sekulako eragina izan du, eta zaildu egin du bizitza duin bat eramateko gaitasuna. Batetik, gatazkan inplikaturako senide edo gertuko lagun horren babes ekonomikoaren hutsunea bete behar dutelako, eta bestetik hura bisitan joateko ezinbestekoa dutelako iturri ekonomiko hori.

Identitate kulturala edo propioa ukatu beharra

Gatazka egoeretan iraun duten emakumeek sarri ukatu behar izan dute beren identitate propioa, edo ukatua izan zaie beren identitate kulturala. Horrek ezegonkortasuna sortzeaz gain, norberaren izatearen urraketa bat dakar. Izan ere, aldaketa horiek, maiz, lagunak, lana, eta finean, bizitza duin bat izan ahal izateko egiten dira. Norbera den bezala izateko aukera ukatuta, oinarrizko eskubide bat urratzen da, eta hori ere jasotzen da aipaturako txosten eta ikerketetan biolentzia forma

baten moduan. Ukatze horien aurrean, badira jatorrizko identitatearekin eroso sentitu direnak eta etengabe defendatu dutenak. Beste batzuek, ordea, momentuko taktika bide moduan erabili dute identitatez aldatzea, hain justu indarkeriazko egoera posibleetatik ahalik eta gehien aldentu ahal izateko. Estrategia konkretuen eta indarkeriazko egoeren tartean, hemen denbora epe batean identitatez aldatu duten bi andrearen gogoeta:

*Nik mementu batean erabaki nuen mundu abertzaletik aldentzea, eta joaitea lizeo frantseserat. Lagun frantsesak nituen, eta erraiten nuen nire aita Espainian bizi zela. Gezurra erraiten nuen, eta nahiago nuen hori, erraitea baino aita gartzelan zegoela eta nire abizena zein zen. Lagun guttieri erraiten nien egia, eta askok ez zuten untsa ulertzen, beraz nahiago nuen ez erran. (...)
Gero jakin dut, irakasle batek erran zaidalako, bazekitela untsa nor nintzen lizeoan. (IZAR)*

Yo iba a Cartagena a ver a mi marido también y ibamos a hacer el viaje de Madrid a Murcia en autobús, y lo típico, estábamos allí, yo que se, la gente que habíamos viajado juntos en el avión igual ibamos cuatro o cinco, y juntarnos allí con mas gente y “tú de dónde eres y tal y cual” y dije “yo no voy a decir de donde soy”. Y yo, a no” Yo soy Madrileña”. Y luego pensar.. joder, que necesidad. Es verdad que lo haces con veintipocos años, pero... no ser capaz de reconocer, que creo que es verdad que ha sido la unica vez que lo he hecho. Pero no ser capaz de decir, pues no.. “yo soy de Bilbao” y me voy a Murcia. Porque tenía... hubo una época que ser de aquí era conflictivo. (ROSA)

Bai Rosak eta baita Izarrek ere, norberak denbora tarte luzeagoa edo laburrago batean, ukatu dute beren euskal identitatea, alboratu dute inoren alaba edo arreba izatea, egoera deseroso batzuetatik ihes egiteko. Hortaz, erresistentziarako praktika gisa kontuan har ditzakegu; kasik performatibitatearen adierazpide baten moduan. Era berean, ulertu behar da identitateak ere finkoak ez direla, eta moldagarriak eta dinamikoak direla, unean une modu batean edo bestean eragin ahal izateko. Edonola ere, norbera dena albo batera uzten dute biek bortxazko egoerak ekiditeko, eta, hortaz, ezinbestekoa da aipatutakoa ere ezkutuko biolentzia mota baten moduan jasotzea.

Isiltasunaren diziplinaz

Ez Ruta Pacifica de las Mujeresek Kolonbian, ezta bestelako herrialdeetako gatazka armatuen ondorioen azterketan egin diren genero ikuspegiz osatutako ikerketetan (eredu hartu dira El Salvadorrekoa, Guatemalako, Mendebaldeko Saharako, besteak beste) ez da jaso isiltasunaren auzia, baina, kasu honetan beharrezkoa iruditzen zait kontu hori ere jasotzea. Batetik, emakume hauek inolako nahitazko inplikaziorik gabe, behartuta ikusi dute euren burua erabateko diziplinaz isiltasuna gordetzeko, hirugarren pertsona batengatik. Horrek, ezinbestean kalteak, lagun galerak, inkomunikazioa... eragin die, eta beraz beren egunerokoa aldatzera behartuta egon dira. Bestalde, interesgarria da hori aztertzea, ez baita aurkako eragileak eragindako indarkeria. Talde barrutik datorren egin behar bat baizik, eta horrek bi aldiz jazartu dezake ikerketako subjektua: batetik, berak berariaz erabaki gabe auzi baten zentro zentroan kokatzen delako bat-batean. Bestalde, derrigortuta dagoelako bereak ez diren kodigo batzuetan jokatu eta eguneroko moldeak aldatzera. Amaitzeko, nabarmendu behar da elkarrizketatutako guztiek erabat asumituta duten balore bat dela isiltasunarena. Eta seietan errepikatu izanak, atal propio batean lantzeko bezainbesteko garrantzia eman dio kontuari. Elkarrizketatuek, eguneroko adibide xumeekin ongi azaltzen dute nola moldatu duten egunerokoa eta asumitu duten isiltasunaren diziplina, bestea arriskuan ez jartzeko:

Ni momentu horretan , semeak alde in zunian, lanian nengoen. Guk pasa genun 7-9 ilabete beak alde in zunetik inork etzekila e, inork etzekin. Ez nere ahizpak, inork. Nola bukatu zun karrera esaten genun kanpoan zegola iten espezialidade bat ta yasta. Guk gutxienez aukera izan genun despeditzeko. Ta gero ya izan zianen atxiloketak eta atera zanian bere izena, ba bueno, ordun ya bueno (...). Onbre, nere ahizpak zerbait sumatzen zun, ban bueno etzun ezer esaten eta guk erez, bagenekigun etxeokoe besteik ez.(...) Ni lanian nengoen eta ezin malkoak eutsi, baina ezin diozu inori ezer ez esan. (ARANTXA)

Ni gogoratzen naiz lankide bati esan niola, neon bulego batian, bakarrik lana iten, eta negarrez nengoen, ezin nun lana egin, ta klaro, ordutegi bat mantendu behar dezu , eta etorri zan gobernanta, eta esan nion “cosas de la vida”. Pentsatuko zun depresioan nengola (barreak) . Osea, etzea berdina. (ESPERANZA)

El silencio, ese silencio, es otra parte del mal vivir. El no poder tener un contacto directo - telefonico, por ejemplo, o de no saber en una semana como ha estado. Como lo ha pasado. Yo creo que eso si se cerró mucho en el círculo familiar (...) esas cosas por telefono procurabamos no contar. (...)

Una semana santa que fuimos a verle, y estuvimos con él allí. A la vuelta, en la Ikastola les - preguntaron (haurrei) pues a ver que es lo que habían estado haciendo. Y cuando le pregunto a mi hijo, dijo: “Yo, yo e estado en Iparralde, pero no te creas que he ido a ver a ningun refugiado eh, he ido de vacaciones”. (...). El niño era muy pequeño pero si sabía . Luego, la andereño que a sido intima mia, me llamaba y me contaba. (ROSA)

Ikasketaren lehen zirriborroetan *isiltasunaren diziplina* jasotzen ez bazen, deigarria izan da gai bera elkarrizketatu guztiek azaleratu izana. Nolabait, euskal gatazkan inplikaturako senide edo lagun bat izan dutenentzat oinarrizko elementua izan da. Diziplina izateak ez du bortxaz esan nahi emakume hauek nahita hartutako jarrera ez denik. Hala ere, albokaltez jasotako neurri bat izan da, eta horretara moldatu behar izan dituzte beren egunerokoa, jarduna, harremanak, eta izateko modua ere. Horrenbestez erregimen berezi batean bizitzeko modua bere egin dute andre hauek. Zentzu horretan eta “derrigor” egin beharreko zerbait izan denez, atal honetan txertatzea interesgarria dela iruditu zait.

Kalte ekonomikoak

Indarkeriaren atalarekin amaitzeko, beste azterketetan ere jasotzen ez den, baina Euskal Herriko kasurako nabarmentzekoa den kalte ekonomikoaz hitz egitea beharrezkoa da. Izan ere, dispertsioak eragindako diru-itolarrria biolentzia forma konkretu gisa ulertzen dute elkarrizketatutako emakumeek. Modu horretan, gainera, indarkeria sinbolikoaz harago emakume hauei indarkeria faktiko edo materialak ere eragiten diela ikusi ahal izango dugu. Rosak, Korok, Esperanzak, Arantxak eta Izarrek ezagutu dute dispertsio politika, baina, gaur gaurkoz soilik Arantxak eta Izarrek jarraitzen dute sakabanaketaren ondorioak pairatzen. Horrela lortzen du Izarrek hilean behin, gutxienez, aitari bisita egin ahal izatea:

Zenbat pagatzen dudan bidairako? Ba kasik 200 euro autobusean jausten banaiz. Orain batzuetan autoan joaiten naiz ahizpekin edo alabarekin, bestea kario da. Baditut hiru lan, eta horiekin antolatzen naiz alabarekin bizitzeko, pisua pagatzeko eta bidaietako dirua egiteko. Baina esantza, autoruta, gaua... zinez kario da. Gazteagotan batzuetan ezin nuen joan nai nuen guztietan ez bainuen sosik. (IZAR)

Ikusi dezakegun bezala, andre hauen egunerokoa gurpil zoroa da. Batetik, gatazkan inplikaturako senide edo lagun bat izateagatik, askotan lanean ez dute aukerarik. Bestetik, egunerokoari aurre egin behar diote inguru hurbilean kide bat gutxiagorekin (horrek zaintza sarean duen garrantziarekin), baina, hala ere, espetxean dagoen kide horrekin harremana mantendu nahi izanez gero, behartuta daude dirua lortzera, kalte ekonomikoa handia baita. Areago, harremana mantenduko ez balute, inguru hurbilekoaren mespretxua ere jaso ahal izango lukete, bikotekide edo ama onaren ereduari ez jarraitzeagatik. Horra emakume hauen ataka.

6.3- Bizirauteko estrategiak: agentzia eta praktika erresistenteak.

Aurrez esan dugu, ordea, ikerketa osatua izan dadin, ez dela aski emakume hauek jasandako indarkeria aitortzearekin. Horretaz gain, periferian egon arren gatazkan modu kontzienteago edo inkontzienteago batean parte hartu duten subjektu gisa ere identifikatu beharko genituzke. Emakumeak talde zaugarri gisa eta biktima gisa izendatzeaz harago, ahots eta agentzia propioa duten subjektu gisa aurkeztea ere beharrezkoa da (Magallón, 2007), eta NBEren 1325 akordioan ere hala dago jasota. Ordea, sarri kosta egiten da emakume hauek abian jarritako praktikak identifikatzea; batetik halako gatazka politikoen kasuetan, politikoa definizio androzentriko eta hegemonikoetan oinarritzen baita, eta ikusezin bilakatzen ditu bestelako lanak. Bestalde, gisa honetako ohiko ikerketetan ez dira kontuan hartzen egunerokoan egindako praktika eta aldaketa txikiak egoera iraultzeko ekintzak izan arren. Baina, Julianoren (2011) hitzak hartuta, garrantzitsua da hain justu erresistentzia txiki horiek ere kontutan hartzea, izan ere, gutxienez egoera orekatzeko mekanismoak abian jarri baitituzte. Analisiaren atal honetan, beraz, andre hauen parte hartze soziopolitikoaz arituko gara batetik. Bestetik, egunerokoari aurre egiteko darabilten estrategien berri

emango dut, eta amaitzeko, egoera irauli ahal izateko duten babes sarearen inguruan jasotakoa azalduko dut.

6.3.1- Parte hartze soziopolitikoak

Lehenago ere aipatu moduan, askotan pentsatu izan da emakumeen parte hartze soziopolitikoak baxua izan dela. Kontua da, ordea, parte hartze politiko hori ez dela hegemonikoa. Ikusiko dugun moduan, elkarrizketatutako andre guztiek izan dute parte hartze politikoak beren ibilbidean. Batzuei, ordea, kostatu egiten zaie hori aitortzea, hain justu, ikusezin diren lanak egin dituztelako, eta ez delako kontsideratzen lan politiko baten moduan (Amurrio; Larreina. 2012). Edonola ere, espazio pribatuagoetan aurrera eramandako lanak eta gatazkan inplikaturako senide edo lagun horien babes sarean egindako ibilbideak, nahikoa justifikatzen du andre hauek egindako lan politikoak, eta sarri, aitortu gabea. Ondorengo aipuetan, lehenik hegemonikoki politiko gisa ulertzen den parte hartzearen berri emango dut. Ondoren, beren burua lanketa politikotik at ikusi arren, aipaturako definizioan aski ongi kokatzen diren lanketen berri emango dute ikerketako beste subjektuek:

Nere bizi guztin ibili naiz sartuta, politikan beti egon naiz sartuta, nik ustet jaio nintzanetik nengola saltsan sartuta. Ordun nik ustet gure etxian ba horrek bai motibatu dula holako gauzetan egotia. Zeatikan eon gea mobida guztitan (...) eta beraiekin ere egon gera mobida denetan (...). Zinegotzi izan naiz. Nire seme-alabek gerogo de ikusi dute guardia zibila etorri dala etxea, miatu dute, bizitu izan dira beti horrekin. Beti tentsio batekin (barreak), nik uste det gehiegi bizitu degula, ezta? Nahiko intentso, agian orain bertan ere hartzen det oso eztaikit nola esan, bizi egiten det. (ARANTXA)

Nik neronek ETAn in nun hau (eskuekin tarte txikia dela egin du), ze Iruñeara joan nintzan, batek proponitu zian ETAkokin harremanetan jartzea, eta ordun, ba erabaki nun baietz (...) Ordun nik kontaktua nuna bikote bilakatu zen, hura detenzioan ondoren kartzelan sartu zutenn, eta kartzela barrun ETAtik aldendu eta jun zan ETA VI-ra, eta gero handik LCra, troskotara. Ta ni gelditu nintzan hor, zintzilik. Oso tipikoa, ordun ya ETA koek jo zuten nik ere alde ina nula, eta nik ere ez nuen kontrakorik esan eta bueno(...) Gero nere lanagatik beti saiatu izan naiz politikan ez nahasten. Baina diputazioan nengoela egin genuen ahalegintxo bat, Auzolan, gutxi iraun zuena. (ESTITXU)

Orain ohartu naiz askoz hobe sentitzen naizela militatzen eta mundu abertzalean. Bada jendea ulertzen nauena, eta nik borrokatu nahi dut, ez bakarrik nire aitarentzat, beste presoentzako ere. Hortako naiz orain Harreran, Presoen Komitean... eta eskatzen didatelarik egiteko elkarrizketa bat edo zeit ola, beti erraten dut baietz. Uste dut gure lana dela esplikatzea nola den egoera, eta jendea inplika araztea egoera aldatzeko. Nik beti erraten nuen ez nuela nahi gehio beste belaunaldi batek sufritzea nik sufritu nauena. Hortako orain militatzen dut. (IZAR)

Bada beste kasu bat, Kororena. Izan ere, Korok berak ondorioak izan ditu bere lan politikoagatik. Epaiketa bat izan eta bi urteko kartzela zigorra adostu zuen fiskalarekin. Baina, hain justu, fiskalarekin egindako akordioa da oraindik ere barne gatazka handiena sorrarazten diona. Izan ere, beregatik balitz aurrera jarraituko lukete epaiketan konfrontazioarekin, baina bere bikotekidea (eta preso ohia) arriskuan zegoenez, hain zuzen lehenago kartzelan egoteagatik, erabaki zuten fiskalarekin akordioa egitea. Alegia, gatazkan inplikaturata senide bat izateak oztopatu egin zion bere lan politiko propioa:

Gertatu zen zezenketarena (...) Abokatuak esaten zuen oso errexa izango zela ni libratzea, baina nire bikotekidea ez. Eta hor onartu genuen, hori da gauza bat irensten ez dudana, onartu genuen egin genuela egin ez genuen zerbait, ba denok libratzeko, eta hori ez dut irensten (...) Gero ya sinatu genuenean bi urtekoa, bi urte horiek pasatu nituen, pasatu behar ziren bi urteak (...) sentsazio bat zen como de escozor, eta gero ya min hori daukat; gure burua kulpabletzat sinatu genuela, eta hori sinatuta dago. (KORO)

Esperanzak eta Rosak, berriz, ez dute aitortzen lan politikoa egiten dutenik, baina finean, ikusezina den lan politikoa egiten dute:

Familiako bixitak nik eamaten ditut. Familia eta beste bakarren batzuk. Ni ibiltzen naiz antolatzen, eta nahiko zaila daukat antolatzeko. Zeatik? Zeatikan klaro, ematen die etxetxoak. Eta ordun, eskaria egiten dute hamabost egun aurretikan (...) Lehen errexa zan, epe luzeako zalako. Oain ez. Baina beaiantzako oso ona da. Bere bikotea umeekin juten bada, guk ezteu ikusiko, baño juten gea badaezpada. Gero asteazkenen goaz bixitara, eta hola, eta hurrengoan berriz umek gure etxea, osea okupatuta. Babes mailan konprometituagoak izan gera. Etxerat dala... nik uste det denok hartzen degu hori. Parte sentitzen gea hortan (ESPERANZA)

A mi entonces me ofrecieron meterme en Senideak de apoyo para todo el tema de autobuses, y ya les dije yo que no disponía de tiempo como para hacer eso. Porque aquello me quitaría mogollón de tiempo que no disponía yo. Y yo entonces... no tenía, vamos. Pensé que mi dedicación sobre todo estaba en mi familia que en otras cosas. Que la mía ya tenía suficiente con lo que tenía. Pero lo hice, pues porque a tu alrededor quien está capacitado no dice que sí, y el resto no estaba capacitado para hacer eso. Es un proyecto causa de la política. Pero... tampoco entonces me lo tomé así y hoy tampoco. No diría que he estado trabajando en un ambito político por haber estado haciendo eso. O dentro de una rama de lo que es la política. No... Además no me metería nunca. (ROSA)

Elkarrizketatuek beraiek aitortua izan, ala “inertziak” egindako lana izan, agerikoa da emakume hauek parte hartze soziopolitiko argia izan dutela hainbat erakunde eta eragileetan. Ordea, ikuspegi hegemonikotik lan politikoa espazio publikoan egiten den horri soilik deitzen badiogu, nekez atzemango dugu emakume hauen jarduna politiko gisa. Aitzitik, zaintzara eta babes sarera bidaratutako lana egin dute batik bat, edota jardun militantea izan badute euskal jendartean periferikoak izan diren mugimenduetan parte hartu dute (Eguzki eta ekologismoa, Kororen kasuan). Horregatik, ikusezin bihurtu da emakume hauek erakunde eta eragileetan egindako lana.

5.3.2- Egoera iraultzeko estrategiak

Lan soziopolitiko horretaz gain, ikerketako subjektu diren emakume hauek etengabe aritu dira egunerokoari aurre egiten, egoera biolentoei aurre egiteko estrategiak sortzen eta horiek praktikan jartzen. Horregatik, ezinbestekoa da, Ruiz Torradok (2016) azaldu moduan, emakume hauei agente izaera ere aitortzea, eta onartzea, kasu honetan, subjektu politiko ere izan direla. Hain justu, egoera aldatzeko ekintza kontziente eta inkontzienteak eragin dituztela frogatuko dugu segidan. Atal honetan, zuzenean autoritateari aurre egiteko estrategiaz arituko gara batetik, eta bestetik egoera gatazkatsutik irteteko moldeez solastuko gara.

Autoritateari aurre egitea

Elkarrizketatutako andreek egunerokotasunean bizi izan dituzte egoera gatazkatsuak eta sarri egin behar izan diete aurre egoera biolentoei, zein autoritateari. Horretarako, norberak bere estrategia propioak asmatu ditu, horrelako testuinguruari ihes egin ahal izateko. Horietako bat izan liteke, lehenago ere azaldu dugun moduan, uneko identitate aldaketa eragitea. Horrek, nolabaiteko ihesbidea ekartzen die andre hauei, eta botere harremanak iraultzeko edo gutxienez orekatzeko metodo gisa ere baliatu dituzte indar armatuekin.

Pues mira, a ver, gestos de indiferencia era lo mejor que te podía pasar dentro de todo. De respeto creo que jamás. Ahora, yo tampoco les he mirado a ellos probablemente con el respeto que se pueda merecer cualquier persona que no conoces de nada y esta ahí. Solamente tildarles de carceleros ya es bastante, yo creo. (ROSA)

Tontoarenak funtzionatzen du. Hori irakatsi zidaten, lo de “hacerte la rubia” horrek funtzionatzen du. Beste bat da: “Bale zu autoritatea zara, baina azaldu iezada zu. Baina hori zergatik? Hori kontradizioak dira, ez da eskubidea duela bi bisitetarako? Legea urratzen ari zara zu, autoritatea zarela”. Geo pentsatu behar duzu ondorioa nahi duzun. Bisitarik gabe geldituko bada txulegia jartzen zarelako, kaltetua beste bat da, orduan batzutan irentsi bear da”. (KORO)

Bai Korok eta bai Rosak, norberak bere modura, aurre egiten zioten autoritateari, botere harremanak irauliz. Alegia, indar armatuen mailan kokatzen ziren bata eta bestea. Izarrek ere, gaur egun egiten du hori, berak dioenez, polizia “humanizatuz”. Horrek aukera ematen dio bestaren maila berean kokatu, eta horrela beldurrik ez izateko, bestearekiko berdin sentitzen baita:

Zinez erraiten dizut. Ez dut beldurrik. Ez diet beldurrik. Beti pentsatzen dut maskara horien atzean badela pertsona bat, eta baduela bizi bat. Horrek humanizatzen du gauza hori, eta hurbilekoago sentitzen dut (IZAR)

Indarkeria bestaren aurka erabiltzen duen hori humanizatzea; Izarrek dioena estrategia gisa erabiltzea ohikoa dela jaso dute torturen inguruan egindako beste zenbait ikerketek ere. Nolabait botere harreman hori iraultzeko estrategia izan daiteke, eta beste autoreari dagokina baino posizio handiagoa ez emateko saiakera ere bai.

Modu horretan, parez pareko bilakatzen da egoera, eta norbanakoari aukera gehiago ematen dio egoerari aurre egin ahal izateko. Testigantza honek erakusten du uste baino ohikoagoa dela praktika hori, eta beraz, interesgarria litzateke etorkizunean ikerketa honekin jarraitzekotan gai horri berriz ere heltzea.

Egunerokoari aurre egitea

Momentu konkretuetarako aurre egiteko estrategiak abian jartzeaz gain, ordea, ikerketako subjektu diren emakumeek egunerokoan aurre egin behar diote gatazka egoera bati. Zaintzaren zama, sustenguari kudeaketa, indar armatuen eragin zuzena, biolentzia forma konkretuak pairatzeak, lekualdatze behartuek... horiek guztiek ezohiko bizimodu bat eramanarazi die andre horiei. Horregatik, kontuan hartzekoak dira egoera horretatik ihes egiteko edo aurre egiteko egunerokoan erabiltzen dituzten praktikak. Hori kontuan hartzeak bilakatzen ditu emakume hauek, hain zuzen ere, eragiteko gaitasun duten subjektu. Areago, gatazka egoera batean eragiteko gaitasuna duten subjektu baliatsu bilakatzen dituzte praktika horiek. Ikusiko dugun moduan, andre bakoitzak du bere estrategia propioa, baina, guztiek dute finean, helburu bera: egunean une batez bada ere egoeratik at kokatzeko aukera izatea. Horretarako, ezinbestekoak dira, datorren atalean ikusiko dugun moduan babes sareak. Horietan seiek gehien errepikatu dituztenak dira militantzia sarea eta familiaren sustengua.

Bestalde, azpimarratzekoa da horrelako praktikek subjektu izendatzen dituzten heinean, bere izate propioa edukitzeko bide bilakatzen direla estrategia hauek. Alegia, elkarrizketatutako emakumeek gatazka testuingurua bizi dute, hain justu lagun edo senide bat gatazkan erabat inplikatu izan dutelako, nahiz eta andre hauek ez duten hala erabaki. Horregatik, testuinguruari aurre egiteko, edo bertatik arnas piska bat hartzeko erabiltzen duten estrategia da norberaren ibilbide propioan sakontzea, beste horren “eraginik” eduki gabe. Are gehiago, praktika hauek talde barruko presioetatik eta barneko biolentzietatik aldentzeko bide ere badira. Hala dio Korok, esaterako:

Ni autonomoa nintzen, banuen nire lana. Eta horregatik, nahiz eta jendeak pentsatu bere itzala nintzela, nik banuen askatasun hori, de si quiero me voy, eta uste dut horregatik iraun dugula 25 urte. Ez banu autonomia eta gaitasun intelektuala izango, seguraski hautsiko genuen,

pentsatzea dependentzia bat nuela, lehenago ahutsiko genuen. Joder, emozionatzen ari naiz orain. Eta hori oso inportantea da niretzat. Uste dut indarrak eman dizkidala. (KORO)

Hain justu, norberaren enpleguaren bidez egunerokoari aurre egiteko bide bat topatzea zein garrantzitsua den azpimarratu dute Izarrek eta Estitxuk ere. Bestalde, Arantxarentzat, Esperanzarentzat eta Rosarentzat, zutoin garrantzitsuak izan dira beren haurrak edo ilobak. Ez da kasualitatea hiru horiek izatea aurretik ere aipatu dugun moduan zaintzaile rolaren atxikitzea hobekien asimilatu dutenak, eta aurreko hirurak, berriz (Koro, Izar eta Estitxu), gehien baloratu dutenak autonomia ekonomikoa edukitzea. Amaitzeko, azpimarratzekoa da elkarrizketatu batzuentzat zein garrantzitsua den militantzia edo gaiaren inguruko bestelako lanketa bera ere. Gatazkaren erdigunetik atera ez arren, badirudi elkar ulertzea eta konbentzimendu politiko argi bat izateak ematen duela halako norabide bat. Hau da, norberaren bizipenak modu kolektiboan lantzeko espazioak ezinbestekoak dira horrelako egoerei aurre egiteko, eta bakoitzaren minak, gatazkak eta aurre egiteko estrategiak konpartitzean indartu egiten du norbanakoa ere. Hala diote, behintzat, Arantxak, Izarrek eta Estitxuk:

Ez dakit, iten diozu aurre. Aurrean ere badakazu jendia. Eta iten diozu aurre zeatikan sinisten dezulako zer nahi dezun. Nik badakit zer nahi deten eta jarraituko det borrokan lortu arte. Ez dakit lortuko degun zerbait, baina nik hor jarraituko det gutxienez (barreak). (ARANTXA)

Militantziari esker ezagutu ditut beste presoen seme-alabak. Egin ginuen afari bat Baionan. Bikaina izan zen (...) zure laguneri kontatzen ahal diezu nola pastu den asteburua, eta saiatzen dira ulertzen, mais zinez, hauek dira ulertzen nautenak. Hortako, orain lagunek galdetzen didate ea ongi pastu den bisita, ea untsa den aita... Gainera, militantzian senditzen dut egiten ari naizela zerbait ez bakarrik aitarentzat, egoera aldatzeko, eta horrek kalmatzen nau. (IZAR)

Egiten deten balorazioa da merezi izan dula. Eta gero aurkitu detena izan da institutoetan Yoyesi buruz hitz egitea, 15-16 urtekoak, Yoyesen liburua irakurritakoak batzuketa aizu, neskak iten dituzte galderak eta esaten dute zeinen aurreratua zan Yoyes bere garairako... Halakoetan ikusten dezu emrezi duela gauza hautaz hitz egiteak (...). Ni memoriaren oso aldekoa naiz. Atzetik daon hortan gare oinarrituta beti, eta hortik beti asko ikasi leike. Eta bai, sentitzen det hori, merezi izan dula, eta merezi duela hitz egiteak gaiaren inguruan. (ESTITXU)

Euskal gatazkak, beraz, unean uneko testuinguru politikoa aldatu eta bertan eragin ez ezik, norbanakoen bizitzetan eragina izan duela agerian gelditu da andre hauen kontakizunetan. Batik bat, gatazkan inplikaturak senide edo lagun bat izateak ezinbesteko eragina izan du beren eguneroko desmartxan. Hala ere, ikusi ahal izan dugun moduan errutina horiei aurre egiteko praktikak martxan jarri dituzte andre hauek; izan modu kontzientean edo izan modu inkontzientean. Eta, era berean, egoerari aurre egiteko ezinbestekoak izan dituzte hurbileko babes sareak.

6.3.3- Babes sareak

Amaitzeko, aipatu behar da elkarrizketatutako sei andreek azaldu dutela ezingo lioketeela eguneroko gatazkatsuari aurre egin ingurukoekin ehundutako babes sarekerik ez. Lehenago esan moduan, errazagoa baita norberaren bizipen subjektiboak kontuan hartuta, plano orokorrago batean egoera horiek elkarbanatuta lan egitea. Zama arindu eta kutsu politikoa hartzen dute, modu horretan norberaren bizipenek (Martin. 2013). Areago, ikerketa bera osatzen ari nintzenean, elkarrizketatutako lauk eskatu didate beste norbaiten aurrean elkarrizketa egitea, eurek kontatzen zutena egiaztatzeko modu bat izango balitz moduan. Gainera, elkarren berri izateak, eta esperientzia propioak maila kolektiboago eta zabalago batean kokatzeak ematen die bestelako perspektiba bat bizipen pertsonal horiek auzi politiko gisa ulertzeko.

Edonola, hori ondorioen atalean landuko denez, elkarrizketatutako andreek aipatu dituzten babes sare garrantzitsuenez arituko naiz segidan. Hiru dira babes sare gisa nabarmendu dituzten egiturak; familia, lagunartea eta talde militantea. Azken hori, batzuentzat preso senide eta lagun unean uneko elkarta izan da (Senideak, Etxerat...), baina baita bestelako kolektibo batzuk ere.

Korok esaterako, kartzelako laguna egin baino lehenago, eta berekin bikotean hasi baino lehenago, Eguzki talde ekologistan militatzen zuen. Espetxealdiaren ostean ere hala jarraitu zuen, eta beretzako, politikoki aktibo izatea, baina zuzenean gatazkan erabateko harremanik ez zuen egitura batean militatzeak sekulako askatasuna ematen zion, eta, era berean, subjektu aktibo sentiarazten zuen. Izarrek ere bere babes

nagusiena topatu du (hainbat urtez albo batera utzi ostean) talde militantean. Eta, Arantxak eta Esperanzak, berriz, semea oraindik kartzelan dutela, nabarmendu dute Etxeratek betetzen duen funtzio soziala.

Hain zuzen ere, Arantxa, Rosa eta Esperanza dira familia egiturari garrantzia berezia ematen diotenak, baina gainontzekoek ere azpimarratu dute sendiaren beharra egoera horiei aurre egiterako unean:

Neri babesa ematen dit familiak. Esaten digute: "eske zuek zeate un klan". Eta egia da, gu ijituak bezela gea. Eta babesa sentitzen dezu. Eta gero lagunekin, Lagunekin ere, baina nik ez det eukitzen denbora asko lagunekin egoteko. (ESPERANZA)

Hombre es verdad que mi familia me ha ayudado muchísimo. Osea hemos sido de ayudarnos mucho en los campos que hayamos necesitau. Osea mi hermano... mi hermano yo creo que vamos. Osea... No le hemos dado más o porque no hemos tenido o porque no hemos podido. Pero como a él, dentro de la familia a cualquiera. (ROSA)

Laguntasunari dagokionez ere, ezinbesteko zutoin bilakatu da Kororentzat eta Izarrentzat. Batez ere, inguru hurbilarekin gainezka egin (biak dira edo ziren militanteak) eta bestelako gai batzuetaz hitz egin nahi dutenean. Halakoetan, Korok Gipuzkoako lagun batengana jotzen du, Bizkaitik ateratzeko. Izarrek, berriz, lagun frantsesengana jotzen du, bai baitaki ez diotela betikoaz galdetuko. Babes sareak direnak direlarik, hala ere, azpimarratzekoa da amaraun hori osatzen dutenen gehiengoa andrazkoa dela. Korok hala azaltzen du:

Es como si la batalla de los sentimientos siempre lo hubiesen peleado las mujeres. Los soldados siempre son soldadas. (KORO).

Baina horrek, agerian uzten du, finean zaintzaileen zaintza ere emakumeen esku gelditzen dela. Analisia egin ondoren, ikergalderei berriz heldu, eta aipuen bidez ondorioak josiko ditut. Aztertutakoaren gogoeta egiteko, eta sortutako galdera berriak mahai gaineratzeko.

7.- ONDORIOAK

*Mundu mailako gerra intimo eta latz batean
beste behin zeure buruari biziraun diozunez
behingoz erabaki duzu zauden lekuan geratzea
zure ametsen eraiste neurtuari ekitea,
zuk horrenbeste denboran eta horrenbesteko afanez gordetakoak
(ez duela) zuk uste adina balio (duela) onartzea.
(Anari. Ametsen eraiste neurtua.-Moldaketa)*

Norberaren barne gatazkak epika handiarekin nola gurutzatzen diren, norberak jasandako indarkeria biolentzia gisa identifikatzea zein zaila egiten zaien, beren parte hartze soziopolitikoaz eta praktika erresistenteez zein irudi mugatu, eta aldi berean kontziente duten... analisisian jasotako kontaktak hartu, eta ikerketa galderari helduko diet; hala, hasieratik finkatutako zein helburuak bete diren, eta apur bat gehiago sakontzeko gelditzen direnak zeintzuk diren azalduko dut. Besteak beste, ikerketako subjektu izan diren andre hauek, “euskal gatazkaren periferian” izan arren bizitako korapiloak eta egunerokoan izandako aldaketak zein izan diren aztertuko dugu. Baita jasandako biolentziaren inguruan zein nolako gogoeta egiten duten eta zein autopertzepzio duten ere. Bestalde, hasierako helburuetan finkatu moduan, emakume hauen parte hartze soziopolitikoaz eta praktika erresistenteez arituko gara. Hori guztia jaso ondoren, hasierako galderari helduko diot: “Egindako kontaktak jaso ostean, birpentsatu beharko ote genituzke orain arte memoria kolektiboaren inguruan egindako hausnarketak, konponbideaz egindako gogoetak eta gatazkari eta biolentziari buruz egindako definizioak?”.

Bestalde, ikusi ahal izan den moduan, garrantzitsua izan da ikerketa honetan gogoeta metodologikoa egitea. Etorkizunean jarraibidea duen prozesu gisa ulertuta, interesgarria izango da egindako planteamendu metodologikoak izan dituen indargune eta ahulguneen inguruko hausnarketa bat ere partekatzea.

7.1 Gatazkaren periferian daude, baina gatazkak zentrotik zeharkatzen ditu

Ni ez naiz gatazka handiaren parte sentitu, egia da orain zurekin hitz egiten ari naizela, gatazka txikiak sortu ditu, baina nahi baldin badut ekuanime izan... (...) Ez naiz zentro sentitzen, ezta periferian . Periferiaren periferian agian (KORO)

Gatazka politikoaren ulerkera androzentrikoak eragin du Euskal Herrian ere 60 urteko gatazka politikoaren, eta bereziki gatazka armatuaren (eta bere ondorio guztien) irakurketa plano egitea. Hau da, elkarren artean oposizioan eta polarizatuta dauden bi lerroen kontaketa bildu da. Hortaz, gatazkak ukitutako espazio konkretu batzuk bakarrik landu dira orain arte, eta parte izandako subjektuak ere konkretuak dira: alde bateko zein besteko espazio publikoko subjektuak, eta gizonezkoak. Horrek, eragin du, aldi berean, ireki berri den ondorioen konponbiderako ziklo honetan ere eledunak, batik bat, gizonezkoak izatea. Eta beraz, aitortza publikoak eta memoria kolektiboari ekarpenak egiteko ariketak ere horiei zuzenduta daude.

Polarizazio horrek, eta urteetan gatazka horrek izandako pisu zentralak ikusezin bihurtu ditu beste gatazka eta korapilo batzuk. Are, ikusezin bilakatu ditu hamaika gatazken gurutzaketak, eta ikusezin bilakatu ditu beste zenbait diskriminazio praktika, subordonazio egoera eta bazterkeria. Horien artean aipatu beharrekoa genero sistemak eragindako ezberdinkeria. Arestian aipatu moduan, halako testuingurutan, genero sistemaren araberako rol eta estereotipoak are gehiago indartzen eta polarizatzen dira. Horren adibide, euskal gatazkaren ingurumarian sortutako *gudariaren* eta *ama zaintzaile* edo *maitale inkondizionalaren* rola. Euskal gatazkaren erdigunean parte hartze zuzena izan dutenen senide eta lagun andreak (asko *ama zaintzaile* edo *maitale inkondizional* rol horri atxikiak) euskal gatazkaren periferian kokatuta egon dira, eta ezein eztabaidaren ertzean utzi dituzte. Baina ikerketa honen bidez, ohartu gara -gatazkaren eta biolentziaren ulerkera ikuspegi feministatik landuta, eta periferietara ahots horien bila joanda-, gatazkak erabat gurutzatzen dituela emakume horiek. Eztabaidaren periferian daude, baina gatazka beren egunerokoaren zentroan dago hala ere. Areago, hainbat gatazka gurutzatzen dira beren gorputzetan.

Ezin ukatuzkoa da euskal gatazkan zuzenean parte hartu duen senide edo lagun bat izateak, erabat kondizionatu duela emakume hauen bizitza ere. Orain arte egindako ikerketa gehienek, ordea, *meso* edo *makro* mailako eraginei erreparatzen diete, eta horregatik, ez da erraz identifikatzen emakume hauen errutinen aldaketa-oztopo-jazarpen-... horiek denak gatazkaren ondorioekin. Edonola ere, ikerketako subjektuen kontaktak entzunda eta analisisia eginda, aski erraz identifika daiteke emakume hauek bizitakoa biolentziarekin eta gatazkak eragindako ondorioekin.

Egunerokoan beste zama bat, beste lan bat, beste bizi molde bat, beste kezka bat... izan dute andre hauek senide edo lagun bat gatazkaren zentroan jarri den unetik, eta hori hala izan dela ez dute egiten inolako zalantzarik. Argi dute, gainera, gatazkak eragin zuzena izan duela beren bizitzan, hain justu senide edo lagun bat auziaren parte izan dutelako. Baina, orohar (ohiko praktika militanteak izan dituztenak salbu: Arantxa batik bat), sentitu dute beraiek jasandako ondorioak ezin direla parekatu “gatazkaren zentroan” izandakoek jasandakoarekin. Hau da, andre hauen kontaktetan ere, nahiko argi azaltzen da bi lerroen arteko diferentzia. “Lehen lerroa” eta “atzeguardia” espazio sinbolikoak ere ongi bereizten dituzte, eta lehenengo horri ematen diote haiek ere garrantzia handiagoa.

Gatazka *txikiez* ari dira emakume hauek, eta hain justu, horiei erreparatuta ohartzen gara 60 urte baina gehiago dituen gatazka politikoaren dimentsio anitzez eta lerroartekotasunaz. Senide edo lagun bat gatazkaren zentroan edukitako andreek ez dute berariaz sentitzen gatazkaren ondorioak zuzenean jasan dituztela; agerikoa da, baina, errutinetan aldaketak izan dituztela, eta esku hartu behar izan dutela egunerokoa iraultzeko.

Hori argi gelditzen da *zaintzaile* rolaekin duten barne gatazkarekin. *Ama zaintzailea* edo *maitale inkondizionala* estereotipoak ez dira berriak. Aitzitik, ikerketa honetan ikusi ahal izan dugunez, bikote eta amek izan ezik, senide edo lagun bat gatazkaren zentroan izan duten edozein andrek baduela *emakume on* izateko obligazio ikusezin hori; izan alaba, izan arreba edo izan laguna. Zaintzaile eta babesle lana beraiei dagokie halabeharrez. Gainera, azpimarratzekoa da batik bat *ama zaintzaileek* duten zama, eta rol horrekiko atxikitze estua. Zaintzarako hartutako ardura hori ezin ulertu daiteke genero sistemaren arabera egindako rol eta estereotipoen

bereizketa dikotomikoa (eta gatazka testuingurutan indartutakoa) kontuan hartu gabe. Deigarria izan liteke, akaso, andre hauetako batzuk naturalizatutako joera baten moduan bizi dute beraiek egin beharreko zaintzaile lana. Horrek adierazten du, era berean, urteetan errepikatutako dinamika bat izan dela, eta euskal gatazkaren inguruan sortutako iruditerian oso presente dagoela, bai modu sinbolikoan, baina baita modu materialean ere (gertatu-gertatzen delako); inork ez baitu irudikatzen euskal gatazkaren sustengu sarea batik bat *ama zaintzaile* edo *maitale inkondizionalaren* babesik gabe. Areago, sustengu horren parte ez badira, sozialki epaituak eta zigortuak izateko arriskua dute andre hauek. Beraz lan horiek naturalizatu eta oro har, emakumeek beren gain hartu dituzte.

Rolen atxikipenarekin eroso egon, ala aurkakotasuna azaldu, agerikoa da, andre hauek andre izate hutsagatik antzeko bizipenak partekatzen dituztela, eta areago, inportantzia berezia hartzen dutela gatazkaren bilakaeran. Andre hauen esanek, eta beren bizipenek, beraz, *guda larroen* inguruko gogoeta egitera era bultzatzen gaituzte. Izan ere, elkarren artean dauden bi bloke argien artean badaude arrakalak, eta horietan mugitu dira ikerketako sei subjektuak.

Seiek diote senide edo lagun bat gatazkaren erdigunean edukitzeak ez dituela eraman haiek ere gatazkaren erdigunean egotera, baina, beren praktikak eta gatazkak eragindako ondorioak ikusita, baieztatu daiteke beraiek ere izan direla gatazka politikoaren parte, eta erabateko eragina izan duela beren egunerokoan. Ondoriozta genezake, era berean, sei andre hauetatik harago, euskal gatazkaren zentroan kide edo lagun bat izan duten emakumeak ere ez direla izan hain periferiko 60 urteotako ibilbidean. Areago, aurrerago ikusiko dugun moduan, guda larroak mugituta, sarri bilakatu dira beraiek lehen lerro, sarri hartu dute zentroa.

Kontua da, ordea, periferiako hori ez dela espazio publikoan landu, eta areago erresistentzia praktikak eta biolentzia mota asko espazio pribatuan gertatu eta garatutakoak izan direla, eta epika handiaren kontaketatik aldendu eta isilarazi direla (isildu dituztela beraiek ere askotan). Alegia, auzi pertsonalak auzi politiko(ar)ekin lotzea kosta egiten zaie emakume hauei; norberaren bizipen “gogorretatik” harago, inportantzia politikorik izango ez balu bezala. Hori gertatzen da, hain zuzen ere gatazkaren ondorioei heltzerakoan eta memoria kolektiboa osatzeko saiakeran halako

kontzeptu androzentrikoak erabili direlako, erreferentzia beti publikoak (eta hortaz gizonezkoak) jasotzen direlako, parte hartze soziopolitikoaren irakurketa hegemonikoa (eta partziala) egiten delako eta gatazkaren lerro bikotasunean soilik kateatzen direlako analisiak. Alta, Anari abeslariaren hitzek ongi deskribatzen dute egoera: “Mundu mailako gerra intimo eta latzak” dira andre hauek bizi (izan) dituztenak. Gatazkaren periferian kokatu dituzte, baina gatazkak zentro-zentrotik zeharkatzen ditu emakume hauek.

7.2- Biolentziak baditu milaka aurpegi

Naturalizatu dugu azkenean hola dela. Zaila da erraitea biolentzia denez, egunerokoan bizi baitugu hori, eta pentsatzen dugu hola dela. Mais, bai, ohartzen zarelarik ez dela bortxaz eguneroka izan behar eta bizi duzula hori norbait baduzulako gartzelan edo, erran daiteke segur ez dela egoera erraza. Biolentzia beharbada izanen da... (IZAR)

Ikerketaren atal garrantzitsua izan da emakume hauek gatazkaren ondorioz bizitako biolentzia aztertzea. Horretarako, biolentzia politikoaren ohiko adierazpenak kontuan hartu dira, baita indarkeria sexualizatua eta nazioartean genero ikuspegitik bortxakeria aztertzeke erabilitako beste zenbait parametro ere. Ikerketaren zati garrantzitsuenetakoa hartu du, hortaz, atal horrek, batetik inoiz jaso ez den ahots bilduma egin delako, eta bestetik, biolentzia formen aniztasuna kontuan hartu nahi nuelako. Elkarrizketetan jasotakoak agerian utzi du beren burua periferian kokatu arren, eta areago, memoria kolektiboaren osaketan andre hauek ertzetan kokatu badituzte ere, biolentzia jasan, jasan dutela, askotariko eretan, gainera.

Errelatu hegemonikoek (horiek ere askotarikoak izan arren), ez dute andre hauen bizipena testuinguru politiko batean kokatzen, eta min “pertsonala” “politiko” gisa identifikatzeko zailtasunak daude. Alta, barne korapilo horiek kolektiboan lantzerako unean, nabarmena da biolentzia politikoaren ondorioak bizi izan dituztela. Horregatik, urteetan kontatu gabeak edo norberarentzat gordetakoak elkarrizketetan azaltzerakoan gehienak “harritu” egin dira biolentziaz galdetzerako unean. Askok, hasiera batean ez dute identifikatu beraien bizipena biolentzia edo indarkeria moduan; hala ere, onartzen dute egoera biolentoak bizi, bizi izan dituztela. Agerikoa da, hortaz, ingurunean

sortutako kontaktak baztertu dituzenez, beraiek ere zailtasunak dituztela beren burua gatazkaren ondorioak jasan dituzten pertsona gisa kokatzeko. Hala, jabetun dira egoera biolentoak bizi dituztela, baina zalantza dute legimititatea baduten horri biolentzia deitzeko.

Esan liteke, beraz, ondorio gisara, andre hauek beren burua errelatuaren kontaktaren eta eraikuntzaren bazterrean sentitu dutenez, eta egoera naturalizatu dutenez, zailtasuna dutela beraiek bizitakoa indarkeria gisa identifikatzeko. Hala ere, hainbat autoreek aurretik bestelako gatazka armatuen testuingurutan egindako ikerketen oinarriak hartuta, esan daiteke argiki emakume hauek ere, Euskal Herrian bizi izan dutela indarkeria. Areago, beste zenbait testuingurutan kontuan hartu ez diren bi aldagai, *isiltasunaren diziplina* eta *kalte ekonomikoak* bizi dituztela. Beraz, biolentziaren forma anitzetan, andre hauek jasandakoa ere jaso beharko litzateke berriki egiten ari diren historia-bildumetan, eta gatazkaren ondorioak konpontzeko bizikidetzari ariketetan.

Horretaz gain, lan honek ekarpena egitekotan, egiten du biolentzia beraren inguruko gogoeta bultzatzean. Izan ere sarri ikusezin diren indarkeri formak edo biolentzia sinbolikoak edukiz bete eta testuinguru politikoago batean kokatzen ditu andre hauek jasandakoak. Hala kontzeptu hegemonikotik harago, indarkeria ulertzeko eredu berriak sakondu eta horien kategorizazioa egiteko proposamena ere bada lan hau. Ikuspegi feminista batetik “pertsonala politikoa da” teoritik praktikara eramateko proposamen bat, hain zuzen ere.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi ikerketa honek agerian utzi duen ebidentzia bat. Emakume izateagatik indarkeria forma oso konkrituak bizi izan dituzte andre hauek. Areago, “aurkako” taldearen jazarpena ez ezik, norberaren “talde barruko” indarkeria ere sufritu dute andre hauek. Hipersexualizatu dituztelako, rol konkrituetatik ateratzen utzi ez dietelako, beti bestearen itzalean egon direlako... Kanpotik oztopoak izatea baino min gehiago eragin izan die, gainera, talde barruan ere deseroso sentitzeak. Horrek ez hango eta ez hemengo sentiarazi ditu, eta egunerokoari aurre egitea are zailago bilakatu da askotan. Horrek erakusten du, hain zuzen ere, argi definitutako bi lerroen arteko gatazka izateaz harago ere badagoela zer aztertu.

Sexu genero sistemaren ardatzak ere erabat gurutzatzen du euskal gatazka, eta areago, sortzen du halako diferentzia bat gizon emakumeek bizi izan duten biolentziaren artean. Interesgarria da, beraz, etorkizunerako aldagai hori ere kontuan hartzea, eta ohartzea nola bi aldetako andreek jasandakoak badituen antzeko formak. Gai hori gutxi landu arren, azaldutakoaren zantzuak agerikoak dira. Lekualdatzeak, isiltasuna, ezin ikusiak eta *emakume onaren* rolaren atxikitze behartua dira, besteak beste, Estitxuk beste andreekin partekatzen dituen bizipenak.

Ikerketa honetan, batik bat gatazkaren alde konkretu bati erreparatu bazaio ere, asmoa da etorkizunean alde guztietako andreekin egitea lanketa, eta gai horretan sakontzeko aukera handiagoa izango da. Hala ere, ondorioztatu dezakegu andre izate hutsak biolentzia forma konkretu bat eragin diela elkarrizketatutako guztiei, eta beraz, hipotesi hori mantentzeko adina indar ematen du. Horrek, lehen aipatu moduan, *gudaleroen* inguruan gogoeta berriak proposatzeko aukera irekitzen du. Zer gertatuko litzateke Espainiar eta Frantziar estatuen aldeko eta ETaren aldeko kideen arteko bereizketa egin beharrean, gatazkak zipriztindutako gizon-emakumeen arteko bereizketaren arabera osatuko bagenu errelatoa? Diferentea litzateke kontaketa? Biolentzia forma berriak hartu beharko lirateke kontuan?

Analisia egin ondoren ondorioztatu dezakegu beraz, baietz, andre hauek biolentzia jasan dutela, eta areago, emakume izateagatik indarkeria mota oso konkretuak bizi izan dituztela, indarkeria sexualizatua eta ezkutuko indarkeria. Hala, kontuan hartzekoa litzateke indarkeriaren kontzeptua ikuspegi feministatik are anitzagoa dela, eta hori ere kontuan hartu beharko litzatekeela gatazka politikoen inguruko analisiak eta ikerketak egiterako unean. Areago, indarkeria hori bi aldeetako emakumeen artean partekatua dela ere baieztatu daiteke, patrioiak eta kontaktak oso antzekoak direlako, ñabardurak ñabardura. Horixe da, hain justu ikerketarekin segituz gero kontuan hartzeko ikerketa ildo bat. Emakume izateak euskal gatazkaren genealogian zein nolako eragina izan duen, eta orain arte periferiara zokoratutako ahotsek kontatzeko zer duten eta zein biolentzia mota jasan duten aztertzea kontuan hartu beharko litzateke etorkizunean.

Horra egindako ikerketa honen beste ekarpen posibleetako bat: “Lehen lerroan” dauden horien arteko errekonozimendu eta biktimen arteko elkar ulertze ariketak egiten ari diren moduan, andre hauekin ere lanketa egitea. Izan ere, komunean dituzten bizipenak jasota eta testuinguruan ulertuta, memoria kolektiboaren eta gatazkaren ondorioen lanketarako aberasgarria bezain interesgarria izan daiteke. Hala, ahots propioa eman eta espazio pribatutik espazio publikora pasatuko lirateke subjektu hauek, eragiteko gaitasuna aitortuz eta beren ahotsari legitimitatea emanaz. Hasierako helburuetan finkatu moduan, etorkizunerako lan posible bat liteke horrelako topaketak ere proposatzea eta horrelako bizipenen bildumak egitea metodologia egoki batekin.

7.3- Gatazkaren biziraule izatetik gatazkaren agente izatera

Pues si, por supuesto que ha sido, que ha tenido que ser muy importante. Porque gracias a eso ha habido todas las movilizaciones en la calle que ha habido. Estarían en las pancartas todos los tíos del mundo. Pero por detrás... desde luego estaba secundau por todas las mujeres habidas y por haber. Osea que... importancia? Mucha (ROSA)

Ikerketaren atal nagusietako bat izan da euskal gatazkaren periferietan zeuden emakume horiek jasandako biolentzia ezagutzea eta testuinguruan kokatzea, norberaren bizipenak maila kolektiboago batean lantzeko, eta orain arte auzi pertsonal moduan kontatu dena, politikoki lantzeko. Edonola ere, azterketa honen beste atal garrantzitsu bat ere izan da emakume hauek gatazka politikoan izan duten parte hartzea, eta erresistentziarako gaitasuna jasotzea. Batetik, ikuspegi feminista batetik beharrezkoa delako aitortzea ikusle huts izateaz harago eragiteko gaitasuna ere izan dutela. Bestetik, espazio ustez maskulinizatuetan andre hauek izan duten presentzia aztertzea beharrezkoa delako, eta amaitzeko, beren eguneroko jarduerari ere zor zaiolako politikoki erreparatzea. Horretarako, hiru izan dira kontuan hartutako aldagaiak: andre hauen parte hartze soziopolitikoak, egunero martxan jarritako erresistentzia praktikak eta babes sareak. Horiekin guztiekin subjektu politiko izaera aitortu eta agentzia duten norbanako gisa identifikatuko ditugu.

Lehendabizi emakume hauek izan duten parte hartze soziopolitikoaz jardun naiz. Hala, beren kontaktak jaso ostean, ohartu naiz beraiek ere uste baino parte

hartze handiagoa izan dutela, politika bere zentzu hegemonikoenean (eta androzentrikoenean) ulertuta ere. Hau da; elkarrizketatutako guztiek, era batean edo bestean izan dute harreman zuzena egitura edo talde politiko aktibo batekin. Izan presoen senideen elkartean, izan Bruselaseko parlamentuan eledun, izan herriko zinegotzi, izan mugimendu feministako kide edota talde ekologistako militante; seiak aritu dira espazio publikoan eta plaza politikoan lanean. Baina, bada atentzioa deitzen duen kontu bat. Guztiek ez dute uste lan politikoa egin dutenik. Esperanzak, Rosak... diotenez, testuinguruak bultzatuta aritu dira jarduera politiko konkretu horietan. Eta areago, lotzen dute egindako lana, berriz ere, arestian aipatutako “emakume on” (*ama zaintzaile, maitale inkondizional, senitarteko emakume*) figurarekin. Hau da, espazio publikoan kokatutako jarduera politiko aurrera eraman arren, jarraitzen dute beren burua periferian kokatzen eta egiten duten lanari garrantzia berezirik ez ematen; naturalki egitea balegokie moduan.

Gainera, askotan erakunde eta eragile horietan egiten duten lana ikusezina da (genero sistemaren araberrako rol bereizketari atxikiak, edo zaintzara bideratuak), eta hortaz, errekonozimendurako eta lan horiek jarduera politiko gisa identifikatzeko tartea are txikiagoa bihurtzen da. Hala ere, jakin badakite beren lana ezinbestekoa izan dela gatazkan zuzenean inplikaturik izan duten senide edo lagun horren sustengurako. Eta gainera, jabetun dira beren lana ikusezina dela justuki “andreei dagozkien” lanak egiten dituztelako.

Beraz, sumatu dezakegu beraien lana erabat beharrezkoa dela aitortzen duten arren, ez dutela sentitzen ahalmena dutenik esateko beraien lanak ere eragina izan duela gatazkaren bilakaeran. Horrek harreman zuzena izan dezake, beste behin lerroen kontuarekin. Izan ere, gatazka politikoen inguruko azterketak egiterako unean ohikoa izaten da “lehen lerroaz” eta “atzeguardiaz” hitz egitea. Lehen lerroan biolentzia fisikoa jasan eta horri aurre egin diotenak kokatzen dira, atzeguardian, berriz, zaintza lanaz eta babes sareez arduratzen direnak.

Halako mailaketa eginda, bigarren lerro horri ez zaio zentralitatea ematen, eta ez zaio ematen dagokion trataera politikoa. Baina, nor bihurtzen da lehen lerro delako militantea espetxera sartzen dutenean edo familiako kide bat falta denean? Preso

dagoenak eragiteko gaitasuna galtzen du ia, ezpada kartzelan bertan elkarren artean antolatutako dinamiketan parte hartzerakoan. Aldiz, une horietan kanpoan gelditzen den sustengu taldeak hartzen du protagonismoa, eta plaza politikoa apur bat gehiago okupatzen du. Rosak esan duen moduan ia sustengu talde guztiak egon dira andrazkoez osatuta, baina eragile horien agerraldi publikoetan ere nagusi dira gizonezkoak. Argazki horrek argi erakusten du beste behin, euskal gatazka genero sistemak nola zeharkatu duen erabat.

Baina, arestian ikusi dugu nola agentziarako gaitasuna ez den soilik aldez aurretik pentsatutako ekintzarako gaitasuna. Modu inkontzientean ere egoerari aurre egiteko, edo gutxienez botere-harremanak orekatzeko abian jarritako praktikek ere osatzen dute. Horregatik, ikusi ahal izan dugu andreok, halabeharrez, egunerokoari aurre egiteko askotariko praktikak ere jarri dituztela martxan. Horietako batzuk, modu kontzientean eraman dituzte aurrera; gehienak autoritateari edo ongi definitutako aurkako kolektibo bati (kanpoko zein barneko izan) aurre egiterakoan. Horietan guztietan nabarmena da botere harremanak iraultzeko emakume hauek beren burua balioan jartzen dutela eta ez dutela gutxiesten beren jarduera (izan funtzionarioaren aurrean edo izan taldearen barruan sexualizatutako indarkeria bizi izan dutenean). Horretarako erabiltzen dituzten praktikak ere askotarikoak dira: egoera jakin batean inposatu nahi dizutena egiteari uko egitea (polizia etxera sartzekoan, funtzionarioak bularretakoa kentzeko eskatzen direnean, herritarrek bizkarra ematen diotenean...), beste aldeko hori humanizatzea (poliziaren kaskoaren atzean dagoen pertsona irudikatzea, bestelako iritziak dituen jendearekin harremana izatea...), edota ezikusiarrena egitea (ezertaz ohartuko ez balitz bezala jokatzeko). Horrek aukera eman die unean une egoerari aurre egiteko, eta (are) zapaltzaileagoa den egoera batetik irteteko.

Andre hauek, ordea, gatazkaren ondorioak bizi izan dituzte, eta gatazka politikoan eragile izan dira, beraien erabakimen propiorik gabe, edota beraiek zuzenean hala erabaki gabe. Eta hala ere, egunerokoan aurre egin behar izan diote, aldez edo moldez, zama horri. Horri aurre egiteko ere abian jarri dituzte praktika erresistente gutxi-asko kontziente edo inkontzienteagoak. Familiaren babesa bilatzea, bereziki gatazkaren erdigunean ez dauden lagunengana jotzea, edo guztiz kontrara,

militantzia taldeetan sustengu eta ulermena bilatzea dira egoerari aurre egiteko bilatu dituzten ihesbideak. Horretarako, muturreko egoeretara joanda, bere jatorria ukatzera ere iritsi dira.

Horregatik, ezinbestekoak izan dira babes taldeak emakume hauentzat ere. Zaintzailea nork zaintzen duen gogoetatzeko interesgarria. Esan bezala, hiru dira ikerketa honetan identifikatutako gune horiek; familia, lagunartea eta militantzia. Gehienetan horiek ere (militantzia salbu) andreez osatuta. Saretu izanak, gainera, eskaintzen die beren bizipen propioak maila kolektiboago batean lantzeko aukera ere; eta hortaz, pertsonala izandakoa apur bat gehiago politizatzea ere bai.

Ondoriozta daiteke, beraz, emakume hauek subjektu pasibo izatetik urrun, parte hartzaile aktibo ere izan direla, eta gatazkaren periferian kokatu dituzten arren subjektu politiko izan direla (eta badirela) ikusle hutsak izan ordez. Gatazkaren ondorioak jasateaz gain, horiei aurre egiteko abian jarri dituzte erresistentzia praktika propioak, eta horiekin ahalegindu dira egunerokoari eta hala sortutako botere harremani aurre egiten.

Hala ere, ikerketaren tamainaren eta denboraren kontuengatik, soilik gaiaren inguruko hurbilpen bat egin dut. Lehenik jasan duten biolentzia aitortu eta horri aurre egiteko zein mekanismo martxan jarri dituzten aztertzea zen asmoa. Etorkizunean, ikerketarekin jarraituta andre hauen agentziaren eta praktika erresistenteen inguruko lan sakonago bat egiteaz gain beren artean sortu dituzten babes sareen inguruko azterketa egitea izango da asmoa.

7.4- Noren memoria osatzen ari gara?

Inoiz ez gea sentitu rekonozituak. Nola sentituko gea, dakagunian dispertsio bat, dakagunian hau dena, eske gurekin ari dia, ez bakarrik zigorra barruan dagonantzat, zigorra da guretzako ere, badakite ze kalte egiten ari dian, bidaietan gure bizitzan arriskuan dagoela, ekonomikoki ze sangria egiten ari dian, hori soberan dakite. (ARANTXA)

Duela 7 urte hasi zuen ETAk behin betiko desagertzeko prozesua, eta aurtengo maiatzean eman dio amaiera ziklo historiko bati. Horren aurrean, batzuk eta besteak hasiak dira gatazkaren ondorioen inguruko gogoeta egiten, eta konponbiderako urratsak ematen. Horrekin abiatu da ziklo berri bat; gatazkaren memoriatik memoriaren gatazkara igaro gara. Nork bere posiziotik gatazkaren errelatua osatu nahi du, baina alde batean eta bestean nabarmena da hutsunea: emakumeen presentzia eskasa da bizikidetzaren foroetan, gatazkaren ondorioei heltzeko jardunaldietan eta agerraldi instituzionaletan. Euskal gatazkaren “zentroan” kokatutako horien arteko solasaldia izaten jarraitzen du hika-mikak, eta elkarrizketatu ditudan sei andreen parekoen istorioak gutxitan entzuten eta jasotzen dira.

Bizikidetzako balizko egoera berri baterako, ezinbestekoa izango da zimendu berri batzuk jartzea, eta oraingoz, ez da kontuan hartzen emakume hauen ahotsa. Ikusi dugu, ordea, ikerketa honen bitartez, emakume hauek hainbat gatazkek gurutzatu dituztela urteotan, jasandako biolentzia askotarikoa dela, eta ugariak direla abian jarri dituzten praktika erresistenteak. Alegia, beraiek ere badira gertatutakoaren parte, eta ez ikusle gisa bakarrik: eragiteko ahalmena izan dute modu batean edo bestean. Periferian kokatutako subjektu izanagatik, ordea, ikusezin bilakatu dira beren bizipenak, eta zailtasuna dago horiek testuinguru politiko batean lantzeko.

Ezintasun hori gatazkaren, biolentziaren eta parte hartze politikoaren ikuskera hegemoniko eta androzentrikoak eragindakoa da hein handi batean. Ikuskera plano eta lerro zuzenek ikusezin bilakatzen dituzte andre hauen kontaktak, eta ondorioz, ez dira kontuan hartzen gatazkaren inguruan egiten diren ikerketetan. Alta, ikus dugu kontzeptu horiei genero ikuspegitik erreparatuta, eta isilarazitako ahotsei leku eginda, agerikoa dela emakume hauek ere periferian egotetik urrun gatazkak erabat zeharkatuta bizi izan direla. Baieztatu daiteke, beraz, euskal gatazka genero sistemak erabat zeharkatu duela, eta gai horren inguruko ikerketak eta gogoetak areagotu behar direla.

Une ezin aproposagoa da, gainera, gaiari behar bezala heltzeko. Batetik, ugaritu egin dira atzera begirakoak, euskal gizarteak etorkizunean transmitituko duen kontaketa konpartitu bat egiteko asmo hori sumatzen baita. Kontaketa horren

hegemonia diskurtsiboa nor irabaziko duen, horixe da une hauetan lehiatzen ari direna. Gizarte eragileak zein instituzioak ere ari dira bizikidetzaren aldeko ariketak egiten, eta gatazkaren ondorioei lehen bait lehen heltzeko premia sumatzen da gizartean. Horregatik, andre hauei memoria kolektiboan leku egitea da proposamena, eta hala, genero ikuspegi batetik euskal gatazkaren kontaketa osatzea.

Elkarrizketatutako guztiek aitortu dute inork ez dituela errekonozitu (ez talde barnean ez maila instituzionalean ere). Agerikoa da biolentziaren eta gatazkaren kontzeptualizazio androzentrikoak erabiltzen jarraituta nekez lortuko dutela halako aitortzarik (dispertsioaren ondorioz hildako 16 lagunen adibidea horren lekuko). Baina, bazterreko ahots hauek jasotzea ere bada bestelako eragileen eginbeharra. Gaur gaurkoz, dispertsioaren ondorioen inguruko lanketak egiten ari dira, baita haur eta adinduen ingurukoa ere. Hala ere, espreski andreen bizipenak jasotzen dituzten ikerketarik apenas ez dago, are gutxiago genero sistema izatea gatazkak iraun artean gertatutakoa azaltzeko erabiltzen den ardatza kontuan hartuta. Nahiz eta, ikusi ahal izan dugun moduan ebidentea den andre izateak berez suposatu duela faktore garrantzitsu bat beren bizipenetan.

Edonola ere, aipagarria da elkarrizketatutako sei emakumeek (alde bateko zein besteko), ez dutela behar hori sentitzen, errekonozituak izatekoak egindako lanagatik. Batetik, urrun sentitzen dute aukera hori, uste baitute lehenago beste kontu batzuei egin behar zaiela aitortpena. Bestalde, guztiek nabarmendu dute aitortza publikorik ez jaso arren, ingurukoen babesa sentitu dutela, eta horrekin nahikoa dutela aurrera segitzeko. Bigarren mailan egotearen autopertzepzioa ere nagusitzen da kontu honetan, inertiaren inertziak beti periferian kokatuta zaila ikusten baitute beren burua gatazkaren erdigunean publikoki (eta politikoki) kokatzea.

Kororen, Rosaren, Estitxuren, Arantxaren, Esperanzaren eta Izarren kontaketen parekoak jasota, ohartuko gara beste memoria oso bat dagoela osatzeko, eta memoria kolektiborako historiaren erdia txertatzeko oraindik badagoela. Beren ahotsak jasotzeak soilik, eta kokapen orokorrago eta politikoago bat emateak, soilik, gatazkaren lerro arteko irakurketa egitea ahalbidetuko digu, herri honetan gertatutakoaren errelatua aberastuz.

8.- Hari batetik tiraka hasi zen, solte gelditu dira beste batzuk

1. Irudia: Larunbata. Goizeko 7:00ak, Cordobako espetxetik 20 minutura dagoen Pedro Abadeko gasolindegia, gau oso errepidean egin ondoren.

5:30tatik daramagu gasolindegian. Honezkero gosaldutik dugu eta hartu dugu bigarren kafea. Gurekin bisitan datozen lau emakume, gurpildun maletarekin irten dira gure furgonetatik. Nabaritzen da urteak daramatzatela bidaiatzen eta gasolindegira iristerakoan badakitela hobe dutela ordu eta erdi gehiago lotan segitu. Txandalarekin edo pijamarekin sartu dira komunera, esnatu berri.

7:20: Komunetik irten dira lauak, norbera bere martxan. Joan dira maleta furgonetan uztera, eta gosaria hartu dute. Atzean utzi dituzte aurpegi esnatu berriak eta txandalak. Gona motzekin, soineko estuekin edo takoidun zapatekin azaldu dira. Begiak eta ezpainak margotuta eta ilea txukun. Azkar hartu behar dute kafea, 7:45tan lehen furgoneta aterako da espetxera. 8:00tan egon behar dira atean; 9:00tan dute beren bikotekidarekin vis a vis-a.

2. Irudia: Urtebete beranduago. Ostirala. Arratsaldeko 21:30ak. Gasteizko Lopidanako gasolindegia, bisitara joateko gau oso aurretik dugula.

Urte eta erdi da Javiri bisitan noala, ezagutzen ditut ia senide guztiak; elkarrekin ari gara afaltzen, betiko moduan 819 kilometro egin aurretik. Lehen aldia da Kordobara bakarrik noala, bestetan loritzekin, herriko beste gazte (mutil) batekin jaitsi naiz. Badaude ama seme batzuk ezagutzen ez ditudanak, eta haiekin hasi naiz hizketan. Nori bisitan goazen, nondik gatozen... Javiri bisitan noala esan diot, eta andreak ez du zalantzarik egin: "Zer zara, bere neskalaguna?". Ezetz esan diot, lasai asko izan zitekeela Javi nire aita. 56 urte ditu eta aurretik ez nuen ezagutzen; elkartasunez hasi ginen gazteok herriko presoek bisitak egiten. Orduetik Javirengana noa bi hilabetean behin.

Bi argazki horiek, bi irudi horiek izan dira ikerketa egitera bultzatu nautenak. Herriko preso bati bisitan joateko konpromisoa hartu nuen orain bi urte, elkartasunez eta erabaki politikoz. Lehen bisita egin genuenean harrিতa gelditu nintzen lehen pasartearekin. Nola andre horiek eraldatzen ziren 20 minututan, eta nola hitz egiten zuten furgonetan bisitara zihoazenean. Egoera iraultzeko zein gaitasun zuten, eta aldi berean genero sistemaren araberrako rolak nola atxikitzen zituzten ikusi nuen aurrez aurre, eta zer pentsatua eman zidan, zalantzarik gabe. Orain sei hilabetekoa da bigarren pasarte, eta harritu ninduen andre horren ateraldiak. Bat-batean, nahi gabe,

ni ere banengoen gatazkak zeharkatuta. Euskal gatazkak zeharkatuta, jakina, nahiz eta inguru hurbilean ez dudan izan bertan inplikaturako senide edo lagunik. Baina, baita beste gatazkek ere; bat-batean norbaitek pentsatu zuen ez nintzela erabakimen propioz joaten bisitara, neska gazte “engainatu hura” nintzela, preso asezera doana. Hala indartuta ikusi nuen ikerketa hau egiteko premia.

Baina, nola landu azaldutakoa testuinguru politiko batean? Nola eman zantzu kolektiboa bizipen pertsonal horiei? Ikerketako helburuak finkatu ostean etorri zitzaidan zalantza izan zen hori. Genero ikuspegia txertatu nahi izanez gero, ezinbestekoa izango zen metodologikoki ere beharrezko arreta ematea. Hala, interesgarria izan da nazioarteko antzeko esperientzien inguruan irakurri eta diseinu propio bat osatzea. Horrelako prozesuak andre hauentzako ahalduntzerako tresna izan daitezke, prozesuak aurrera egin ahala duten agentziaz ohartzen baitira eta subjektu politikotzat hartzen baitute beren burua. Hala ere, aitortu behar dut, gustatuko litzaidakeela eredu metodologikoan gehiago sakontzea. Hasierako asmoa zen kontraste saio bat antolatzea, elkarrizketatu ditudan andreek elkar ezagut zezaten eta ahalduntze prozesu horretan elkarrekin gehiago sakondu genezan. Denbora faltak, ordea, mugatu egin ditu aukera horiek, eta soilik banan-banako harremana izan dut solaskideekin, ikerketan jarritakoarekin ados ote zeuden jakiteko. Izan ere, garrantzitsua izan da prozesu osoan zehar konfiantza. Ez baita gai erraza eta oraindik nahi den guztiaz lasaitasunez hitz egiteko nahikoa aukerarik ez dagoelako. Beren eskakizunari jarraituta, beraz, harreman etengabea egon naiz ikerketako subjektuekin, eta ahalegindu naiz beren erritmoak ere errespetatzen. Hori, askotan ez da erraza izan; batzuetan grabaketek erreparoa ematen zutelako, besteetan informazio (garrantzitsua) ezabatu behar izan dudalako, beren konfiantzari huts ez egiteko. Ikerlari gisa sortu dizkit horrek barne gatazka batzuk, errealitatea azaltzeko gako garrantzitsuak baitziren. Edonola ere, hasieratik esan dut ikerlari eta ikertuaren arteko oreka hori mantendu nahi izan dudala, eta iruditzen zait prozesu hori bera ere aski aberasgarria izan dela.

Gainera, izandako solasaldi luzeetan hainbat dira landutako gaiak, ikerketa egin aurretik zehaztutako ildoak baino gehiago. Horregatik, jabetun naiz informazio asko utzi dudala landu gabe, eta analisisian ere zenbait atal hanka-motz gelditu ahal izan direla. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zitzaidan gaiari sarrera moduko bat egitea,

orain arte ez baita asko honen inguruan egindakoa. Horregatik, gai gutxitan asko sakondu orde, nahiago izan dut errealitatearen argazki orokorrago bat eskaintzea. Horietatik gehien landu dudana, bistakoa denez, biolentziaren auziarena izan da. Horrek ez du esan nahi gatazkaren lerro aniztasunak eta praktika erresistenteen bilketak eta analisiak garrantzirik ez duenik. Ordea, iruditzen zait andre hauek jasaten duten indarkeriaren kategorizaizo bat egitea interesgarria zela, azaleratzeko baztertutako gorputz horiek urteetan jasan dutena. Are gehiago, isiltasunaren diziplinaren kontuari berebiziko arretaz erreparatu behar zaiola iruditzen zait.

Horregatik, lanarekin segitzekotan, gustatuko litzaidake berriz ere lerroartekotasunaren inguruko gogoetari heltzea baita emakume hauen agentziaren eta praktikak erresistenteen inguruko azterketa sakonago eta zehatzago bat egitea ere. Jakina, sei laguneko laginak ere errealitate konkretu baten berri ematen du. Hala ere, lehenetsi egin dut hego eta ipar lurraldeei leku egitea, eta gatazkan inplikaturako senide edo lagun horrekin zuten harremana diferentea izatea, ikusteko ea bazegoen berezitasunik edo bazegoen antzekotasunik beraien artean. Uste dut horrek aberastu egiten duela ikerketa, nahiz eta agerikoa den lagin aldetik ere mugatua izan dela kopurua. Ikerketan sakontzeko, gustatuko litzaidake bilketa are zabalago bat egitea. Eta horri lotuta, gatazkarekiko kokapena ere anitzagoa izan dadin gustatuko litzaidake aurrerantzean. Lehen hurbilpena izanda, Estitxu izan da nolabaiteko zubilana egin duena. Batetik, bazuen ibilbide bat ETAn bertan eta ingurumarian. Bestetik, ordea, ETAk hildako baten laguna zen, hura ere lehenago erakundean ibilitakoa. Estitxuren bilakaera propioa harrigarria izateaz gain, aukera eman du ikerketan hipotesi berrietan sakontzeko, eta ikusteko ea benetan andre izate hutsak biolentzia forma antzekoa biziarazi dien eta nolakoak diren batzuen eta besteen gorputzak zeharkatzen dituzten auzi, korapilo eta gatazkak. Ondorengo lanetan, halako subjektu gehiago elkarrizketatzea izango da asmoa.

Esan dudan bezala, hari batetik tiraka hasi zen ikerketa, baina, azken txosten hau ixterako orduan ere gelditu dira hari berriak solte. Alde metodologikoa are gehiago lantzea gustatuko litzaidake, eta beste herrialde batzuetan egin den moduan memoria kolektiboaren osaketarako ezinbesteko pieza bilakatzea ere interesgarria litzateke. Izan dadila ikerketa hau horren beharra islatzen duen txostena. Bestalde, helburuei eta

ikergalderei dagokienez, ageriko da asko dagoela oraindik sakontzeko: gatazka gurutzatuak eta lerroarteak kasu, praktika erresistenteak eta agentzia ere bai, eta baita isiltasunaren eta humanizazioaren afera ere. Esan dudan moduan, gainera, material asko utzi dut landu gabe, eta ondo egongo litzateke andre hauek esandakoei ere buelta berri bat ematea. Nolabait esatearren, azaleko aurkezpena izan da honako ikerketa hau; orain arte ezkutuan zegoena argitan ematekoa. Orain lerro artean irakurtzea eta proposamen berriak egitea falta da.

Eskerrak

Javiri gatazkaren erdigunetik periferian egoteko aukera emateagatik, gure barruko gatazkek azaleratzeagatik, eta Toñi ama eta Mikel anaia ezagutzeko aukera emateagatik. Esperanzari, Arantxari, Estixuri, Rosari, Korori eta Izarri. Nirekin hustutzeagatik, korapiloak askatzen eta berriz lotzen uzteagatik, konfiantza sare bat osatzeagatik. Zuen indarragatik. Martari, ikerketan sinisteagatik, denbora behar nuenean emateagatik, eta estu nenbilenean denbora eskaintzeagatik, plazer bat.

Askatasun haizeari.

9.- BIBLIOGRAFIA

- Alfonso, C. Martin Beristain, C. (2013). Memoria para la vida. Una comisión de la verdad desde las mujeres para Colombia. Bilbo. EHU-Hegoak or. 12-99
- Amurrio, Mila eta Larrinaga, Ane (2012). Genero-ikuspegia herritarren tokiko parte-hartzearen diseinuan Bilboko hirian. Uztaro, 83(1), 91-107
- Amurrio, Mila eta Larrinaga, Ane (2013). Género y participación ciudadana local: límites del diseño participativo de base asociativa del municipio de Bilbao. Revista Mexicana de Sociología, 75(2), 201-223.
- Aranguren, Miren; Epelde, Edurne; Retolaza, Iratxe (2015) Gure genealogia feministak. Emagin elkarte.
- Aretxaga, B. (1997). Shattering silence: Women, nationalism, and political subjectivity in Northern Ireland (p. xiv). Princeton, NJ: Princeton University Press.
- Barrenetxea, Sandra (2018). Egia judizialtan adituak gara. Argitaratua: https://www.berria.eus/paperekoa/5002029/012/002/2018-08-11/egia_judizialtan_adituak_gara.htm. Ikusia: 2018-08-13
- Bourdieu, Pier. (1997). Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción. Barcelona: Anagrama, 233.
- Bourgois, P. (2004). The continuum of violence in war and peace: Post-cold war lessons from El Salvador..
- Butler, Judith (2010): Marcos de guerra. Las vidas lloradas. Seix Barral, Bartzelona.
- Butler, Judith. (2018). Genero nahasmendua: Feminismoa eta identitatearen subertsioa. Eskafandra
- Dañobeitia, Olatz (2016). "Biolentzia politikoa eta generoa Euskal Herrian, 90. hamarkadan. Ezker Abertzaleko emakumeen kasua.
- Del Valle, Teresa. (1985). Mujer vasca: imagen y realidad. Anthropos.
- Esteban, Mari Luz. (2004). Antropología del cuerpo: género, itinerarios corporales, identidad y cambio.
- Egaña, Iñaki (2018). El desarme. La vía vasca. Txalaparta: Tafalla.
- Ernai (2014). Ezker Abertzalearen bilakaera.
- Esnaola, Enekoitz (2017). Luhuso:ETAren armagabetze zibilaren kontakizuna. Berria, Elkar: Andoain
- Esteban, Mari Luz., eta Amurrio, Mila. (Eds.). (2010). Feminist Challenges in the Social Sciences: Gender Studies in the Basque Country (No. 2). Center for Basque Studies.
- Esteban, Mari Luz, Hernandez.Jone Miren (2016). Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia. Bilbo: EHU eta UEU.
- Etxeberria, Pako; Martin, Carlos; Pego, Laura (2017). Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco enytre 1960-2014. Eusko Jaurlaritza: Gasteiz
- Giddens, Anthony. (1987). Las nuevas reglas del método sociológico(p. 16). Buenos Aires: Amorrortu.
- Goikoetxea Mentxaka, Jule. (2015). Euskara, estatua eta feminismoa. Jakin, (208), 77-89.
- Goikoetxea Mentxaka, Jule. (2015). Emakumeen mundu gatazka. Berria. Argitaratua: 2015-10-07. https://www.berria.eus/paperekoa/1955/018/001/2015-10-07/emakumeen_mundu_gatazka.htm Ikusia: 2018-02-08
- Gurrutxaga Uranga, Amagoia. (2013). Zarauzko postalak. Zarautz: Zarauzko Udala, Kultura Saila.
- Guzman, Gloria; Mendia, Irantzu. Mujeres con memoria: activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador. Univ. del País Vasco, Hegoa, 2013.
- Ibarguren, Leire. (2016). Laura esaten zioten (or. 98-112). Tafalla: Txalaparta.

-Juaristi Larrinaga, Patxi. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Leioa: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

-Juliano, Dolores. (2009). *Delito y pecado. La transgresion en femenino/Crime and Sin. Transgression from a Feminine Perspective*. *Política y Sociedad*, 46(1/2), 79.

-Martin, Beristain, Carlos. (2009). *El conflicto vasco. Violencia, polarización o ¿(re) conciliación?. Violencia y salud mental. Salud mental y violencias institucional, estructural, social y colectiva* (479-495). *Asociación española de neuropsiquiatría*

-Martin Beristain, Carlos. (2013). "Sekula ukatuko ez den errealitate bat jaso behar du Egiaren Batzordeak". *Berria* egunkaria.

-Martinez, Tania (2015) "La Violencia sexista en colectividades sociales y politicas de izquierdas y procesos de resiliencia de mujeres activistas". *Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrean aurkeztutako MALA*:
https://www.academia.edu/16405289/La_violencia_sexista_en_colectividades_social_es_y_pol%C3%ADticas_de_izquierdas_Casos_y_procesos_de_resiliencia_de_mujeres_activistas?auto=download

-Mendia, Irantzu. (2008). *Estrategias de organizaciones de mujeres para una paz con justicia de género*. Hegoa institutua, EHU.

-Mendia, Irantzu, Guzman, Gloria. (2012). *Ni olvido, ni silencio: Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*. UPV/EHU.

- Mendia, Irantzu, Guzman, Gloria (2014) *La división sexual del trabajo por la paz: género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina. Tecnos*.

-Mendia, Irantzu (et al) (2015) *Otras formas de (re)conocer: Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. Hegoa, Sinref, UPV/EHU

-NBE. Segurtasun Kontseilua . (2000). 1325 ebazpena. 4213. saioa.

-Portolés, C. M. (2008). *Mujer, paz y seguridad: un balance de la Resolución 1325*. Anuario CEIPAZ, (2), 69-84.

-Rodríguez, Zuriñe. (2012). *Mujeres armadas: una mirada a las mujeres de ETA a través del discurso mediático*. Master Amaierako Lana, argitaratu gabea., Universidad del País Vasco, Leioa.

-Ruiz Torrado,, Maria (2017): [Kartzela genero-erakunde bezala: bereizkeriak, erresistentziak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean](#), UEU, Bilbo.

-Ruiz Torrado, María (2016): "Murrua murre (besterik ez) denean. Kartzelatutako emakumeen erresistentzia-praktikak aztergai", in Mari Luz Esteban Galarza y Jone M. Hernandez García (coords.), *Etnografía Feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*, UPV/EHU, UEU, Bilbao, 103-119.

-Ortner, Sherry (2006). *Anthropology and social theory*.

-Pagola, Florencia. *Feministas colombianas y perspectiva de género en los acuerdos de paz*. Argitaratua: 2016/10/07. <https://distintaslatitudes.net/feministas-colombianas-la-perspectiva-genero-los-acuerdos-paz> Ikusia: 2018/09/01

-Ruiz Torrado, O, María (2016): "[Espetxeko genero-diskriminazioa hizpide: Euskal Herriko presondegietako atxiloen, langileen eta elkarteetako kideen ikuspegiak](#)", *Uztaro*. Udako Euskal Unibertsitatearen giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, 98, 5-29.

-Ruta Pacífica de las Mujeres (2012): *La verdad de las mujeres. Víctimas del conflicto armado en Colombia*. Bogotá

-Shepherd, Laura. *Mujeres, conflictos armados y lenguaje; género, violencia y discurso*. *International Review of the Red Cross*, 2010, vol. 877, p. 1-18.

-Villalba, C., & Álvarez, N. (2011). *Cuerpos políticos y agencia. Reflexiones feministas sobre cuerpo, trabajo y colonialidad*. Granada: Universidad de Granada.

10-ERANSKINAK

2018/03/24

Elkarrizketen gidoiak

ELKARRIZKETA:

Beti *al loro* kontuan edukitzeko aldagaiak, eta horrekin moldatu galderak: zer sentimendu sorrarazi dien gertatutakoak (damua, haserrea, maitasuna). Beraiek nola sentitu diren barne/kanpo, emakume izateagatik diferentzia egon dela (edo hori baliatu dutela) berbalizatzen duten, praktika erresistenteei garrantzia, berezitasunak kontuan hartu (presoaren ama, deportatuaren laguna...). Eta utzi beraiei hitz egiten eta moldatu blokeen ordena, nahi bada.

*Hasieran pertsonari berari buruz galdetu, oso pisutsua ez den zerbait, adina, non bizi den eta non bizi izan den, zertan parte hartzen duen, ez dakit, zerbait arina eta beraien ni-arekin konektatuta dagoena.

1. BLOKEA: Gatazkarekin/gatazkarekiko izandako bizipena (zentzu “zurruneanean”). Elkarrizketatuek badakite gatazkaren “lehen lerroan” aritu den lagun edo senide bat izan dutelako elkarrizketatuko ditugula, beraz, agian hortik hasita:

- Lagun bat edo senide bat izan duzu euskal gatazkaren lehen lerroan inplikaturik. Zein izan zen urte horietako bizipena?
- Nola jaso zenuen besteak parte hartzen zuenaren albistea?
- Pribatuan eraman zenuen gaia izan zen (sasia, atxiloaldia...), ala familiaz harago hitz egindako kontua izan zen? Nola sentiarazten zintuen horrek?
- Nolako bilakaera izan zuen horrek zure inplikazio politikoan? *Lerroen kontua*
- Zer suposatzen du, senide bat / lagun bat / bikotea ihesean, espetxeratu, deportatu, hilda... izatea?

2. BLOKEA: Egunerokoa gatazkak eta egoera biolentoek izan duten eragina.

- Zein da orain zure egunerokoa? *Bi zentzutan: oraindik laguna /senidea espetxean edo ihesean badago duen eragina; eta jada ez badago ea arrastorik utzi duen eta dinamika jakin batzuk gorde dituen oraindik.*
- Nola antolatzen zara/zinen? *(nola egin aurre adb, burokrazia kontu guztietaz, dena beren gain erortzen ote den emakume izateagatik, nola deskonektatzen diren...)*

- Ihesaldia, espetxea, norbaiten “pendiente egotea”... nolako eragina izan du/zuenhorrek zure dinamiketan? (Nik uste iraganeko egoera bada, ondo legokela galdetzea ea gerora horietako dinamika batzuk segida izan ote duten; adibidez, beste preso batzuk bisitatzea joatea, Mirentxineko gidaria izatea, ekimen jakin batzuetan parte hartzea..)
- Zertan aldatu da? (Lana utzi, leku jakinetara ez joan, lagunak...)
- Eta hori, zerbaiten eraginez, beldurrez...?

3. BLOKEA: Errepresioa eta biolentzia. Eta horri aurre nola egin

- *Aurreko blokeko azken galderarekin lotuta* Bizi izan duzu egoera deserosorik? Zein?
- Eta, biolento bezala izendatuko zenituzke? *Zein bai zein ez... hau besteetan atera zait, horregatik jartzen det.*
- Etxean gertatu dira, ala espazio publikoetan? (Lanean, kalean, tabernan...)
- Kartzela ere espazio deserosoa izango da...
- Horien aurrean, zein izan da zure jarrera? Zer da sentitu duzuna?
- Nahi izan gabe, sentitu duzu bete-bete harrapatu zaituela gatazkak? Ala urrun bizi duzu “GATAZKA” hitz larriekin?
- Maila politiko zurruna norberaren mailara ekartzeak eduki duen garrantziaz hausnarketa...

4. BLOKEA: Erresistentziak eta aliantza sareak

- , zein izan dira egunerokoari aurre egiteko erabili dituzun formak eta sortu duzun sarea?
- Zein nolako garrantzia izan du, esaterako, beste preso batzuen senideekin biltzeak? Eta bestelako pertsonekin?
- Lortzen duzu egunerokoan ihesbideak topatzea uneoro gauza bera buruan ez izateko? Zein? Nola?
- Zein faktore dira, zuretzat, ezinbesteko, egoerari aurre egin ahal izateko?
- *Egoerak kontatzea ahalbidetzen badu*: eta eskala handiagoan, egoerak eraman zaitu beste modu batean parte hartzera? Sare batean antolatzea, politikoki parte hartzera, beste ardura batzuk izatera...
- Beste?